Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa

IKASTOLEN HIZKUNTZ PROIEKTUA



ikastolen Hizkuntz Proiektua

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa

Ondorengo erakundeei gure esker ona, lan hau azken bost ikasturteotan diruz lagundu dutelako:

— *Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*
— *Bilbao Bizkaia Kutxa*
— *Gipuzkoa Donostia Kutxa*
— *Caja Vital Kutxa*
— *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*

Argitaratzailea: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa

Teknologia Parkea – Laida Bidea, 208 B 1
48170 Zamudio – Bizkaia
Tel. +34 944317883 – Fax +34 944317882
e-mail: ehik@ikastola.net
http://www.ikastola.net

Azala: GERTU, Oñati
Diseinua eta maketazioa: GERTU, Oñati
Inpresioa: GERTU INPRIMATEGIA, Oñati
Lehen edizioa: 2009ko otsaila

© Ikastolen Konfederazioa
ISBN: 84 37006901 27 7
Lege gordailua: BI-148-09

Aitortu. Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimenduak zehaztutako eran.
Ez merkataritzarako. Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.
Partekatu baimen beraren arabera. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana bana dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.

- dokumentu honen garatzaileak:

  Elorza, Itziar
  Boan, Kristina
  Muñoa, Inma
  Urruzmendi, Amaia
  Barrios, Mikel
  Osa, Erramun

- abiapuntuzko oinarrizko markoaren idazleak:

  Aldasoro, Mikele
  Amondarain, Antton
  Aurrekoetxea, Manu
  Elorza, Itziar
  Etxezarreta, J. Iñaki
  Garagorri, Xabier
  Hernández, Loli
  Lekuona, Iñaki
  Osa, Erramun
  Soroa, Nagore
  Uriarte, J. Andoni

- ikastola pilotuetako dinamizatzaileak:

  1. taldea

Ander Deuna Ikastola:	Jonan Bedialauneta
Eguzkibegi Ikastola:	Ana Mezo
Eleizalde Ikastola:	Maribel Mentxaka, Olatz Zabalondo
Gure Ikastola (Hendaia):	Pello Urriza
Haurtzaro Ikastola:	Kristina Boan, Josune Saizar
Itxaropena Ikastola:	Agueda Laraudogoitia, Begoña Ibarretxe
Jakintza Ikastola (Ordizia):	Joxemiel Amundarain, Mikele Iztueta, Bixen Mujika
Laskorain Ikastola:	Helena Baraibar, Garbiñe Gantxegi
Paz de Ziganda Ikastola:	Jemi Sorabilla, Iñaki Martinez
Piarres Lartzabal Lizeoa:	Pantxika Duperou
R.M.Azkue Ikastola:	Aitor Txopitea, Antxone Telleria
Urretxindorra Ikastola:	Bittor Atxutegi
Urretxu-Zumarraga Ikastola:	Mertxe Serna, Arantza Lizarralde

2. taldea

SEASKA:	Alazne Petuya
Armentia Ikastola:	Asier Astigarraga
Azkaineko Ikastola eta Zaldubi Ikastola (Senpere):	Idoia Feldmann
Jaso Ikastola:	Andoni Sagastibeltza, Teresa Agorreta
Lizarra Ikastola:	Susana Barbarin, Josu Reparaz
Olabide Ikastola:	Xabin Maiz, Andone Ruiz Miren Barinaga
Pasaia-Lezo Lizeoa:	Karmele Legorburu, Karmele Goienetxea,
Santo Tomas Lizeoa:	Txomin Sagarzazu, Dorleta Etxezarreta
Orereta Ikastola:	Aurkene Astibia, Esther Gutierrez, Mari Karmen Munduate
Oiartzo Lizeoa:	Aitzpea Aizpurua, Inazio Retegi
Zurriola Ikastola:	Dani Goñi, Patxi Sarriegi

3. taldea

Aranzadi Ikastola:	Ane Barruso
Arizmendi Ikastola:	Ana Alvarez, Irune Urbina.
Laudio Ikastola:	Iñaki Mendiguren, Saioa Ugarriza, Elixabete Campos, Ana Ribaguda
Axular Lizeoa:	Amaia Urruzmendi, Arantza Mokoroa
Ikasberri Ikastola:	Alberto Lizeaga
San Benito Ikastola:	Iñaki Amundarain
San Fermin Ikastola:	Ane Apezetxea
Tantirumairu Ikastola:	Maria Luisa Etxeberria
Txantxiku Ikastola:	Belen Goñi, Kontxi Puertas

ikastolenhizkuntzproiektua
ikastolenhizkuntzproiektua
ikastolenhizkuntzproiektua
ikastolenhizkuntzproiektua

4. taldea

Andoaingo Aita Larramendi Ikastola:	Izaskun Linazasoro
Arizmendi Ikastola:	Belen Murgiondo, Marisol Etxabe
Herri Ametsa Ikastola:	Arantza Iturrioz
Jesusen Bihotza Ikastola:	Nerea Urdanpilleta, Mari Karmen Izagirre
Kurutziaga Ikastola:	Maria Leiva
Labiaga Ikastola:	Pakea Oiartzabal
San Nikolas Ikastola:	Mari Jose Txurruka, Isabel Mendibil

Lan honek Ikastolen Elkartearen egitasmo askotarikoen ekarpenak biltzen ditu eta horrenbestean talde handi baten ahaleginen emaitza da. Aipamen berezia egin nahi diegu Hizkuntz Proiektuaren garapenean eragin handiena izan duten beste egitasmoetako lankideei:

"Ikastolak Orain eta Gero" egitasmoaren koordinatzailea:
J. Iñaki Etxezarreta

"Euskal Curriculuma" egitasmoaren koordinatzailea:
Xabier Garagorri

Euskaraz Bizi lurraldeetako koordinatzaileak:
Arantza Gonzalez, Helena Baraibar, M. Carmen Lejarza, Maider Etxaniz, Aitor Sarasua

Ikasmaterialgintzan eta Eleanitz Proiektuan, hizkuntza-curriculum bateratuan diharduten egile-prestatzaileak:

- DBH Ostadar Hizkuntzak: Mikele Aldasoro, Nerea Goiri, Ana Ribaguda, Amaia Artolazabal
- Eleanitz English: Diana Lindsay, Phil Ball, Harri Beobide, Sagrario Etxabe, Maite Garmendia, Mariaje Zufiria
- LH Txanela: Maite Saenz, Iñaki Lasa, Saionara Barrena, Miren Agirreolea, Arantxa Sobrino
- HH Urtxintxa: Arantza Zugazagasti, Iratxe Ramirez

Etorkinen Mintegiaren arduraduna:
Onintza Zabala

leihoak
mundura
zabalik

leihoak mundura zabalik

Pozgarria da niretzat 2002ko udaberrian, Donostian, *Euskararen Erabilera* goiburupean burutu ziren IX. Jardunaldi Pedagogikoetan aurkeztu genuen Ikastolen Hizkuntz Proiektua egitasmoak egin duen ibilbide oparoa ikustea. Halaber, eskertzekoa da, zinez, emaitza berria den argitalpen honen lehenbiziko hitzak idazteko gonbita ere jaso izana. Era berean, zorionak eman nahi dizkiet, bene-benetan, 2002an zirriborratu genuen proiektu hori gauzatzeko eta borobiltzeko gogotik ahalegindu diren guzti-guztiei, bai Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioan bai han-hemengo ikastoletan jardun dutenei ere.

Ezina ekinez egina dio gure aurrekoetatik jaso genuen esamoldeak. 2002an ametsa zirudiena, zailtasunez betetako bide malkarra ematen zuena, arian-arian gauzatzeko urratsak egin dituzue/ditugu, gainerako hezkuntza-erkidegoentzat bide-erakusle gertatuz. Izan ere, hezkuntza prozesuetan arrakastaz murgiltzeko erabakigarriak eta alboratu ezinezko bitartekoak diren lanabesak ditu nagusiki Hizkuntz Proiektuak aztergai, hizkuntzen auzia hezkuntzan hain zuzen. Horiek horrela, behinola Mitxelenak hizkuntzak direnaz idatzitakoak datozkit gogora:

“Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpide besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta

elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona aizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta aizkora amutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz dezakeen adina zorroztu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axularrek zioenez (…) Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: ez du deus barrenen eta zernahi izan dezake."[1]

Eleaniztuna da gure gizartea eta hori bera etorkizuna. Euskaraz gain, frantsesa eta gaztelania mintzabide ere badituena. Etorkinen etorrerarekin eleaniztasun egoera hori areagotu egin da gainera.

Aldi berean, mundura ere irekita dagoen gizartea da geurea. Izan ere, euskararen indarberritzearen aldeko jarduna atzerriko hizkuntzak eskuratzearekin ez dagoela inolaz ere kontraesanean erakutsi digute Ikastolek. Haiek izan dira gurean, besteak beste, atzerriko hizkuntzen eskuratze goiztiarrean aitzindariak, curriculum berritzaileak diseinatzen eta baliatzen lehenak, behar berriei erantzuteko asmoz material ugari ekoitzi eta eskura jarri dituztenak. Ikastolek gizarteari zerbitzatzeko duten bokazio kolektiboaren ekarpenaren isla da ez besterik hori guztia. Beste horrenbeste da argitalpen hau ere.

Erronka handiak ditugu eskuartean; euskara gela barruko jardunaren ardatz ez ezik noranahiko ere bilakatzea, hiztun zahar zein berrien beharrizanak ez ezik haien atxikimendua ere jorratuz bidenabar; gurera etorri berriak diren pertsonei integraziorako (ez asimilaziorako) aterpe ziurra, erakargarria eta irekia eskaintzea, besteak beste, haien hizkuntza eta kulturetara hurreratuz, haien

[1] Mitxelena (1972); "Pro Domo" in *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor. 213 or.

lurraldeetan izateko modurik izan ez dutena gurean izan dezaten eginahalak eginez; frantsesa edota gaztelania hizkuntzak lantzen jarraitzea, ikastolen hizkuntza-ereduaren abiaburua ez baita hizkuntzak aurre-aurre jartzea metatzea baizik; eta azkenik, atzerriko hizkuntzen eskuratzea ahalbidetzea.

Batzuek uste dutenaren kontra elebakartasuna salbuespena da munduan zehar eta eleaniztasuna da orobat gehien zabalduta dagoen errealitate linguistikoa. Era berean, elebakartasuna muga bat da ez besterik gaurko zein biharko zein etziko belaunaldientzat. Alabaina, hizkuntzekiko helburuak lortu ahal izateko lan kolektiboa giltzarria da. Bakoitzak bere aldetik dsezakeena hankamotz geratzen baita ditugun helburuetarako. Beraz, xedeok hezkuntza-erkidegoko gainerako kideekin batera arituz lor ditzakegu soil-soilik, hori gertatu ezean alferrik baikabiltza. Hartarako, marko ezin aproposagoa eskaintzen du Hizkuntz Proiektuak.

Leiho ugari dituen etxea da geurea. Leihoak zabaldu ohi ditugu kaleko aireak gure geletako giroa eraberri dezan. Hizkuntzak eta haiekin doazen kulturak gure etxean libre ibili daitezen nahi dugu, gurea den euskara bazterrean utzi gabe, atzendu gabe, noiznahi, nonahi eta nolanahi baliatu ahal izateko.

2009ko urtarrilaren 27a.

Erramun Osa
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria

Hitzaurrea 8

Sarrera 16

HIZKUNTZ PROIEKTUAREN ERREFERENTZIA-MARKOA 19

1. Egoeraren diagnostikoa 21

1.1. Ikastola eta hizkuntzak; bilakaera historikoa 22
1.2. XXI. mendeko gizartea eta hizkuntzak 25
1.2.1. Ezagutza eta globalizazioaren gizartea 25
1.2.2. Euskal gizartearen egoera 26
1.3. Euskal hezkuntzaren hizkuntzekiko erronka nagusiak 31
1.3.1. Hezkuntza eredu berriaren hizkuntz eskakizunei erantzutea 31
1.3.2. Eskolako komunikazio-inguruaren kalitatea hobetzea 32
1.3.3. Euskararen biziberritzea 33
1.3.4. Euskal kulturaren biziberritzea 34
1.3.5. Kultur aniztasunari eta hizkuntz aniztasunari erantzutea.. 35
1.4. Ondorioak: Hizkuntz Proiektuaren beharra 36

2. Ikastolen hizkuntzekiko ikuspegia eta helburuak 39

2.1. Ikastolen izaeraren ezaugarriak 39
2.2. Ondorioztatzen diren hizkuntzekiko helburuak 41
2.2.1. Helburu orokorrak 41
2.2.2. Hizkuntzekiko erreferentziazko lorpen-mailak 42

3. Hizkuntz Proiektua: definizioa eta ezaugarriak 45

3.1. Hizkuntz Proiektuaren definizioa 45
3.2. Hizkuntz proiektuaren heldulekuak: hizkuntzekiko esku-hartze eremuak 48
3.2.1. Eremu pedagogikoa 50
3.2.2. Eremu instituzionala 51
3.3. Hizkuntz Proiektuaren ezaugarriak 54
3.4. Hizkuntz Proiektuaren kokapena 55
3.5. Ikastola bakoitzaren Hizkuntz Proiektua: edukiak 56

4. Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoak 59

4.1. Ikastolen hezkuntza-ereduaren printzipioak 59

4.2. Hizkuntz eta kultur politikaren oinarriak 62

4.2.1. Eskolaren zeregina euskararen indarberritzeko prozesuan... 62

4.2.2. Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne-hartzailea 64

4.3. Hezkuntzaren ikuspegia 66

4.3.1. Konpetentzien hezkuntza eredu berria 66

4.3.2. Metodologiaren oinarriak 71

4.4. Hizkuntzaren eta hizkuntza-irakaskuntzaren ikuspegia 72

4.4.1. Hizkuntzaren ikuspegia 72

4.4.2. Euskaran ardaztutako hezkuntza eleaniztuna 74

4.4.3. Komunikatzen ikasi konpetentzia orokorra 77

4.4.3.1. Gela barruko eremuaren hizkuntz beharrak 80

4.4.3.2. Hizkuntz arloaren trataera.................................... 82

4.4.3.3. Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena 86

4.4.4. Hizkuntz dibertsitateari eta kalitateari begira, erregistroen trataera 89

5. Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren prestakuntza-irizpideak 93

5.1. Prestakuntzaren esparruak 94

5.2. Prestakuntzaren ardatz nagusiak 94

5.2.1. Profesionalak. Funtzioa eta garrantzia 95

5.2.2. Gurasoak 101

5.2.3. Ikasleak 105

5.3. Ikastolako prestakuntza-planaren beharra 106

IKASTOLA BAKOITZAK BERE HIZKUNTZ PROIEKTUA GARATZEKO GIDA ... 107

6. Ikastolaren Hizkuntz Proiektua: kudeaketarako ibilbidea 111

6.1. Ibilbidearen sekuentzia grafikoa 112

6.2. Ibilbidearen urratsak 113

6.2.1. Hausnarketa eta sozializazio fasea 113

6.2.2. Egoeraren diagnostikoa 114

6.2.2.1. Diagnosiaren 1. fasea 115

6.2.2.2. Diagnosiaren 2. fasea 116

6.2.2.3. Diagnosiaren 3. fasea 116

6.2.3. Hizkuntz Proiektuaren idazketa 117

6.2.4. Plan estrategikoa 120

6.2.4.1. Plan estrategikoaren atalak 120

6.2.4.2. Plan estrategikorako orientabideak 121

6.2.5. Urteko plana (1) 121

6.2.6. Urteko memoria 122

6.2.7. Hizkuntz Proiektua dokumentuaren eguneratzea 123

6.2.8. Urteko plana (2 …) 123

6.2.9. Plan estrategikoaren ebaluazioa 124

7. Ikastolaren komunikazio-testuinguruaren deskripzioa: hizkuntzekiko esku-hartze eremuen zehaztapena 125

8. Hezkuntza Proiektua iturburu 129

9. Hizkuntz plangintza 131

9.1. Hizkuntz plangintzaren oinarriak 131

9.1.1. Hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa ikastolako eremuetan 132

9.1.2. Hizkuntz erregistroen trataera 135

9.1.2.1. Hizkuntz erregistroen mailakatzea 135

9.1.2.2. Erregistro formalak eta ez-formalak ikastolako eremuetan 137

9.1.3. Eskolaratze berantiarraren erronka 138

9.1.3.1. Hizkuntz plangintza 139

9.1.3.2. Curriculumaren egokitzapena, konpetentziei begira . 140

9.1.3.3. Aniztasunaren ekarpena ikasle guztien hezkuntza-prozesuan 141

9.1.3.4. Gelaz kanpoko eremuaren garrantzia 142
9.1.3.5. Gizartearengan eragina 142
9.2. Hizkuntz plangintzan eragiteko orientabideak 144

10. Esku-hartze eremuetan eragiteko orientabideak 147
10.1. Eremu pedagogikoa: gela barrukoa 147
10.1.1. Kudeaketa pedagogikoa 148
10.1.1.1. Hizkuntz arloko curriculum bateratua 148
10.1.1.2. Beste arloetako curriculumak 151
10.1.1.3. Proiektu osagarriak 152
10.1.2. Interakzio didaktikoa 154
10.1.2.1. Hizkuntz erabilera 155
10.1.2.2. Metodologia eta didaktika 157
10.1.3. Irakasleen prestakuntza 159
10.1.4. Baliabideak 161
10.2. Eremu pedagogikoa: gelaz kanpokoa 163
10.2.1. Hizkuntz erabilera 163
10.2.2. Metodologia eta didaktika 164
10.2.3. Hezitzaileen prestakuntza 172
10.2.4. Baliabideak 174
10.3. Eremu instituzionala 175
10.3.1. Eraketa eta barne-komunikazioa: ikastetxea 175
10.3.2. Eraketa eta barne-komunikazioa: familia 181
10.3.3. Kanpo-harremanak 184

11. Hizkuntz Proiektuaren kudeaketarako egitura eta zeregin proposamena 189
11.1. Ikastolaren gobernu-organoei dagozkien zereginak 190
11.2. Zuzendaritzari dagozkion zereginak 191
11.3. Hizkuntz Proiektua Taldearen osaketa 192
11.4. Hizkuntz Proiektua Taldearen zereginak 194
11.5. Hizkuntz Departamendu Bateratuaren osaketa eta zereginak 195
11.6. Euskaraz Bizi Taldearen osaketa eta zereginak 196

12. Hizkuntz Proiektua garatzeko ikastola-sarearen zerbitzuak 199

13. Etorkizunari begira 203

14. Eranskina 205

15. Erreferentzia bibliografikoak 227

XXI. mendearen lehen hamarkada hauetan, heziketa-lana tokian tokiko eta garaian garaiko testuinguruan ongi kokatu nahi duen eskolak bere planteamenduak eguneratu behar ditu, gizartean gertatzen ari diren aldaketa sakonei era eraginkorrean erantzun nahi badie.

Aldaketa horien artean, hizkuntzarekin zerikusia duten prozesuek berebiziko garrantzia hartzen dute ikastolontzat eta euskal eskolarentzat, oro har. Euskararen indarberritzea dugu ardura nagusi, eta, horrekin uztartuz, globalizazioaren gizarte eleaniztunean bizitzeko prestatu behar ditugu etorkizuneko euskal herritarrak. Horrenbestez, euskaran eta euskalduntasunean ardaztutako hezkuntza eleaniztunerako eredua garatu behar dugu.

euskararen indarberritzea dugu ardura nagusi, eta, horrekin uztartuz, globalizazioaren gizarte eleaniztunean bizitzeko prestatu behar ditugu etorkizuneko euskal herritarrak

Bide horretan, 2000. urtean ikastola-sareak tresna berri baten beharra ikusi zuen; hain zuzen ere, ordura arte hizkuntzen inguruan sortutako proiektu guztiak uztartuko zituen tresna bat, eta hizkuntza guztien tratamenduari koherentzia emango ziona eskola barruko eremu askotarikoetan. Tresna horri ***Hizkuntz Proiektua*** deitu zitzaion, eta haren markoa garatzeko hainbat eremutako adituen talde teknikoa izendatu zen. Behin marko hori idatzita (*Ikastolen Hizkuntz Proiektua definitzen*, 2002) Ikastola bakoitzak bere Hizkuntz Proiektua garatu zezan saio pilotua martxan jarri zen hainbat ikastolarekin: ingurune soziolinguistiko eta tamaina desberdinetakoekin, eta hizkuntzak eskuratzeko edo erabilera indartzeko egitasmoetan eskarmentu desberdina zuten ikastolekin. Urtez urte egitasmoarekin bat egiten joan dira ikastolak, eta 2008an hogeita hamasei ikastolako taldea izatera iritsi da. Hemen eskaintzen den liburu hau da hasierako taldearen hausnarketari esker, eta ikastola aitzindarien lanari esker, garatu den ibilbidearen emaitza.

Dokumentu hau idazten ari garen unean, ikastolen kolektiboa XXI. mendearen eskakizunetara egokitutako “Ikastola-eredua” definitzeko prozesuan dago[1]. Hau da, ikastola guztiak batzen gaituzten oinarrizko hezkuntza eta eraketa-ezaugarri komunak erabakitzen ari gara. Erabaki horien artean, ezin-

[1] Ikusi “Ikastolak. Orain eta Gero” dokumentua (EHIK, 2008).

bestean, zera dago: ikastola guztiek gutxienez bete beharreko oinarrizko hizkuntz plangintza. Alabaina, eskuartean duzun liburua gutxieneko plangintza hori baino haratago doa; esan bezala, 90eko hamarkadatik aurrera Ikastolen Elkartea garatzen eta bultzatzen ari den euskaran ardaztutako eleaniztasunerako proposamen osatua biltzen du liburuak, eta hori aholkatzen zaie ikastolei helmuga gisa.

Egitasmo honen emaitza gizarteratzeko garaian, hau da, ***Ikastolen Hizkuntz Proiektua*** argitaratzerakoan, bi ataletan bereizi da liburua: lehenengoa, *Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-markoa* deritzona; bigarrena, *Hizkuntz Proiektua garatzeko gida* izeneko atala, eranskin bilduma zabal batekin batera eskaintzen dena.

Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-markoa atalean, izenburuak dioen bezala, Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-eredua eskaini nahi da. Hau da, Hizkuntz Proiektuaren kontzeptua bera azaltzeaz gain, ikastolok Hizkuntz Proiektua garatzeko ardatz gisa hartu ditugun oinarri teorikoak aipatzen dira. Oinarri horiek, izan ere, ikastola gisa definitzen gaituzten ezaugarri bereizgarrien araberakoak dira.

hemen eskaintzen den liburu hau da hasierako taldearen hausnarketari esker, eta ikastola aitzindarien lanari esker, garatu den ibilbidearen emaitza

Bigarren atalak, *Hizkuntz Proiektua garatzeko gida* izenekoak, erreferentzia-marko horren zehaztapen praktikoa izan nahi du. Jarraibide zehatzak eskaintzen ditu ikastola bakoitzak, bere testuinguruari eta ezaugarri bereziei erantzunez, bere Hizkuntz Proiektua sor dezan.

Liburu honen erabilera malgua izan daiteke, irakurlearen helburuaren baitan atal batetik edo bestetik hasteko; atal batera edo bestera bakarrik jotzeko aukera ere badago. Hartzaile bakoitzaren beharrei erantzungo dion malgutasun hori ahalbideratzeko, *Hizkuntz Proiektua garatzeko gida* izeneko atal praktikoaren esparru bakoitzak lotura zuzena izango du marko teorikoan dagokion azalpenarekin; horrela, bakoitzak bere interesen arabera jasoko ditu erreferentzia teorikoak.

ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-markoa

Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren ezaugarriak nahiz oinarri teorikoak azaltzen dira atal honetan. Hauek izango dira, zehazki, atal honen barruan landuko diren gaiak:

- . Egoeraren diagnostikoa
- . Ikastolen hizkuntzekiko ikuspegia eta helburuak
- . Hizkuntz Proiektuaren definizioa eta ezaugarriak
- . Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoak
- . Hizkuntz Proiektuaren prestakuntza-irizpideak

1 egoeraren diagnostikoa

Hizkuntzak betidanik izan du garrantzi handia ikastolontzat; izan ere, euskaraz irakasteaz gain euskara irakastea eta bultzatzea izan da ikastolok hasieratik izan dugun helburu nagusienetako bat. Hizkuntza gaiekiko dugun kezka horren lekuko izan da euskal gizartearen hizkuntza beharretara egokitzeko, eta askotan premia horiek aurrez ikusteko, izan dugun gaitasuna; besteak beste, ama-hizkuntza erdara duten umeen murgiltzea abiatu da, Euskaraz Bizi proiektua eratu da, eta ingelesaren sarrera goiztiarra ezarri da. Ikastolen Hizkuntz Proiektuak bide horretan urrats berri bat egin nahi du; esku artean duzun dokumentuak XXI. mendeko euskal gizarteak dituen hizkuntz eskakizunei erantzuten laguntzeko asmoa du.

Horretarako, XXI. mendeko gizarteak duen hizkuntz egoeraren diagnosia egiten saiatuko gara orrialdeotan. Lehenik, ikastolen bilakaera historikoa aipatuko dugu; gero, ezagutzaren nahiz globalizazioaren gizarteak hizkuntza aldetik dituen ezaugarriak eta erronka nagusiak aztertu eta euskararen biziberritze-prozesuak izandako bilakaera aipatuko dugu.

ikastolen Hizkuntz Proiektuak XXI. mendeko euskal gizarteak dituen hizkuntz eskakizunei erantzuten laguntzeko asmoa du

1.1. Ikastola eta hizkuntzak; bilakaera historikoa

Ikastolak 1960ko hamarkadan sortu ziren, euskaraz hitz egiten zuten haurrek ama-hizkuntzan kalitatezko hezkuntza izan zezaten. Baina, berehala hasi ziren ikastoletan matrikulatzen gaztelaniaz eta frantsesez mintzatzen ziren familietako haurrak ere. Hori dela-eta, ikastolak murgiltze-programa bihurtu ziren, gaztelaniaz eta frantsesez mintzatzen ziren haurrak euskalduntzeko murgiltze-programa, hain zuzen ere. Horretaz gain, ikastolek euskal gizartean hizkuntz ordezkapena iraultzeko helburua zuten, eta, horretarako, beren inguruneetan euskara eta euskarazko kultur jarduerak sustatzeko eta sendotzeko urratsak egiten hasi ziren.

Hala ere, berehala ikusi zen ez zela batere erraza hizkuntzaren erabilera eskolaren testuingurutik harago hedatzea. Ikasleek maila ona lortzen zuten hizkuntza akademikoan, baina hizkuntzaren erabilera ez zen orokortzen, ezta transferitzen ere, eskolako nahiz eskolatik kanpoko esparru informaletara. Horregatik, euskal gizartean euskararen erabilerak ez zuen gora egin, irakaskuntza-sistemak euskaldundutako ikasleen kopuruaren proportzioan.

Hutsune hori betetzeko asmoz, 1980an *Euskaraz Bizi* (Gorostidi, 1991) programa sortu zen euskararen erabilera sustatzeko, ikastola talde baten ekimenez. Besteak beste, motibazio-kanpainak, eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdirako jarduerak antolatu ziren programa horren baitan ikasle, irakasle eta gurasoei begira.

Urte batzuk geroago, 1990eko hamarkadan, hezkuntza-berrikuntzaren prozesu orokorrak ekarritako hausnarketaren baitan, ikastolek beren hizkuntz helburuak berrikusteko eta zabaltzeko beharra ikusi zuten; elebitasunaren ordez, eleaniztasuna izango zen helburu berria. Ondorio horretara heltzeko, ikastoletan irakatsiriko hizkuntza guztien beharrak (hau da, euskara, gaztelania/frantsesa, ingelesa eta beste) eta gizarte egoera aztertu zituzten; gero, curriculum eleaniztun bat diseinatzeko eta martxan jartzeko ekimen berriak abiarazi zituzten. Testuinguru horretan, 1991-92 urteen artean *Eleanitz* proiektua sortu zen,

euskara ardatz nagusi izango zuen eskola eleaniztunaren eredua garatzeko. Honako hauek dira proiektuaren ezaugarri garrantzitsuenak:

- "Eredu integratzaile" bat garatu zen jatorriz kultura eta hizkuntza ezberdinetakoak ziren ikasleentzat; eredu horretan euskarari eusteko eta euskaran murgiltzeko programak landu ziren curriculum eta didaktika esparru bateratuan, bakoitzaren hizkuntzen beharrizan jakinetara moldatuta (Garagorri, 1995).

- Ikasle gehienen ama-hizkuntza (L1) gaztelania izan arren, eskolan bigarren hizkuntzatzat (L2) hartu zen, eta haurrak zortzi urterekin hasi ziren hizkuntza hori irakasgai gisa ikasten. Euskararen curriculumarekin bateratu zen, eta helburuak eta edukiak osagarritasunez lantzen ziren.

- Hirugarren hizkuntzaren ikaskuntza (L3), kasu honetan ingelesarena, lau urterekin hasi zen; batetik, adin goiztiar horretan ikasleek hizkuntzak bereganatzeko duten erraztasunaz baliatzeko helburuarekin eta, bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren plangintzaren barruan ingelesa ikasteko ordu kopurua handitzeko; baina, betiere, euskararen nagusitasuna arriskuan jarri gabe.

2000. urtean ikastolen sareak *Ikastolen Hizkuntz Proiektua* jarri zuen abian. Proiektu horren bidez, ikastolek marko orokor bat garatu dute ikastolako hizkuntza bakoitzaren inguruan sortutako proiektuak uztartzeko, hizkuntzaren irakaskuntzan erabilitako ikuspegi eta metodologia guztiak bateratzeko, hizkuntzaren erabilera instrumentalaren eraginkortasuna curriculum osoan hobetzeko, eta hizkuntzaren irakaskuntzaren eta hizkuntza gutxituaren gizarte-sustapenaren arteko lotura egokiak sortzeko bideak irekitzeko.

Gaur egun, ikastolak eta euskal eskola birdefinizio prozesu batean murgilduta daude. Batetik, hezkuntza-konpetentzietan oinarritzen den hezkuntza-eredu berria dator gaur egungo gizartearen beharrei hobeto erantzutearren, eta Ikastola taldeak beste gizarte-eragileekin batera garatutako Euskal Curriculumaren markoan ezarri ditu ardatzak. Halaber, adostasun zabala lortu du hezkuntza-eredu berri horrek; bes-

teak beste, bat etorri dira Europar Kontseilua, Espainiako eta Frantziako Hezkuntza Ministerioak eta Nafarroako eta EAEko Hezkuntza Sailak, hezkuntzaren ardatz nagusiak konpetentzien garapenean ezartzean.

Bestetik, sarreran adierazi bezala, Ikastola-sarea "Ikastolak. Orain eta gero" izeneko hausnarketa-prozesuan murgilduta dago. Prozesu horren helburua ikastola-eredua definitzea eta datozen urteetarako kolektiboaren noranzkoa adostea eta finkatzea da; beraz, dokumentu honetan aipatuko ditugunak egokitzen eta garatzen joan beharko dira hausnarketa horren ondorioen baitan.

ikastolen zein euskal hezkuntza sistema osoaren xedea izango da euskal herritarrak gizartean partaidetza aktiboa izateko eta bizitzan modu eraginkorrean moldatzeko gai izan daitezen trebatzea. Helburu hori betetzeko, euskal hezkuntzak eta ikastolek aurre egin beharko diote hizkuntzen inguruko hainbat erronkari

Azkenik, hezkuntzaren birdefinizio horrekin loturik, hezkuntzari dagokion marko legala ere berraztertzen ari da garai honetan. Horren ondorioz, hizkuntz ereduak gainditu eta hizkuntzen kudeaketarako eredu berriak mahairatuko dituzten bestelako proposamenak garatzen ari dira, ikastoletan ere eragin zuzena izango dutenak, jakina.

Dena dela, ikastolen zein euskal hezkuntza sistema osoaren xedea izango da euskal herritarrak gizartean partaidetza aktiboa izateko eta bizitzan modu eraginkorrean moldatzeko gai izan daitezen trebatzea. Helburu hori betetzeko, euskal hezkuntzak eta ikastolek aurre egin beharko diote hizkuntzen inguruko hainbat erronkari, jarraian ikusiko dugunez; izan ere, XXI. mendeko gizarteak goi-mailako hizkuntz eskakizunak ditu eta horiei emango zaizkien erantzunak euskararen biziberritzearekin uztartu beharko dira.

1.2. XXI. mendeko gizartea eta hizkuntzak

1.2.1. Ezagutza eta globalizazioaren gizartea

XXI. mendeko gizarteak dituen ezaugarriak aipatzerakoan erabiltzen diren terminoen artean, bi dira hizkuntzen esparruan eragin zuzena dutenak: ezagutza eta globalizazioa. Bestela esanda, "ezagutzaren gizartea" edo "globalizazioaren gizartea" esapideak erabili ohi ditugu egungo gizartea deskribatzeko, eta izendatze horiek ondorio zuzena dute hizkuntzaren alorrean.

Azken urteotan izandako aurrerapen teknologikoen ondorioz, esan daiteke gaur egungo gizartean informazioa gero eta ugariagoa dela eta guztion eskura dagoela. Hartara, egungo herritarron erronka nagusia informazioa kritikoki aztertzea eta ezagutza bihurtzea izango da, informazioa lortzea baino gehiago. Hortik, beraz, "ezagutzaren gizartea" izendapenaren jatorria.

egia edo ezagutza absolutu gutxi dago, eta egungo herritarrek irizpide propioak garatu behar dituzte informazio nahiz ezagutza berriak balioesteko. Hortaz, informaziotik ezagutzara doan bidea, bizitza osoan ibili beharreko bide bihurtu da

Ezagutzaren beste ezaugarri garrantzitsu bat aldakortasuna da, egungo gizartean ezagutzak berehala zaharkitzen baitira eta etengabe berritzen. Hartara, egia edo ezagutza absolutu gutxi dago, eta egungo herritarrek irizpide propioak garatu behar dituzte informazio nahiz ezagutza berriak balioesteko. Hortaz, informaziotik ezagutzara doan bidea, bizitza osoan ibili beharreko bide bihurtu da.

Baina, nola bihurtzen da informazioa ezagutza?

> *"ezagutza beti elkarrizketa da (…): ez bakarrik arlo fisikoarekiko eta sozialarekiko elkarrizketa, "errealitate" esaten diogun horrekiko elkarrizketa (…), baizik eta, nagusiki, bere buruarekiko eta gainerakoekiko elkarrizketa. Ezagutzea jarduera soziala da, eta bertan norberaren sinesmenek –hau*

da, munduari buruzko gure teoria inplizituek– esplizitu izan behar dute. Berez, gure espeziean eta gure kulturan, ezagutzaren sorkuntza estuki lotuta dago komunikazio-sistemak menderatzearekin, horiek gabe ezagutzarik ere ez bailitzateke egongo" (Pozo, 2004; 53. or.).

Ezagutzaren ikuspegi horren arabera, beraz, ezagutzak sortzea edo eraikitzea ekintza soziala izango litzateke, eta ekintza sozial hori bideratzeko ezinbestekoak izango lirateke elkarrizketarako nahiz talde lanerako gaitasunak; hau da, maila goreneko hizkuntz konpetentziak, ahozkoak zein idatziak, garatzea eskatzen du.

Ezagutzaren gizartea izateaz gain, gorago aipatu dugun moduan, XXI. mendeko gizarteak baditu beste ezaugarri garrantzitsu batzuk: mugikortasuna eta globalizazioa. Nazioarteko harremanak nahiz mugikortasuna gero eta errazagoak dira, eta, hainbat kasutan, ezinbesteko bihurtzen ari dira. Joera berri horien ondorioz, dagoeneko ez da nahikoa hizkuntza bakar batekin jokatzea, eta egungo herritarrentzat eleaniztasuna garatu beharreko oinarrizko gaitasun bihurtu da. Alde batetik, gaur egun ezinbestekoa zaigu nazioarteko komunikaziorako *lingua franca*ren bat menderatzea; bestetik, gure inguru hurbilean hizkuntz eta kultur aniztasuna hedatzen ari da[2] eta gizartearen kohesiorako ezinbestekoa izango da hizkuntz eta kultur aniztasun horri erantzutea, hizkuntz nahiz kultur jatorria elementu baztertzaile ez izatea nahi badugu behintzat.

dagoeneko ez da nahikoa hizkuntza bakar batekin jokatzea, eta egungo herritarrentzat eleaniztasuna garatu beharreko oinarrizko gaitasun bihurtu da

1.2.2. Euskal gizartearen egoera

Ezagutzaren eta globalizazioaren gizarteak berekin dakartzan hizkuntza eskakizunekin batera, euskal gizarteak baditu hizkuntza aldetik bestelako ezaugarri batzuk ere; hala nola, euskararen biziberritze-

[2] IV. Inkesta Soziolinguistikoak dioenez, "1991 eta 2006 bitartean, EAEko atzerritarren ehunekoa biztanleen % 2tik % 5era igo da, eta Nafarroan % 2tik % 10era".

prozesua, hots, euskararentzat hiztunak mantentzera, gehitzera eta erabilera-eremuak irabaztera bideratutako prozesu soziala.

Euskaldunon hizkuntza komunitateak funtsezko aldaketa kuantitatiboak eta kualitatiboak izan ditu bere baitan azken mendean, eta areago azken hamarkadetan[3]:

- Lehenik eta behin, euskal hiztun kopurua hazi egin da. IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (2006) gaur egun 1991n baino 137.300 elebidun gehiago daude[4].

1. irudia. Hizkuntza gaitasuna herrialdearen arabera. Euskal Herria.



[3] Ikus: Amonarriz, Egaña, eta Garzia (2004).
[4] Inkesta Soziolinguistikoak EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko 16 urtetik gorako populazioari dagozkion datuak jasotzen ditu.

- Biztanleria osoa kontuan hartuz gero, aldiz, elebidunen ehunekoa are handiagoa da; izan ere, EAEn[5] nahiz Nafarroan elebidunen hazkundea bereziki gazteen artean ari da gertatzen.

- Bigarrenik, euskal hiztunen ezaugarriak aldatu egin dira. Batetik, egungo euskal hiztun guztiak elebidunak dira; bakoitzaren egoera, ordea, modu batekoa da bai lehen hizkuntzari dagokionez bai euskaraz jarduteko duten erraztasunari dagokionez. Bestetik, euskal hizkuntza komunitatean gero eta pisu handiagoa daukate euskara eskolan edo euskaltegian ikasi duten hiztunek; guztira euskal hiztunen herena osatzen dute (% 30,2). Eta azkenik, euskaraz hitz egiteko erraztasunaren arabera, euskal elebidunak % 30,7 izango lirateke; elebidun orekatuak % 30,3 eta erdal elebidunak % 38,9. EAEn eta Nafarroan erdal elebidunak dira nagusi; hau da, elebidunen artean erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak osatzen dute talderik handiena. Ehuneko hori, gainera, handiagoa da adinak behera egin ahala.

- Hirugarrenik, bada etorkizunari begira kontuan hartu beharreko beste ezaugarri bat: euskal gizartearen eta, bereziki, eskola-sistemaren barruan dagoen kultur eta hizkuntz aniztasuna. 2007. urtean EAEko ikasleen % 5,5 atzerritarra zen[6], eta Nafarroan, berriz, % 9[7]. Hasieran, ikasle etorkinak batez ere A ereduan sartzen ziren, baina badirudi joera hori aldatu egin dela; izan ere, 2007-2008 ikasturtean etorkin gehienak D ereduan ari ziren ikasten (% 56,1), % 23,2 B ereduan eta % 20,7 A ereduan. Ikasle horiek, jatorriz, gehienak (% 49) amerikarrak dira, % 29 europarrak, % 18 afrikarrak eta % 4 asiarrak[8]; guztira, beheko taulak erakusten duen moduan, euskararekin eta gaztelaniarekin batera beste ehun hizkuntza ditugu gaur egun EAEn eta Nafarroan.

---

[5] 2006ko erroldako datuen arabera EAEko 15 urtetik beherako biztanleen % 74 elebidunak dira. (Baztarrika, P. eta Osa, E.: *Euskara XXI aurkezpen-txostena*).
[6] EAEko datuak Barquinen (2008) lanetik hartu dira. Iparraldeko daturik ez dugu.
[7] 2003-2004ko datuak dira. Iturria: Etxeberria eta Elosegi (2008).
[8] Ikuspegi (2008).

1. taula. Etorkinen jatorria eta hizkuntzak[9]

	K	%	Estatu kop. (Naz.)	Bertako htzak.	Europako htzak.*	Ratioz Naz./Htza.
Amerika	75.164	48,7	13	5	4	0,38
Europa	45.414	29,4	24	29		1,2
Afrika	27.892	18,1	20	52	3	2,6
Asia	5.838	3,8	9	14	2	1,66
Ozeania eta besteak	137	0,1				
Guztira	154.445	100	66	100	4	1,54

* Kontinenteen arabera identifikatutako hizkuntzen zenbaketa orokorrean bikoizketarik gerta ez dadin, garai bateko metropolietatik etorritako hizkuntzak ez dira aintzat hartu: frantsesa, ingelesa, gaztelania eta portugesa ("Europako hizkuntzak" zutabeko zenbakiek hizkuntza horiei egiten die erreferentzia)

Hirugarrenik, euskararen erabilerari dagokionez, azken hamabost urteotan euskararen erabilerak gora egin du EAEn eta bere horretan jarraitzen du Nafarroan; Iparraldean, aldiz, behera egin du. Hala eta guztiz ere, igoera hori aztertzerakoan bi puntu hartu behar dira kontuan: batetik, euskara erdara beste edo gehiago darabilten elebidunak % 18,6 dira EAEn, % 5,5 Nafarroan eta % 10,3 Iparraldean; bestetik, erabileran gertatuko igoera handiagoa izan da eremu formalean, eremu informaletan baino.[10]

[9] Ikuspegi (2008).
[10] Baztarrika, P. eta Osa, E.: *Euskara XXI aurkezpen-txostena*.



2. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera eremuaren arabera. Euskal Herria.

azken urteotan euskararen biziberritzeak aurrera egin badu ere, badago, beraz, oraindik ere zer eginik. Euskal hezkuntzari dagokionez, euskararentzat hiztunak eta erabilera-eremu berriak irabazteaz gain, horren ondorioz sortzen diren hizkuntza aldaera berriak ahalik eta aberatsenak izan daitezen bermatu beharko du, besteak beste

Hiztun kopurua handitzeak nahiz euskararen erabilera hedatzeak euskararen erregistro-errepertorioa zabaltzea ekarri du. Batetik, euskara batuaren ildotik erregistro formalak eta jasoak (hezkuntza, enpresa, ikerketaren ingurukoak, besteak beste) garatzen eta hedatzen ari dira; eta bestetik, erregistro informalak eta lagun artekoak ere sortzen ari dira[11] (bai tokian tokiko aldaerak erabiliz, bai euskara batua egokituz). Azken horren lekuko dira, esaterako, hizkuntzaren kalitatearen inguruko kezkak eta eztabaidak.

Azken urteotan euskararen biziberritzeak aurrera egin badu ere, badago, beraz, oraindik ere zer eginik. Euskal hezkuntzari dagokionez, euskararentzat hiztunak eta erabilera-eremu berriak irabazteaz gain, horren ondorioz sortzen diren hizkuntza aldaera berriak ahalik eta aberatsenak izan daitezen bermatu beharko du, besteak beste.

[11] Ikus: Barrios, Osa, Muñoa, Elorza eta Boan (2008) eta Amonarriz, Egaña eta Garzia (2004).

1.3. Euskal hezkuntzaren hizkuntzekiko erronka nagusiak

Gauzak horrela, euskal hezkuntzak hizkuntzekiko dituen erronkak ez dira makalak. Egungo gizarteak eskatzen duen goi mailako hizkuntz gaitasun eleaniztuna garatzen lagundu beharko du, betiere euskararen biziberritze-prozesuari lagunduz eta euskal kulturaren sustapena bermatuz. Jarraian, erronka horietako batzuk aipatuko ditugu.

1.3.1. Hezkuntza eredu berriaren hizkuntz eskakizunei erantzutea

Ezagutzaren eta globalizazioaren gizarteak dituen eskakizunei erantzuteko hezkuntza eredu berri bat garatu beharra dago, pertsona bere dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez trebatuko duena. Hezkuntza eredu berri horren xedea izango da pertsonak gizartean partaidetza aktiboa edukitzeko eta bizitzako beharren aurrean era eraginkorrean ekiteko beharrezkoak diren konpetentziak gara ditzaten lortzea.

Azken batean, pertsona konpetenteak (hau da, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez jarduteko gai diren pertsonak) heztea izango da helburua, eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era egokian hautatu eta erabili beharko ditu eskolak.

konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi berriaren ondorioz, hizkuntzek inoiz baino garrantzi handiagoa dute eskolan, hizkuntza baita, azken batean, giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi berriaren ondorioz, hizkuntzek inoiz baino garrantzi handiagoa dute eskolan, hizkuntza baita, azken batean, giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Hezkuntzak, beraz, eus-

kal ikasleen oraingo zein etorkizuneko egoera pertsonalari, akademikoari eta profesionalari begira aurreikus daitezkeen hizkuntz premiei erantzun beharko die.

1.3.2. Eskolako komunikazio-inguruaren kalitatea hobetzea

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren baitan, hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzaren xedea honakoa izango dugu: *ikasleen komunikazio-konpetentziak garatzea, hizkuntza erabil dezaten bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa.*

Horrenbestez, hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzak eskolako eremu guztiek partekatutako prozesua izan beharko du; izan ere, eskolagiroan (gela barruan, gelatik kanpo ...) sortzen den komunikazio-egoera bakoitzak bere ekarpena egingo dio ikaslearen komunikazio-konpetentzia orokorrari eta egoera guztietan eragin beharko dugu hura garatu ahal izateko. Bestela esanda, eremu horietako bakoitzean sortzen den komunikazio-egoera bakoitzak bere ezaugarri linguistikoak izango ditu: batzuk formalak izango dira eta hizkuntza erregistro formalaren erabilera eskatuko dute; beste batzuk, berriz, ez-formalak izango dira eta erregistro ez-formalen erabilera eskatuko dute.

eskolaren erronka izango da bere inguruan gertatzen diren komunikazio-egoerak identifikatzea, eta horiek hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzarako baliatu ahal izateko bidea egitea

Hala izanik, eskolaren erronka izango da bere inguruan gertatzen diren komunikazio-egoerak identifikatzea, eta horiek hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzarako baliatu ahal izateko bidea egitea. Bide horretan garrantzi handikoak izango dira hainbat urrats; besteak beste, irakaskuntzarako metodologiak eguneratzea eta gelaz kanpoko ekintzak hizkuntzaren ikuspegitik berraztertzea. Horrela, ikasleek ahalik eta egoera gehienetan aritzeko komunikazio-konpetentzia garatu ahal izango dute.

1.3.3. Euskararen biziberritzea

Dagoeneko aipatu dugun moduan, euskal hezkuntzaren ezaugarrietako bat da hizkuntza gutxituaren biziberritzearen eragile izatea. Hezkuntzak bi funtzio nagusi bete izan ditu euskararen biziberritzean, azken berrogeita hamar urteotako ibilbidean ondo erakutsi duen gisan: batetik, funtzio kontserbatzailea, hau da, gizarte jakin batek metatu duen kultur ondare hautatua belaunaldi batetik bestera igarotzen ahalegintzea; bestetik, funtzio berritzailea, hots, gizarteak dituen aldaketa beharrei eta eskaera berriei erantzuteko trebatzea.

Eskolak funtzio horiek benetan bete behar baditu, ordea, eta hizkuntzaren eragile birsortzaile sozial gisan eragin behar badu, ezin du bere eginkizuna hizkuntzaren irakaspen akademikora mugatu:

> "In all cases (with the possible exception of academic linguists) languages are not their own rewards. If they remain functionally locked away in the schools, they may be learned (youngsters have an amazing ability and capacity to learn "useless" matters which they never need again, once their schooling is over), but they will not accomplish the wonderful goals of communication with neighbours far and near, improvement of commerce and diplomacy, attainment of social mobility, and familiarity with the brightest stars of world literature –and much, much less yet will they accomplish RLS –unless they are linked to "real life" stages before, during and after school. The RLS school must keep reality firmly in mind. Schools tend to be compartmentalising institutions … it is very easy for them to become sheltered workshops, a world apart and unto themselves. When that happens, they effectively cease to contribute to the RLS process" (Fishman, 2001, 471. or.)

Fishmanen hitzei jarraiki, gizartean txertatutako eskola, hezkuntza-eredu berriari begira jarritako eskola beharko dugu, eremu akademiko hutsaz gain beste eragin esparru batzuk ere bere gain hartuko dituena. J.I. Etxezarretak honela adierazten du:

> "Eskola pertsonen gizarteratze, komunikazio, harreman eta elkarbizitzaren gune funtsezkoenetarikoa da, ume eta gazteei dagokienean, familiek eskatzen eta ematen zaizkien zerbitzuei dagokienean, guraso eta irakasleen arteko harremanei dagokienean, ikastola edo eskola eta ingurune sozial eta instituzionalaren arteko interakzioari dagokionean gurasoen euskalduntze, guraso prestakuntza eta eskola kudeatzaile formazioari dagokionean, herri arteko ikastola edo eskola arteko sareari dagokionean … osagai hauek guztiak eskolaren jarduna dira, pertsonen bizitza akademikora mugatzen ez direnak, alegia. Euskararen biziberritzearen ardatz den erabilera sustatu nahi duenak horiek guztiak kontua hartu eta badu zer egina, alajaina" (Etxezarreta, 2008, 91. or.).

euskararen biziberritze-prozesuan eragile izan nahi duen eskolak, beraz, ondo ustiatu beharko ditu berezko komunikazio-testuinguru zabalak eta hezkuntza-komunitate osoak eskainitako aukerak. Horrekin batera, harreman estuak eta eraginkorrak izan beharko ditu inguruan duen gizartearekin

Euskararen biziberritze-prozesuan eragile izan nahi duen eskolak, beraz, ondo ustiatu beharko ditu berezko komunikazio-testuinguru zabalak eta hezkuntza-komunitate osoak eskainitako aukerak. Horrekin batera, harreman estuak eta eraginkorrak izan beharko ditu inguruan duen gizartearekin, eta ikuspegi sistemiko zabal hori era sistematikoan eta koherentean bideratzeko plangintzak garatu beharko dira.

1.3.4 Euskal kulturaren biziberritzea

Hizkuntzak, ordea, ez dira pertsonen artean ideiak, nahiak eta esperientziak trukatzeko bitarteko soilak. Horrez gain, hizkuntza da kultura batean errotutako produktua eta kultura horren transmisorea eta, beraz, komunitatearen identitatearen euskarri gertatzen da. Gizabanakook gure hizkuntzaren bidez ikusten dugu inguruko mundua; hizkuntza baten jabe izatea hizkuntza horrek bideratutako kultura barneratzea ere bada.

Euskara hartzen dugu gure kultur ondarearen oinarrizko adierazle eta sortzailetzat; hizkuntzaren jabe izateak euskaldun izatearen kontzientzia bideratzen du. Era berean, hizkuntzarekiko –euskararekiko- atxikimendua errotuko da kultur esparru guztietan garatutako jardueretan, kulturak eta hizkuntzak banaezineko sistema osatzen baitute. Horrenbestez, euskararen biziberritzeak euskal kulturaren biziberritzearekin uztartuta gertatu beharko du ezinbestean, euskal kultura euskaldunok errealitatea ulertzeko dugun modu gisan ulertuta (Garagorri, 2004).

Bestalde, beste hizkuntza batzuk eskuratzen diren heinean, kultur aniztasunaren eta kulturartekotasunaren oinarriak jartzen dira, eta elkarbizitzarako ezinbestekoa den elkar ulertzeari eta errespetuari bide ematen zaie.

euskal hezkuntzak, beraz, bi eginkizun horiek uztartu beharko ditu: euskara helduleku duen euskal kulturaren transmisioa eta biziberritzea ziurtatu beharko du lehenik, eta, horrekin batera, egungo gizarteak eskatzen dituen kultur ezagutza unibertsalen lanketa ziurtatu beharko du

Euskal hezkuntzak, beraz, bi eginkizun horiek uztartu beharko ditu: euskara helduleku duen euskal kulturaren transmisioa eta biziberritzea ziurtatu beharko du lehenik, eta, horrekin batera, egungo gizarteak eskatzen dituen kultur ezagutza unibertsalen lanketa ziurtatu beharko du, aipaturiko elkarbizitza hori erdiesteko bideak urratuz.

1.3.5. Kultur aniztasunari eta hizkuntz aniztasunari erantzutea

Lehenago aipatu dugun moduan, globalizazioaren ondorioz gero eta errazagoa da pertsonen mugikortasuna, eta gero eta handiagoa, beraz, kultur aniztasuna nahiz eleaniztasuna kudeatzeko beharra. Batetik, euskal herritarrok atzerrian mugitzeko gaitasuna garatu beharko dugu; bestetik, gai izan beharko dugu atzerriko kulturak eta hizkuntzak gure artean kokatzeko. Azken horri dagokionez, eta lehenago

hezkuntzak ikasle horien integraziorako bideak ezarri beharko ditu. Ikasle horiek euskal gizartean bizi ahal izateko behar duten hizkuntz nahiz kultur gaitasuna garatzen lagundu beharko du eta euskararen nahiz euskal kulturaren sustapenean aurrera egingo badugu, ezinbestekoa izango zaigu ikasle horiek euskararen eta euskal kulturaren aldera lerratzea, beti ere euren jatorrizko kultura eta hizkuntza baztertu edo gutxietsi gabe

ikusi dugun moduan, jatorri anitzetako etorkinen kopurua gora doa gure gizartean, eta aniztasun hori nabaria da gela barruan ere.

Hezkuntzak, beraz, ikasle horien integraziorako bideak ezarri beharko ditu. Alde batetik, ikasle horiek euskal gizartean bizi ahal izateko behar duten hizkuntz nahiz kultur gaitasuna garatzen lagundu beharko du; bestalde, eta bereziki euskararen nahiz euskal kulturaren sustapenean aurrera egingo badugu, ezinbestekoa izango zaigu ikasle horiek euskararen eta euskal kulturaren aldera lerratzea, beti ere euren jatorrizko kultura eta hizkuntza baztertu edo gutxietsi gabe.

1.4 Ondorioak: Hizkuntz Proiektuaren beharra

Orokorrean, beraz, hizkuntzaren trataera dela-eta euskal eskolak bere gain dituen erronkak handiak dira: XXI. mendeko gizarte berriari erantzunez euskarari eta euskal kulturari erantzun osoa ematea, inguruko beste bi edo hiru hizkuntza indartsuen irakaskuntza duina ziurtatzea, eta, azkenik, jatorri ezberdineko ikasleen kultur eta hizkuntz ezaugarriei trataera egokia ematea.

Erronka horiei aurre egiteko, eskolak bere lan-esparruak eta funtzioak berrikusi eta marko berri bat eraiki beharko du. Marko horrek eskola-bizitzako komunikazio-esparru guztiak hartu beharko ditu, bai eta esparru horietako eragile guztien inplikazioa eta lankidetza bultzatu ere. Besteak beste, honako langai hauei erantzun beharko die markoak:

- Egoera soziolinguistikoa eta hizkuntzekiko helburuak kontuan hartuz, eskolako hizkuntza guztien plangintza eraginkorra egin beharko da; era berean, haien ikaskuntza-irakaskuntzaren lanketa bateratua eta koherentea ziurtatu beharko da. Horretarako, eskolaren barruan hizkuntza bakoitzak izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definitu beharko dira; ondorioz, bakoitzari eskainiko zaion denbora eta irakaste-bideak zehaztu beharko dira.

- Eskolaren baitako komunikazio-egoera askotarikoak identifikatuz (eremu pedagogikoan nahiz instituzionalean), haien ezaugarriak aztertuz, eta hezkuntza komunitate osoaren partaidetza bilatuz, estrategia zehatzak definitu beharko dira egoera horiek ustiatzeko.

- Harreman estuak eta eraginkorrak garatu beharko ditu inguruan duen gizartearekin, horretarako, plangintza sistematiko eta koherenteak zehaztuz.

erronka horiei aurre egiteko, eskolak bere lan-esparruak eta funtzioak berrikusi eta marko berri bat eraiki beharko du. Marko horrek eskola-bizitzako komunikazio-esparru guztiak hartu beharko ditu, bai eta esparru horietako eragile guztien inplikazioa eta lankidetza bultzatu ere

Jarraian ikusiko dugunez, **Hizkuntz Proiektua** izango da eskolak ezinbestean beharrezkoa duen marko zabal eta alde askotariko hori. Hizkuntz Proiektuaren definizioa eta ezaugarriak deskribatu aurretik, ordea, Ikastolek hizkuntzekiko duten ikuspegia nahiz helburuak aipatuko ditugu; izan ere, horiek baldintzatuko dituzte Hizkuntza Proiektuaren baitan landuko diren eremuak eta abian jarriko diren ekimenak.

2 ikastolen hizkuntzekiko ikuspegia eta helburuak

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, egungo gizarteak dituen hizkuntz beharrei ikastola-ereduaren berezko ezaugarrietatik abiatuta erantzun beharko diegu; horren baitan sortuko zaizkigu eginbeharrak eta lan hori aurrera eramateko baldintzak.

egungo gizarteak dituen hizkuntz beharrei ikastola-ereduaren berezko ezaugarrietatik abiatuta erantzun beharko diegu; horren baitan sortuko zaizkigu eginbeharrak eta lan hori aurrera eramateko baldintzak

2.1. Ikastolen izaeraren ezaugarriak

Lan honek ikastolen funtsezko definizioan du bere ardatza; hau da, Ikastolek *kalitatezko hezkuntza euskalduntzat* definitzen dute beren burua. Definizio horrek hizkuntzen trataerari ematen dion leku nagusia ikastola-ereduaren honako ezaugarri hauetan zehazten da, ikastolen Hizkuntz Proiektu komunaren ildoak markatuz[12]:

[12] Ikus Ikastolen irudi katalogoa: *Ikastola: imajina ezazu nor garen,* EHIK, 2007.

- **Euskalduna – euskara eta euskal kulturaren eragile.** Ikastolen mugimendua euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, euskararen erabilera eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen; hori du ezaugarritzat, betiere beste kultura batzuei irekita, ukipeneko auzo-kulturei batez ere, kulturarteko hezkuntza-planteamenduak eginez eta gauzatuz.

- **Eleaniztasuna euskara ardatz dela.** XXI. mendeko gizartearen hizkuntz beharrei erantzunez, honako bi helburuon lorpena bideratzea da ikastolaren hizkuntz plangintzaren[13] xedea: batetik, euskarak bere hizkuntz esparruan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, pertsona euskaldunak beste hizkuntza batzuk ezagutzeko eta erabiltzeko gai izatea.

- **Gizartean integratua.** Ikastolak herri-ekimenean oinarritzen diren eskolak dira, eta herri-ekimenetik sortutako antolaketa eta kudeaketa eredua daukate. Beraz, gizarte horren beharretara irekiak daude eta, aldi berean, haren eraldatzaileak ere badira.

- **Hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza aktiboa.** Ikastolak egina du hautabide demokratikoa. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiek (gurasoek, irakasleek, hezitzaileek, begiraleek, bestelako langileek, ikasleek) hartu behar dute parte haren gestioan, eta aktiboki lagundu haren funtzionamenduan.

- **Berritzailea, I + G.** Etengabe aldatzen ari den munduan modu jarraian ikasteko eta berritzeko gai izango den egituraren aukera egiten du ikastolak; era berean, aldaketarako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatutako hezkuntza-sare modura jardungo du.

[13] Hizkuntz Plangintza: hezkuntza-erakundearen jarduera-eremu askotarikoetan hizkuntza bakoitzaren rola zehazten duten erabakien eta planteamenduen bilduma.

2.2. Ondorioztatzen diren hizkuntzekiko helburuak

2.2.1. Helburu orokorrak

Halako eskola-eredu batek bere jardunean hizkuntzen trataerari ematen dion lehentasuna ikusirik, egin beharreko lana gidatuko duten hizkuntzekiko helburu orokor hauek ondorioztatzen ditugu:

1. Ikastolak **formazio euskalduna eman** nahi die ikasleei, euskara ongi menderatuz, eta euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta indartzearekin konpromisoa hartuz. Gauzak horrela, Ikastolak euskal hiztunak hezi nahi ditu, etengabe eraginez euskararekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.

2. Ikastolak, Hezkuntzaren eta Hizkuntz Proiektuaren ardatza euskara duela, pertsona **euskaldun eleaniztunak** hezi nahi ditu, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioaz eta ukipen-hizkuntzez gain (gaztelania eta frantsesa), nazioarteko harremanetan nagusi den hizkuntza maila onean erabiltzea lortu nahi du; era berean, Estatuko beste hizkuntza ofizialean komunikatzeko oinarrizko maila garatzea du helburu[14].

3. Halaber, Ikastolak **euskaraz** gauzatu nahi du bere **hezkuntza-komunitatearen barne-bizitza;** euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu mota guztietako harremanetan eta horretarako sortutako bitartekoetan.

4. Euskararen biziberritzea indartzeari dagokionez, Ikastolak **euskararen normalizazio-prozesuan eragile** izan nahi du txertatuta dagoen komunitatean. Hartara, bestelako gizarte eragileekin zein askotariko instituzioekin lankidetzan jarduteko borondatea du.

[14] "Ikastolak. Orain eta Gero" dokumentuan (EHIK, 2008) aholkatutako proposamena.

2.2.2. Hizkuntzekiko erreferentziazko lorpen-mailak[15]

Ikastolan hezitako "euskaldun eleaniztunek" haien heziketa-prozesuaren bukaeran hizkuntzak maila jakin batean menperatzea lortu nahi da. Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran, legez hezkuntza-sistemak ezartzen dituen mailez gain, *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumean* (2006) finkatu dira hizkuntzekiko lortu beharreko konpetentzia-mailak, betiere Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2005) proposatzen duen mailaketa aintzat hartuz:

3. irudia. Hizkuntzen lorpen-mailak



- Euskara zein beste hizkuntza ofizialerako (gaztelania/frantsesa) erabiltzaile independentearen B2 maila lortzea da helburu; honela deskribatzen du Europako Erreferentzia Markoak (op.cit.):

  "Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoenak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hiztunekin mintza daiteke, jariotasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrei buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez".

[15] "Ikastolak. Orain eta Gero"dokumentuan (EHIK, 2008) aholkatutako proposamena.

derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran, legez hezkuntza-sistemak ezartzen dituen mailez gain, *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumean* (2006) finkatu dira hizkuntzekiko lortu beharreko konpetentzia-mailak, beti ere Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2005) proposatzen duen mailaketa aintzat hartuz

- Ingeleserako, nazioarteko "lingua franca" izaerari erantzunez, erabiltzaile independentearen B1 maila lortu nahi da:

  "Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko".

- Mugaz bestaldeko euskal komunitatean, beste hizkuntzarako (frantsesa/gaztelania) oinarrizko erabiltzailearen A2 maila lortu nahi da:

  "Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere".

Eta horri gehitu behar zaio zenbait ikastolaren praktikek erakutsi digutena Derrigorrezko Hezkuntzaren ondorengo mailei begira. DBHO eta Lanbide Heziketako hizkuntz helburuak zehaztuta dituzte maila horietan ari diren hainbat ikastolak; hain zuzen, Europako Markoaren C1 mailaren pareko gaitasuna eskuratua izatea euskaraz zein gaztelania/frantsesez, eta B2 mailaren pareko gaitasuna hirugarren hizkuntzan.

3 Hizkuntz Proiektua: definizioa eta ezaugarriak

3.1. Hizkuntz Proiektuaren definizioa

Aipaturiko helburu horiei erantzuteko, hizkuntzekiko lan-tresna integrala behar da, Ikastolaren komunikazio-testuinguru osoan (ikaskuntza-irakaskuntzan, eskola-komunitatearen harremanetan, eta Ikastola txertatuta dagoen gizarte hurbilekiko harremanetan) eragingo duena. Lan-tresna horren funtzioak hauek dira: a) ikastolako eremu pedagogikoetan zein instituzionaletan gertatzen diren askotariko hizkuntz ekintzak aztertzea, eta b) sumatutako beharrei zentzuz erantzun ahal izateko, era sistematikoan eta bateratuan bideratzea hezkuntza-komunitate osoaren elkarlana, irizpide komunetan oinarrituta. Horretarako sortu da Ikastolaren Hizkuntz Proiektua, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa.

Ikastolako komunikazio-eremu bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu; ezaugarri horiei erantzunez, berariazko hizkuntz erabilerak sortzen dira eremu bakoitzean, oso ezaugarri diferenteak dituztenak; hala nola, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko joan-etorriak (idatzizkoak zein ahozkoak), gelaz kanpoko harreman informalak, ikastolako gobernu- eta funtzionamendu-organoen lan-egoerak, herri-erakundeekiko harreman administratiboak, eta abar.

ikastolaren Hizkuntz Proiektua, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion markoa da

Askotariko hizkuntz erabilera horiek errepertorio linguistiko zabal eta desberdin baten erabilera sortu eta eskatu ohi dute. Hizkuntza menderatzea, hain zuzen ere, pertsona batek bizi duen egoera horietako bakoitzean era eraginkorrean jardun ahal izateko hizkuntz errepertorio horren jabe izatea da.

Horrenbestez, asmoa da hezkuntza-komunitateko partaideen hizkuntz errepertorioaren kantitatean eta dibertsitatean eragitea; horrela, hizkuntza jakin batean aritzeko aukera gero eta egoera gehiagotan izanik, komunikatzeko konpetentzia garatuko dute; kalitatean ere eragingo dute, egoera horietako bakoitzean hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzeko gai izan daitezen, gero eta modu eraginkorragoan.

Hizkuntza bat erabiltzeko motibazioa berez handituko da, hizkuntzaren baliagarritasuna bermatzerakoan eta hura erabiltzerakoan erosotasuna garatzen den neurrian. Hala eta guztiz ere, hizkuntza gutxituen kasuan (euskararen kasuan, hain zuzen ere) hizkuntza hori erabiltzeak hautu kontzientea egitea eskatzen duenez, beharrezkoa izango da motibazioan berariaz eragitea; ondorioz, kontuan hartu beharreko esparrua da gure Hizkuntz Proiektuan.

Izan ere, hizkuntzaren garapena aipatutako elementu horietan oinarri harturik gertatzen da; ondoko grafikoan ikus daiteke irudikatuta (John H.A.L. de Jong, 2004; egokitua):

4. irudia. Hizkuntz garapenaren osagaiak

Pertsonek hizkuntz errepertorio ahalik eta osatuena gara dezaten, gizarte-testuinguru jakin horietako bakoitzean komunikatzeko aukerak izan beharko dituzte ezinbestean; hori bermatzea izango da (eskolari dagokion neurrian), esan bezala, Hizkuntz Proiektuaren funtzio nagusi bat. Horrekin batera, komunikazio-egoera horietan sortutako hizkuntz erabilera hobetzen eta garatzen joan dadin, bakoitzean berariaz eragin beharko da plangintza zehatz eta fokalizatu baten bitartez. Beraz, plangintza horren osagaiak izango dira, besteak beste, hizkuntz ekintza horien ezaugarrien azterketa eta deskripzioa, horien hobekuntzan eragiteko berariazko lan-metodologia, bakoitzean diharduten eragileen perfila eta prestakuntza ildoak; eta Hizkuntz Proiektuaren muina osatuko dute.

Horrenbestean, marko integrala da Hizkuntz Proiektua; ikastolaren barruan hizkuntzekin zerikusia duten esparru guztiak biltzen ditu, eta

ikastolak inguruarekin dituen harremanetan sor daitezkeen esparruei ere erantzuten die. Hortaz, bete-betean hartzen du bere baitan Ikastetxearen Hizkuntza Normalizazio Plana, eta hizkuntza gutxituaren sustapena da zeregin nagusietako bat; baina hori baino harago doa Hizkuntz Proiektua, ikastolan lantzen diren hizkuntza guztien trataera bateratua ere hartuko baitu bere gain. Hala, euskara ardatz duen eleaniztasunaren garapena era egokian bidera dadin ziurtatzeko, besteak beste, hauek izango dira langai nagusiak: hizkuntz plangintza eragingarria finkatzea ikastolan, hizkuntza bakoitzaren funtzioak eta espazioa zehaztuz; hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzan erabilitako ikuspegi eta metodologiak bateratzea eta hizkuntzen erabilera instrumentalaren eraginkortasuna curriculum osoan bermatzea.

ikastolarentzat proiektu estrategikoa da, dudarik gabe, Hizkuntz Proiektua: ikastolako eremu guztietan eragiten du eta komunitate osoaren ardura eta parte-hartzea eskatzen du

Integrala izatearekin batera, ikastolarentzat proiektu estrategikoa da, dudarik gabe, Hizkuntz Proiektua: ikastolako eremu guztietan eragiten du eta komunitate osoaren ardura eta parte-hartzea eskatzen du. Hala izanik, ikastolako eragile guztiekin partekatu eta adostu ondoren, ikastolaren gobernu-organoek onartu eta bultzatu beharreko dokumentua da, eta zuzendaritzaren ezinbesteko inplikazioa eskatzen du.

Hizkuntz Proiektuaren markoa eskolako komunikazio-eremuen baitan garatu beharko da; izan ere, eremu horietako bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu eta, horiei erantzunez, berariazko hizkuntz erabilerak sortzen dira bakoitzean

3.2. Hizkuntz Proiektuaren heldulekuak: hizkuntzekiko eskuhartze eremuak

Aurreko arrazoiketari jarraituz, Hizkuntz Proiektuaren markoa ezingo litzateke hizkuntz erabiltzaileen edo subjektuen baitan

antolatu, ikastetxeko hizkuntzen normalizazio planetan hainbatetan gertatu ohi den bezala; eskolako komunikazio-eremuen baitan garatu beharko da; izan ere, eremu horietako bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu eta, horiei erantzunez, berariazko hizkuntz erabilerak sortzen dira bakoitzean. Horrenbestez, ezinbestekoa zaigu ikastolako komunikazio-testuingurua zehatz-mehatz aztertzea eta hizkuntzen garapenean eragiten duten eremu guztiak, hots, *hizkuntzekiko esku-hartze eremuak* identifikatzea. Identifikazio horrek aukera emango digu hizkuntzen trataera ikuspegi sistemiko batez bideratu ahal izateko, eta esparru eta eragile askotarikoen arteko elkarreragina eta koherentzia ziurtatzeko.

Honako hau litzateke ikastolaren hizkuntzekiko esku-hartze eremuen sailkapen nagusia, ondoren zehazki deskribatuko dena.



5. irudia. Hizkuntzekiko esku-hartze eremuak

Ikastola bere osotasunean hartuz, bi esku-hartze eremu nagusi bereiz daitezke:

- **Eremu pedagogikoa:** atal honen barruan, hizkuntzaren garapenean eragina duten irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu guztiak biltzen dira eta, horietaz gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere jasotzen dira.
- **Eremu instituzionala:** atal honen barruan aurkezten diren alderdiak ikastolaren eraketarekin eta gizarte-harremanekin lotuta daude, eta ikastolan nahiz ikastolatik kanpo hizkuntza gutxituaren erabilera sustatzeko eta babesteko helburua dute nagusiki.

3.2.1. Eremu pedagogikoa

Halaber, eremu pedagogikoa bi azpi-eremutan bana daiteke: **gela barrukoa** eta **gelaz kanpokoa**.

Gela barruko eremuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jasotzen ditu eta bi azpi-eremu biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, *kudeaketa pedagogikoa*ren atala, hizkuntzen curriculum bateratua helburu duten erabakiak eta gainerako arloetako hizkuntza beharrei erantzuten diotenak biltzen dituena.

Beste aldetik, arlo guztiak besarkatzen dituen *interakzio didaktikoa*ren esparruari ere begiratuko dio eremu honek; gela barruko harreman-sareen hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bideratutako komunikazioa ahalik eta aberatsena eta eraginkorrena egitea du helburu esparru horrek.

Horrekin batera, lan-ildo horiek aurrera eramateko irakasleen beharrezko *prestakuntza* eta *baliabideak* jasotzen dira hemen; hala nola, hizkuntzaren hobekuntza, metodologia eta didaktika, eta hizkuntzekiko jarrerak.

Gelaz kanpoko eremuak irakasle, hezitzaile nahiz begiraleekin bideratzen den gelaz kanpoko jarduna du helduleku. Ikastolaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz eta hizkuntza bakoitzean ezarritako azken helburuen arabera beste hizkuntza batzuk erabil ba-

daitezke ere, eremu hori hizkuntza gutxituaren, euskararen, sustapenera begira legoke bereziki.

Eremu horretan ikaslearen bizitzaren esparru ez-formaletan eragin nahi da, eta bitartekoak jarri nahi dira esparru horietan ohiko komunikazio-hizkuntza euskara -kalitatezko euskara- izan dadin. Hortaz, gelaz kanpoko egoeretan bideratutako komunikazioaren kalitatea aztertuko da, hura aberasteko metodologia eta estrategiak landuko dira, eta horiek aurrera eramateko beharrezko hezitzaileen prestakuntza zein baliabideak zehaztuko dira.

3.2.2. Eremu instituzionala

Eremu instituzionala ikastolako hizkuntz politikari dagokiona da. Bi azpi-eremu biltzen ditu honek ere: **eraketa eta barne-komunikazioa** eta **kanpo-harremanak.**

Eraketa eta barne-komunikazioaren atalean, ikastolaren testuingurua ahalik eta euskaldunena egiteko beharrezkoa den hizkuntz kudeaketari dagozkion erabaki nagusiak biltzen dira. Hartara, hizkuntz paisaia zaintzeko irizpideak ezarri eta haien jarraipena ziurtatzeaz gain, estrategiak zehaztuko dira eremu horri dagokion hezkuntza-komunitatearen harreman-sareetan euskararen erabilera eragozten duten etenak identifikatzeko eta gainditzeko. Harreman-sare horiek bitan banatu dira, *ikastetxea* eta *familia*, bakoitzean berariaz eragin ahal izateko.

Kanpo-harremanen atalean jasotzen dira ikastolak euskara sustatzeko inguruko gizartearekin elkarlanean sortu beharreko loturak eta bultzatu beharreko konpromisoak.

Honako taula honetan egin da aipaturiko eremuen zehaztapena:

HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK

HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Hizkuntz Proiektua eta Hizkuntz Plangintza

EREMU PEDAGOGIKOA

GELA BARRUKOA

KUDEAKETA PEDAGOGIKOA

1 HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA

- Hizkuntza arloaren kudeaketa
- Helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak

2 BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK

- Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak (hizkuntzen trataera instrumentala).

3. PROIEKTU OSAGARRIAK

- Zehar-lerroen hizkuntz trataera
- Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak

4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

- Hizkuntz hobekuntza
- Arloko metodologia eta didaktika
- Hizkuntzekiko jarrerak

5. BALIABIDEAK

- Arlo bakoitzeko ikasmaterialak
- Espazioen banaketa eta hizkuntz trataera
- Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza

INTERAKZIO DIDAKTIKOA

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- Arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza
- Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera
- Ikasleen arteko hizkuntz erabilera

2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA

- Komunikazio-egoera esanguratsuak
- Taldekatze motak eta irizpideak

GELAZ KANPOKOA

(jolasaldiak, kirol ekintzak, jantokia, garraioa, irteerak eta abar)

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- Hezitzaileen hizkuntz erabilera
- Hezitzaile-ikasle arteko hizkuntz erabilera
- Ikasleen arteko hizkuntz erabilera

2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA

- Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak

3. HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA

- Hizkuntz hobekuntza
- Jardueraren metodologia
- Hizkuntzekiko jarrerak

4. BALIABIDEAK

- Gune eta zerbitzuetako baliabideen hizkuntz trataera

EREMU INSTITUZIONALA

ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA

IKASTETXEA

1.HIZKUNTZ ERABILERA

- Gobernu, administrazio eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta trataera
- Langileen hizkuntz profila
- Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak

2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

- Hizkuntz hobekuntza
- Hizkuntzekiko jarrerak

3. BALIABIDEAK

- Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz trataera
- IKT euskarrien hizkuntz trataera.
- Ikastolako espazioen hizkuntz trataera

FAMILIA

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- Familien hizkuntz tipologia
- Familia barruko hizkuntz erabilera
- Ikastolen eta gurasoen arteko harremanak

2. GURASOEN PRESTAKUNTZA

- Hizkuntz hobekuntza
- Hizkuntzekiko jarrerak

3. BALIABIDEAK

- Komunikazio baliabideak: aldizkariak eta abar

KANPO-HARREMANAK

(beste ikastetxeak, gizarte-elkarteak, udalak eta herri-erakundeak, hornitzaileak)

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- Harremanetarako hizkuntz irizpideak.

2. ERABILERA EREMUEN SUSTAPENA

- Harreman-sareak indartzea
- Euskal kultur ekintzak bultzatzea
- Euskarazko ekintzak bultzatzea.

Aipatu berri ditugun eremu eta azpi-eremu horietan guztietan esku hartzeko beharra legoke; izan ere, lagungarriak dira ikasleentzat, eguneroko bizitzan hizkuntza(k) tresna baliogarritzat erabiltzeko behar duten komunikazio-konpetentzia garatzeko.

Hizkuntza gutxituan ardaztutako eskolarentzat funtsezkoak dira curriculumaren kanpoko esparruak eta esparru instituzionalak, esparru horiek eragin zuzena baitute hizkuntza gutxituaren erabilera bermatzeko gizarte-espazioak (gelaz kanpo) sortzerakoan eta sustatzerakoan.

Curriculumaren esparruari dagokionez, hizkuntza gutxituan irakasten duten eskolek irakaskuntza-metodologia orokorren hautua egiterakoan, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak eskainitako komunikazio-testuingurua hobekien ustiatuko duten metodologiak lehenetsi beharko lituzkete.

Horrez gain, beharrezkoa izango da komunikazioaren eta hizkuntzaren erabilera (ikasgelan eta eskola-giroan, orokorrean) sustatzen duten hizkuntza irakasteko metodologiak erabiltzea; izan ere, gehienetan gizarte-inguruneak ez du eskaintzen ikasleek hizkuntz garapenerako behar dituzten komunikazio-jardueren aukera nahikoa.

hizkuntza gutxituan ardaztutako eskolarentzat funtsezkoak dira curriculumaren kanpoko esparruak eta esparru instituzionalak, esparru horiek eragin zuzena baitute hizkuntza gutxituaren erabilera bermatzeko gizarte-espazioak (gelaz kanpo) sortzerakoan eta sustatzerakoan

curriculumaren esparruari dagokionez, hizkuntza gutxituan irakasten duten eskolek irakaskuntza-metodologia orokorren hautua egiterakoan, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak eskainitako komunikazio-testuingurua hobekien ustiatuko duten metodologiak lehenetsi beharko lituzkete

Hizkuntzekiko esku-hartze eremuen deskripzio horrek aukera ematen digu ikastolen sareak urteen poderioz diseinatutako eta abian jarritako proiektu bakoitza dagokion esku-hartze eremuan kokatzeko. Halaber, aukera ematen du Hizkuntz Proiektuaren garapenean egoera linguistikoaren diagnosi osoa, hizkuntz plangintza orekatua, koordinatua eta koherentea egiteko; bai eta plangintza horren eraginaren jarraipena egiteko eta eragina ebaluatzeko ere. Sailkapen horri jarraituz diseinatuko eta garatuko dute bai ikastola taldeak bai ikastola bakoitzak bere egoeraren diagnosia eta horretatik ondorioztatzen den lan-plangintza.

3.3. Hizkuntz Proiektuaren ezaugarriak

Halako marko integral batek eskatzen dituen baldintzak bete daitezen, ezaugarri hauek bete beharko ditu Hizkuntz Proiektuak:

- **Koherentzia.** Ikastola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko koherentzia izango du. Hezkuntza Proiektuak ikastolaren hezkuntzarekiko eta hizkuntzekiko xedea eta ikuspegia jasotzen dituenez gero, Hizkuntz Proiektuan hartuko diren erabaki guztiak baldintzatzen ditu. Hezkuntza Proiektua izango da, beraz, edozein Hizkuntz Proiekturen iturburu.

- **Egokitasuna.** Norberaren testuinguru sozio-ekonomiko-linguistiko eta kulturalari egokituriko hizkuntz heziketaren ibilbidea garatuko du ikastola bakoitzaren Hizkuntz Proiektuak.

- **Legezkotasuna.** Ikastola kokaturik dagoen lurralde administratiboari (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) dagokion Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko lege-markoa aintzat hartuko du Hizkuntz Proiektuak, betiere ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren koherentzia zainduz.

- **Integrala eta parte-hartzailea.** Hizkuntz Proiektuak eragina du ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitate osoan; komunitate hori osatzen dutenen partaidetzaren eta inplikazioaren arabe-

ra gauzatuko dira bertan formulatutako irizpideak. Bertan jasotako erabakiek hezkuntza-komunitateko kide guztiak konprometituko dituzte. Gainera, hizkuntz eragile dinamikoak izan behar dute ikastolako bizitzan Hizkuntz Proiektuan jasotzen diren printzipioek eta horietatik eratorritako ekimenek.

3.4. Hizkuntz Proiektuaren kokapena

Ikastolaren ezaugarri bereizgarriak adostu eta **Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan (IHP)** finkatzen dira honako asmo honekin: norberaren errealitatearI eta kokaturik dagoen testuinguru sozio-ekonomiko-linguistikoari eta kulturalari egokituriko heziketa-jarduera modu koherentean islatzea. Horrez gain, bertan jasoko dira hezkuntza-komunitateko partaide guztiek bere egindako ezaugarriak, heziketaren helburu komunak, oinarri pedagogikoak, antolaketa-egituraren ardatz nagusiak, eta abar.

Hizkuntz Proiektuaren zeregina izango da, hain zuzen ere, Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen trataerari buruz finkatzen diren printzipioak garatzea; horretarako, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak bilduko dira eta haien trataerari koherentzia emango zaio.

Hizkuntz Proiektuaren zeregina izango da, hain zuzen ere, Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen trataerari buruz finkatzen diren printzipioak garatzea

Halaber, Hizkuntz Proiektuan bildutako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastolako Curriculum Proiektuan, bertan jasotzen baitira ikaskuntza-irakaskuntza bideratzeko irizpideak. Izan ere, hizkuntzei buruzko alderdiek garrantzi handia dute Curriculum Proiektuan, batetik hizkuntzak eduki garrantzitsua direlako, eta bestetik, are gehiago, hizkuntza ikaskuntza-irakaskuntza ororen tresna nagusia delako.

Aipaturiko hiru proiektu nagusiok, hortaz, etengabeko elkarreraginean arituko dira, bata bestea elikatzen, grafiko honetan irudikatzen den moduan:

6. irudia. Hizkuntz Proiektuaren kokapena



Horrekin batera, Hizkuntz Proiektuak ikastolako eraketa eta kudeaketa mailako beste hainbat dokumentutan ere eragingo du, haietan gauzatuko baitira Hizkuntz Proiektuan zehaztutako hizkuntzen tratamenduarekiko ildoak. Dokumentu horien artean daude: ikastolaren barne-araudia, urteko plangintza, aurrekontuen proiektua, ikastolaren kudeaketa-memoria eta abar.

3.5. Ikastola bakoitzaren Hizkuntz Proiektua: edukiak

Ikastola bakoitzaren Hizkuntz Proiektuak beheko zerrendan aipatzen diren zortzi atalak bilduko ditu bere baitan[16]. Atal bakoitza osatzeko garaian, erreferentzia-marko honetan aipatzen direnak aztertu eta ikastolak bere egiten dituen horiek hautatu beharko dira.

- Hizkuntz Proiektuaren definizioa eta ezaugarriak
- Hizkuntzekiko ikuspegia eta helburuak
- Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoak

[16] Aipatzen den zerrendak ez du ikastolaren Hizkuntz Proiektuaren aurkibidea izan beharrik. Ikastola bakoitzak erabaki beharko du atal horiek nola antolatzen dituen.

- Hizkuntz plangintza
- Prestakuntzarako irizpideak
- Hizkuntz Proiektua kudeatzeko ibilbidea
- Hizkuntz Proiektua kudeatzeko egitura eta zereginak
- Diagnosia eta plan estrategikoa

Dokumentu dinamikoa eta bizia izan nahi du Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak; horretarako, hastapeneko bertsio batetik abiatuta, ondorengo ikasturteetan egingo diren urteko plangintzen ebaluazioen ostean, urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasoko ditu; horrela gertatuko da ezarritako helburuetara hurbiltzeko ikastolak aurrerapausoak egiten dituen heinean. Egokitzapen horietako batzuk zuzenean Hizkuntz Proiektuan txertatzekoak izango badira ere, beste batzuk curriculum proiektuan, unitate didaktikoetan eta antzerakoetan jaso beharko dira.

Atal honetan deskribatu dugun Hizkuntz Proiektua, noski, oinarri teoriko jakin batzuen gainean eraikita dago; horiexek azaltzea izango da hurrengo atalaren helburua.

dokumentu dinamikoa eta bizia izan nahi du Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak; horretarako urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasoko ditu; horrela gertatuko da ezarritako helburuetara hurbiltzeko ikastolak aurrerapausoak egiten dituen heinean

4 ikastolen Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoak

Ikastola bakoitzak Hezkuntza Proiektuan definituta dituen hezkuntza eta hizkuntzari buruzko oinarrizko printzipioen eta irizpideen arabera jokatu beharko du, bere Hizkuntz Proiektua garatuko duten erabakiak hartzeko eta plangintzak zehazteko orduan. Oinarri horiek abiaburua izango dute Ikastolen kolektiboak bere hezkuntza- eta eraketa-ereduan eta bere curriculum-proposamenetan bildutakoetan. Atal hauetan jasotzen da oinarri teoriko horien sintesia.

4.1. Ikastolen hezkuntza-ereduaren printzipioak

"Ikastolak. Orain eta gero" (EHIK, 2008) dokumentuari jarraituz, zutabe hauetan sostengatzen da Ikastolen oinarrizko curriculum komuna:

- **Hezkuntza, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustatzaile**

  Ikastolek bat egiten dute Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko (1948) 26. artikuluarekin, non pertsona orok oinarrizko ikasketak dohain egiteko duen hezkuntza-eskubidea aldarrikatzen den; bat egiten du hezkuntzaren giza nortasuna guztiz garatzeko eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzeko hezkuntza xedearekin; eta bat egiten du, era berean, seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko gurasoek duten lehentasunezko eskubidearekin.

- **Guztiontzako eskola barne-hartzailea**

  Ikastolek, egungo eta are gehiago etorkizuneko euskal gizartea kultur askotarikoa izango dela aurreikusiz, guztiontzako eskola barne-hartzailearen alde egiten dute, Euskal Herriko pentsaera eta jokaera sozial, politiko, eta erlijioso ezberdinak integratuz eta orekatuz. Hau da, helburu dute maila sozial eta ekonomiko guztietako pertsonei irekia izatea, aukera berdintasuna bermatzea, eta bere ikasleek Europan txertatuta eta munduarekin lotuta dagoen euskal gizarte kohesionatu batean bizitzen ikastea.

- **Pertsonaren eta gizartearen eredua**

  Hezkuntza-prozesuaren xedea da gizabanako, gizartekide eta izadi-kide gisa banaezinak diren pertsonaren dimentsioen ahalik eta garapen-maila handiena eta orekatuena erdiestea. Ikuspegi horretan oinarrituz, hezkuntzaren xedeen nahiz bizitzaren arrakastaren lorpena ezagutzeko parametroak honakoak lirateke: batetik, pertsonak gizabanako gisa lortu dituen gaitasunen garapen-maila; bigarrenik, gizartearen bizikidetza-baldintzak eta gizartearen garapen-maila hobetzeko egindako ekarpenak; eta azkenik, izadia zaintzearen eta iraunkortasun jasangarriaren alde egindako ekarpenak.

  Bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integral hori erdiesteko asmoz, Ikastolen Hezkuntza Proiektua Europako parlamentuak gomendatzen dituen oinarrizko konpetentziak lortzera bideratuko da.

Bestela esanda, pertsona guztiek beharko dituzten oinarrizko konpetentziak garatzea izango da helburua, beren asebetetze eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratuta egoteko eta enplegurako.

Horretarako, ikastolek derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumean proposatzen diren hezkuntza-konpetentzia orokorrak sustatuko dituzte; hori dela eta, hezkuntza-konpetentzia orokor horiek ikas-arloetan eta oro har bizitzako egoera guztietan uztartuko dituzte.

Ikastola bakoitzak, beraz, oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu. Hori lortzeko, pertsonaren garapen osoa besarkatuko du, beste prestakuntza-maila batzuetarako eta lan-mundurako sarbideak prestatuko ditu, ikaslea eragile ekintzaile, profesional, ekonomiko eta sozialak izateko prestatuko du, baita bere bizitza zentzuz bideratzeko eta bere etorkizuna arduraz hautatzeko ere.

- **Euskal eskola**

Komunitate eta herri guztien eginkizuna eta eskubidea da bere kulturaren dimentsio guztiak babestea, bizitzea, berregitea, garatzea, eta kultura horretako kideei transmititzea familiaren, eskolaren eta gainerako komunikazio-moduen bidez. Ikastolen mugimenduaren sorrera eta ezaugarriak, euskara eta euskal kultura transmititzeko, garatzeko eta bultzatzeko konpromisoan oinarritzen dira, betiere hurbileko eta urruneko kulturetara ateak irekiz.

Ikastola bakoitzak euskararen eta euskal kulturaren inguruan batzen den identitate euskalduna proposatzen du, eta hizkuntzen eta kulturen arteko planteamendu integratzailea sustatzen du, hizkuntzen eta kulturen arteko konpetentziak osagarritzat hartuz.

Printzipio orokor horiek gauzatzerakoan ikastola taldeak hezkuntzaren, hizkuntzaren, kulturaren eta hizkuntz irakaskuntzaren inguruan egin dituen hautu nagusiak azalduko ditugu jarraian.

4.2. Hizkuntz eta kultur politikaren oinarriak

4.2.1. Eskolaren zeregina euskara indarberritzeko prozesuan

Bi hitzetan laburbil daiteke euskararen egoera soziologikoa: normalizazio-bidean dago euskara; zehatzago esanda, normalizazio sozialaren eta hizkuntz normalizazio bikoitzaren beharra du. Normalizazio soziala, euskaldunek gutxiengoa osatzen dugulako Euskal Herrian; hizkuntz normalizazio bikoitza, garabidean delako bai erabileraren aldetik (oraindik berria zenbait gizarte-esparrutan), bai corpusaren aldetik (egiten ari da esparru batzuetako lexikoa, eratzen sintaxia…). Hala, bada, motibazio eta ahalegin handiagoa eskatzen digu egoera horretan euskara eta euskaraz ikasi eta irakatsi behar dugunoi; teorian bete beharko genituzkeen funtzioetatik haratago joatea eskatzen du, hau da, hizkuntz normalizatzaile ere izatea; normalizatzaile sozial eta linguistiko izatea, alegia.

hizkuntzaren normalkuntza-prozesu luze eta konplexu horretan gizarte-eragile guztien partaidetza nahitaezkoa bada ere, “eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa”

Hizkuntzaren normalkuntza-prozesu luze eta konplexu horretan gizarte-eragile guztien partaidetza nahitaezkoa bada ere, “eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa” (EHIE, 1991, 27. or.).

Erantzukizun hori bere egingo duen eskolak, plangintza integrala eta estrategikoa indarrean jarriz lortuko du eta ez ekintza bakartuen bidez. Planaren osagaien artean, lan honen hastapeneko dokumentuan (Aldasoro et al. 2002) zerrendatzen ziren esparruak ekarriko ditugu gogora: euskararen eta euskarazko irakaskuntza indartu; etorkinak integratzeko berariazko bideak asmatu; euskararen kalitatea zaindu eta eredu ona erakusten ahalegindu; euskararen erabilera elikatu; euskara eta euskal kultura ardatz izanik, kulturaniztasuneko eta eleaniztasuneko planteamenduak indartu eta hedatu.

Zeregin horiek betetzeko lehen baldintza litzateke euskararen biziraupena hezkuntza-komunitate osoaren arduratzat hartzea. Hartara, ezinbestekoa da eskola-eremu guztietako eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea**.** Lan iraunkor, kohesionatu eta sistematizatua ahalbidetuko duen egituraketa finkatu behar da. Inguruabar horretan, eskolan hizkuntzekiko egon litezkeen esku-hartze eremuak kontuan izanik, bakoitzean eragile d(ir)ena(k) edota bilaka lite(z)keena(k) ongi identifikatu eta lehenetsi behar dira plangintza eraginkorra abian jarri ahal izateko.

Horrekin batera, ikastolak hizkuntz politika eraginkorra bideratu beharko du ingurune hurbila kontuan hartuz. "(…) guk euskararen geroa, geure baitarik, ezin dugu ziurtatu besterik gabe. Horretarako, gizartearen laguntza eta berarekin aritzea behar-beharrezkoak ditugu" (Osa, 2004). Bide horretatik, alegia, gelaz kanpoko eremua nahiz eremu instituzionala eskola-esparru gisa begiztatuz (inolaz ere ez saihestuz), lor dezakegu astiro-astiro hizkuntza gutxituarekiko atxikimendua sendotzea eta, ondorioz, haren erabileran aurrerapenak nabaritzea. Horrela, bestelako gizarte-eragileengan zein askotariko instituzioengan ere eragin beharko du, haiekin lankidetzan jarduteaz gain.

ikastolon xedea, bizitzako zeregin askotarikoetarako kalitatezko euskara irakasteaz gain, gizartean eragitea ere bada, eta baita euskararen sustatzaile izatea, hiztun euskaldunon komunitatea sendotzea, eta erabilera-eremuak irabaztea ere

"Eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa. Bere eginkizuna, ordea, erlazionatuta egongo da euskal gizarteko beste sektore guztiekin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango baita euskalduntzearen bultzatzailea. Baina, aldi berean, gizarteak bere egoera egokitzen joan behar du hizkuntza errealitatera, bai gaurkora eta bai etorkizun hurbilekora. Administrazioa eta gizartea, orokorki, ezin dira mugatu gaurko eskaerari erantzuna ematera, planifikatu egin behar dute eta baldintza egokiak sortu gaur eskoletan euskalduntzen ari diren haurrek, bizitza sozialeko edozein es-

parrutan, beren ahalmenak euskaraz garatu ahal izan dezaten biharko egunean" (EHIE, 1991, 27. or.).

Laburtuz, ikastolon xedea, bizitzako zeregin askotarikoetarako kalitatezko euskara irakasteaz gain, gizartean eragitea ere bada, eta baita euskararen sustatzaile izatea, hiztun euskaldunon komunitatea sendotzea, eta erabilera-eremuak irabaztea ere.

4.2.2. Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne-hartzailea

Diagnostikoaren atalean erakutsi bezala, gaur egungo aniztasunaren eta mugikortasunaren gizarteak erronka berriak ezartzen dizkio euskararen eta euskal kulturaren bizibe-rritze-prozesuari. Desegokia litzateke prozesu hori kultur eta hizkuntz testuinguru zabal horretatik at planteatzea. Aitzitik, euskara eta euskal kultura gaur egungo gizartearen aniztasunean parte izanik, elkarbizitzarako ardatz bezala garatu nahiko genuke.

hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna emateko garaian, ikastolok *kultur integrazio barne-hartzailearen* hautua egin dugu

Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna emateko garaian, ikastolok *kultur integrazio barne-hartzailearen* hautua egin dugu; honela deskribatzen da Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren oinarrietan:

> "Elkarbizitza hori erdiesteko kultur integrazio barne-hartzailearen bidea proposatzen dugu; hau da, batasuna eta aniztasuna uztartzen dituen bidea. Batasuna, Euskal Herrian elkarrekin bizi garen kultur talde guztien ondare komuntzat euskara eta euskal kultura hartuta, zabala eta etengabe berritzen dena; eta aniztasuna, kulturartekotasunaren bidetik, talde bakoitzaren nortasuna errespetatzeko, ezagutzeko eta balioesteko. Oinarrizko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrarazlea. Euskararen eta euskal

kulturaren inguruan egituratutako erreferentzia komun eta partekatuaren barruan, pertsona bakoitzak eraiki behar du bere identitate propioa, indibidualizazio prozesu baten bidez, eta, prozesu horretan, hainbat identitate aukeren artean bakoitzak finkatuko ditu bere lehentasunak, baina guztiok konpartituko ditugu euskararen eta euskal kulturaren erreferentziak" (A. A., 2008, 18. or.).

Ikuspegi horren baitan ez dago etorkinik edo atzerritarrik, ez dago "desberdinik". Ikasle bakoitzak bere ezaugarriak dauzka eta eskolak hartzen ditu diren bezala, "ikasle estandarraren" irudi hipotetikoarekin konparatu gabe. Familia atzerritarra edukitzea "aniztasuna" da, hainbaten artean (generoa, klase soziala, gaitasunak, interesak, ikas-estiloak eta abar). Eredu inklusiboak etorkinen seme-alabei "identitate anitza" garatzeko aukera eskaini behar die. Horrek esan nahi du hemengo sentitzen lagundu behar diela. Ez da eskolaren ardura familiaren jatorrizko identitatea eraikitzea, baina bai eraikitze horri eskolan lekua egitea eta modu positiboan balioestea. Horrenbestez, euskara haiena ere bada, euskara haien kultur ondarea da.

Hala, eskola barne-hartzaileak ateak irekitzen dizkio hizkuntz eta kultur aniztasunari, aniztasunaren erronka era baikorrean ikusiz; aukera berri gisa ikusten da gure kultura eta hizkuntza biziberritu dadin, modu horretan euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak irabaziz. Eskola barne-hartzailea, beraz, euskara eta euskal kulturarentzat abagunea da; euskarak biziraun nahi badu, isolamendutik gaindi beste hizkuntzekin eta kulturekin bizi beharko du, mestizaian; izan ere, Fishmanen esanak gogoratuz, ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bat bera bakarrik mantentzea eta indarberritzea. Eskola barne-hartzailearen ikuspegitik, euskarak integratzeko tresna izan behar du, eta ez baztertzaile. Izan ere, euskara aukera berdintasuna lortzeko bidea izango da, gure kultur aberastasuna eza-

eskola barne-hartzailearen ikuspegitik, euskarak integratzeko tresna izan behar du, eta ez baztertzaile. Izan ere, euskara aukera berdintasuna lortzeko bidea izango da

gutzeko bitartekoa, berdinekin hartu-emanak izateko tresna, gizarte-integraziorako zubia, baita inguru erdaldunetan ere. Horretarako, euskara eta euskal kultura maitatzen erakutsi behar zaie etorri berriei, jarrera baikorra eta atxikimendua beregana ditzaten.

Alabaina, hori ezingo genuke egin eurek dakartena arbuiatuz. Aitzitik, eleaniztasun prozesua aberastu egiten da ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzari keinuak eginez; jatorrizko hizkuntzari eskola-giroan espazioa aitortzeak hizkuntza berria ikasteko jarrera baikorra sustatzen du:

> "El bilingüismo aditivo, aquel que suma en lugar de restar en la experiencia emocional e intelectual del alumno, parte del reconocimiento, aprecio y valoración positiva de su lengua y de su bagaje cultural. Es preciso potenciar que cultive su primera lengua, como modo de asegurarse un firme apoyo para su aprendizaje de la segunda. Insistir en el desarrollo de las habilidades lingüísticas más amplias en primera lengua contribuye a la mejora de su autoimagen y a la transferencia de habilidades a su segunda lengua, la lengua que aprende en la escuela" (Ruiz Bikandi eta Miret Bernal, 2000).

Laburbilduz, kultura eta hizkuntza aniztun ikasleak ikastolan partaide izatearen aldeko gara eta egoera hori gure hezkuntza-eredua gizarte berrira egokitzeko *irtenbidearen* parte modura ikusi nahi dugu, eta ez konpondu beharreko *arazo* modura, Cummins-en ikuspuntuarekin bat etorriz:

> "In short, the cultural, linguistic and intellectual capital of our societies will increase dramatically when we stop seeing culturally and linguistically diverse children as "a problem to be solved" and instead open our eyes to the linguistic, cultural, and intellectual resources they bring from their homes to our schools and societies" (Cummins, 2008, 5. or.).

4.3. Hezkuntzaren ikuspegia

4.3.1. Konpetentzien hezkuntza eredu berria

Ikastolak sorreratik du gizartean txertatutako hezkuntza-eredu berriztatzailea garatzeko grina eta, beraz, hasieratik ekin dio ezagutzaren

transmisioa helburu zuen eskolatik urruntzeko bideari. Bide horretan, pauso garrantzitsu bat eman zuen 1990eko hamarkadan, hezkuntza-erreformak proposatutako ikuspegi eraikitzailearen harira. Orain, eskolaren birdefinizioan aurrerapauso baten garaian gaude, eta horrek Ikastolari gizartearekiko hartuta duen konpromisoa berrestea eskatzen dio. Dokumentu honen diagnosi-atalean azaldu dugun moduan, egungo gizartearen ezaugarriek inoiz ez bezalako erronka berriak ezartzen dizkiote hezkuntza-sistemari. Ikasleak informazioaren eta kulturaniztasuren gizarteari erantzuteko prestatu beharrak birplanteaketa sakona eskatzen du hezkuntzaren xedeetan, curriculumean eta ikaskuntza-irakaskuntza metodoetan. Diagnostiko horretan eta horri dagokion erantzunetan, adostasun handia gertatu da hezkuntza-plangintza berrietan[17]. Ikastolek (beste gizarte-eragileekin batera) berrikuntza horren ardatzak bere egin dituzte, eta Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean proposamen zehatza garatu dute (A. A., 2005).

Proposamen horren arabera, hezkuntza-sistemaren xedea litzateke pertsonak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez *jarduteko* trebatzea.

Horrela, eskolaren zeregin nagusia izango da gizartean partaidetza aktiboa edukitzeko eta bizitzako beharren aurrean era eraginkorrean ekiteko beharrezkoak diren *konpetentziak* garatzea.

Eskolak bilatzen duen pertsona **konpetentea**, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez erantzuteko gai dena da, eta horretarako beharrezkoak di-

pertsona konpetentea, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez erantzuteko gai dena da, eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era bateratuan eta integratuan erabiltzen dituena

[17] Ikus Europako Kontseiluak, Espainiako eta Frantziako Hezkuntza Ministerioek eta Nafarroako eta EAEko Hezkuntza Sailek bideratutako marko, legedi edota dekretu berriak

ren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era bateratuan eta integratuan erabiltzen dituena.

Xede horri begira jarritako hezkuntzak elkarreragin estuan dauden bost konpetentzia orokor izango ditu curriculumaren ardatz gisa: **pentsatzen eta ikasten ikasi; komunikatzen ikasi; norbera izaten ikasi; elkarrekin bizitzen ikasi; egiten eta ekiten ikasi**.

Perspektiba berri horrek lehen planora dakar hizkuntzaren trataera. Hain zuzen ere, hizkuntzak berebiziko eginkizuna du hezkuntzaren konpetentzia orokor guztiak lortzeko orduan, bera baita giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa (Elorza, 2004).

perspektiba berri horrek lehen planora dakar hizkuntzaren trataera. Hain zuzen ere, hizkuntzak berebiziko eginkizuna du hezkuntzaren konpetentzia orokor guztiak lortzeko orduan, bera baita giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa

Hizkuntza da nortasunaren garapenerako tresna nagusia.

Batetik, barne-antolaketarako eta autoerregulaziorako tresna da hizkuntza, irizpide eta jokabide pertsonalak eraikitzeko tresna. Bestetik, komunikazio-sistema den neurrian ere garrantzitsua da, harreman sozialek funtzio nagusia baitute gizakion izaeraren garapenean. Pertsonak bere iritziak, pentsaerak, esperientziak eta emozioak besteei adieraziz eta haiek adierazitakoekin bereak kontrastatuz eta osatuz eraikitzen du bere ezagutza-, balore- eta uste-sistema. Azkenik, hizkuntzaren bidez garatzen dira, hein handi batean, izaeraren osagarri eta aberasgarri diren sormena, balio estetikoak, ludikotasuna, umorea edota gozamena, ahozko nahiz idatzizko literaturaren eskutik. Eta literaturak bideratzen ditu, neurri handi batean, identi-

tatea eraikitzeko beharrezkoak diren kultur ezagutzak ere, komunitate baten partaide egiten gaituztenak.

Hizkuntza da pentsamendua egituratzeko eta errealitatea barneratzeko tresna nagusia.

Hizkuntzaren bidez, kontzeptu berriak hitzez adierazten eta barneratzen ditugu, gure ezaguera-sistema antolatzen eta ordenatzen dugu, eta jasotzen ditugun ezagutza berriak biltzen eta lotzen ditugu; ahozko nahiz idatzizko hizkuntzak ahalbidetzen ditu, nagusiki, informazioa bilatu, era kritikoan interpretatu, aukeratu, antolatu, sortu, eta komunikatzeko gaitasunak. Ondorioz, hizkuntzaren garapen egokia izango da esparru akademikoan arrakastaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen oinarrizko euskarria.

Hizkuntza da gizartean parte hartzeko eta elkarrekin bizitzeko tresna nagusia.

Pertsonen arteko komunikazio egokirako gaitasunak giltzarri dira gure bizitza sozialean; elkarrizketa formal nahiz informaletan parte hartu, arazoei irtenbideak eman, besteak konbentzitu, egoerak negoziatu, elkarrekintzan lan egin... guztiak dira bizikidetzarako oinarrizko trebetasun sozialak, hizkuntzaren bidez gauzatzen direnak.

Halaber, hizkuntza da gizartea bera antolatzeko tresna. Hizkuntza idatziaren funtzio nagusietako bat, hain zuzen ere, bizikidetzaren antolaketa da, gizartea egituratzen duten legeen, arauen, erregelen bidez gertatzen dena. Bestalde, erakundeetatik igorritako diskurtsoek bideratzen dute, neurri handi batean, gizartearen dinamika.

Komunikabideek ere funtzio garrantzitsua dute gizartearen eraketan; gero eta handiagoa, lehentxeago aipatu dugun moduan. Informazio ugaltzearen ondorioz, gero eta beharrezkoagoa da jasotzen ditugun mezuak aukeratzea, hierarkizatzea, haien balioaz hausnarketa kritikoa egitea eta erabilera sortzailea egitea.

Beraz, gizartean parte-hartze kritiko eta arduratsua eduki ahal iza-

teko, menderatu beharra dago erakundeekiko harreman- edo komunikabide-esparruan sorturiko testu generoak: informaziozkoak, argudiozkoak nahiz arau-emaileak.

Laburbilduz, grafiko honetan jaso da hizkuntzaren funtsezko ekarpena hezkuntza-konpetentzia orokor bakoitza garatzeko unean.

7. irudia. Hizkuntza tresna nagusia konpetentzia orokorren garapenean



Horiek guztiak ikusita, baiezta daiteke hizkuntz heziketak eta komunikazioaren heziketak, oro har, eskolaren zereginetan inoiz baino garrantzi handiagoa hartzen dutela. Azpimarratzekoa da, halaber, ikuspegi berri horren harira ahozkotasunak eta bereziki elkarreraginerako ahozko diskurtsoak hartzen duen pisua. Bestalde, bizitzako egoerei eta beharrei erantzungo dieten hizkuntz konpetentzien garapen egokia ziurtatu ahal izateko, garbi dago egoera horiek ezin direla gela barrura mugatu, are gutxiago hizkuntzari dagokion arlora. Eskolak kontuan hartu beharko ditu ikasleak bere inguruan

bizi dituen askotariko hizkuntz esperientziak, eta guztiak era sistemikoan tratatu beharko ditu.

4.3.2. Metodologiaren oinarriak

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi horri ondo lotzen zaio ikastolok luzaroan jorratzen aritu garen aprendizaiaren planteamendua. Gure hezkuntza-marko orokorrak ikaskuntzaren teoria eraikitzailean ditu oinarriak (Piaget, 1937, 1945, 1970; Piaget & Inhelder, 1975), eta, bereziki, Vygotsky-ren (1973) eta Bruner-en (1986) "interakzionismo sozialetik" abiatuta garatu da.

Teoria horrek elementu nagusi bat eransten dio ikuspegi eraikitzaileari; hau da, elkarreragin sozialak haur gaztearen garapenean duen funtsezko lekua azpimarratzen du. Ondorioz, gure hezkuntza-proposamenen ardatza ezagutzaren eraikuntza soziala bideratzea litzateke, ikaslearen beharretatik eta interesetatik abiatuz.

Egungo konpetentzien inguruko hausnarketa berriarekin, beste dimentsio bat gehitzen zaio ikuspegi horri, hau da, gizarte-eraikuntza hori gertatzen den testuinguruarena, giza egoerarena. Aprendizaia, hortaz, hiru dimentsiotan garatuko litzateke: maila indibidualean, ezagutza berriaren eta ikaslearen aurrezagutzaren arteko interakzioan; maila sozialean, irakasleekin eta ikaskideekin sortutako interakzioan; eta, azkenik, aprendizai hori gertatzen den testuinguruarekin interakzioan, bizi dituen egoerek ezarritako baldintzei erantzunez.

> "Un apprentissage scolaire est un processus dynamique par lequel un apprenant, à travers une série d'échanges avec ses pairs et l'enseignant, met en interaction ses connaissances avec des avoirs dans l'objectif de créer de nouvelles connaissances adaptées aux contraintes et aux ressources de la situation à laquelle il est actuellement confronté dans l'objectif d'utiliser ses nouvelles connaissances dans des situations non didactiques" (*Jonnaert et Vander Borght,* 1999, 266. or.).

Horrenbestez, hizkuntzaren lanketa egokia, beraz, Hizkuntz Proiektua, lehentasunezko premia bilakatzen du ikuspegi berri horrek; ale-

hizkuntzaren lanketa egokia, beraz, Hizkuntz Proiektua, lehentasunezko premia bilakatzen du ikuspegi berri horrek; alegia, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren muinean interakzioa eta harreman sozialak (pertsonekin zein ingurunearekin) jartzen eta testuinguruaren eta egoeraren garrantzia azpimarratzen dituen ikuspegi horrek

gia, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren muinean interakzioa eta harreman sozialak (pertsonekin zein ingurunearekin) jartzen eta testuinguruaren eta egoeraren garrantzia azpimarratzen dituen ikuspegi horrek.

4.4. Hizkuntzaren eta hizkuntza-irakaskuntzaren ikuspegia

4.4.1. Hizkuntzaren ikuspegia

Konpetentzien hezkuntza berri horri hizkuntzei buruzko berezko ikuspegia dagokio. Europako Erreferentzia Markoan konpetentzien diskurtsoari bete-betean egokitutako ikuspegia datorkigu: gizarte-ekintzara bideratutako ikuspegia. Honela definitzen da markoan:

> *Lan honetan erabili dugun ikuspegia, oro har, ekintzan oinarritzen da, gizarte-eragiletzat hartzen baititu hizkuntza bat ikasten diharduten erabiltzaile eta ikasleak; hau da, egoera jakin batzuetan, ingurune espezifiko eta jarduera-arlo jakin batean, zeregin jakin batzuk (ez soilik hizkuntzarekin lotuak) bete behar dituzten gizarteko kidetzat.*
>
> *Hizketa-ekintzak hizkuntzaren jardueretan gauzatzen diren arren, gizarte-testuinguru zabalago baten osagai dira, eta testuinguru horrek berak ematen die esanahi osoa. "Atazez" mintzo gara, jardueretan gizabanako batek edo gehiagok beren gaitasun espezifikoak emaitza jakin bat lortzeko era estrategikoan erabiltzen dituztela adierazteko. Ekintzara bideratutako ikuspegiak, beraz, ezagutzaren, emozioen eta borondatearen baliabideak ere kontuan hartzen ditu, eta baita gizabanakoak gizarte-eragile den aldetik aplikatzen dituen gaitasun espezifiko guztiak ere.* (Europako Kontseilua, 2005, 29. or.).

Aurreko atalean gertatu den moduan, ikuspegi horrek marko integralago batean kokatzen du hizkuntzen trataera; izan ere, hizkuntz jarduera gizarte-testuinguru zabalago bati atxikia aztertzen du, beste hainbat zereginekin eta konpetentziekin hertsiki loturik. Hain zuzen ere, hizkuntz ekintzek erregulatzen dituzte giza-ekintza guztiak, eta munduaren eta pertsonen arteko harremanak antolatzen dituzte.

Ekintzara bideratutako hizkuntzaren perspektiba ikas-irakaskuntzaren prozesura ekartzeko garaian, bereziki J.P. Bronckart-en ikuspegi *sozio-diskurtsiboa*n (Bronckart, 1997) eta hortik ondorioztatzen den *testu-pedagogia*n dugu oinarria, beste hainbat ekarpen kontuan hartzen baditugu ere (hala nola, atazan oinarritutako irakaskuntza (Nunan, 1989), Brunerren (1986) formatuaren teorian oinarritutako metodoa eta abar). Haren aburuz, pertsonek hizkuntz ekintzen bidez jarduten dute munduan, testuinguru eta egoera askotarikoetan, hainbat helburu lortu nahian (Lousada, 2007). Hizkuntz ekintza horiek ahozko zein idatzizko testuen bidez gauzatzen dira. Testuak, beraz, komunikazio-unitate osoak dira, komunikazio-egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokiturik zentzua eta forma hartzen duten hizkuntz unitateak. Horrenbestez, ikaslea egoera jakin batean eta helburu bat lortzeko hizkuntzaren bidez ekiten duen pertsonatzat hartuko dugu. Ekintza horren testuinguruan landuko dugu hizkuntza, bertan sortutako testuaren ezaugarri formalak zein eduki mailakoak landuz.

pertsonek hizkuntz ekintzen bidez jarduten dute munduan, testuinguru eta egoera askotarikoetan, hainbat helburu lortu nahian

Testuen ugaritasuna amaigabea denez, testu-generoka multzokatu ditugu, gizarteko eremu desberdinetan betetzen duten funtzioaren arabera; genero horiek izango dira ikaskuntza-irakaskuntza prozesua antolatzeko baliatuko ditugunak. Hala, *testu-genero*en ulermen eta ekoizpenean ardaztutako metodologia hobetsi dugu ikastolen curriculum-proiektuan.

8. irudia. Testu-generoak sailkatzeko ardatzak.



4.4.2. Euskaran ardaztutako hezkuntza eleaniztuna

Ikusi dugunez, XXI. mendeko gizartearen beharrei behar bezala erantzuteko, kalitatezko hezkuntza eleaniztuna ziurtatzea da eskolaren zeregin nagusietako bat. Hezkuntza eleaniztun horrek bermatu beharko du euskal ikasleen oraingo zein etorkizuneko egoera pertsonalari, akademikoari eta profesionalari begira aurreikus daitezkeen hizkuntz premiei aurre egiteko prestakuntza.

Hizkuntz aniztasunari dagokionez, ikastolek euskaran ardaztutako eleaniztasunaren aldeko hautua egin dute. Izan ere, egungo gizarte globalizatu honetan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea, hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Euskaldunen etorkizuna eleaniztuna da. Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan, baina, horrekin batera, euskaldunok beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dugu. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: bate-

tik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezen lortzea.

ikastolek euskaran ardaztutako eleaniztasunaren aldeko hautua egin dute. Izan ere, egungo gizarte globalizatu honetan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea, hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada

Beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalkuntzarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea. Gainera, hizkuntza sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dute. Horrekin batera, gai izan beharko dute nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko. Azkenik, Estatuen arteko mugaren bi aldeetara dauden bi elkarteen kultur batasuna lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrek beste Estatuko hizkuntza nagusiari buruzko funtsezko ezaguerak izatea.

Halako konplexutasunari aurre egitea ezinezkoa litzateke lau hizkuntzen curriculumak bata bestearen ondoan, era paraleloan, eta bakoitza osotasun guztiz bideratu nahiko bagenitu. Aitzitik, curriculumok era bateratuan landuko ditugu eta, horregatik, ikastolen *Eleanitz* eleaniztasun-proiektua *hizkuntzen elkarmenpekotasun-printzipioa*n (Cummins, 1979) oinarrituko da. Horren aburuz, hizkuntza horietako bakoitza ez da bere kabuz garatzen, beste hizkuntzekin inolako harremanik gabe; aitzitik, hizkuntza bakoitza modu integratuan garatzen da. Hala, bada hizkuntz gaitasun orokor bat, hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duena. Gaitasun nagusi hori sustatzea funtsezkoa da gaitasun eleaniztun integratua eta orekatua sortu ahal izateko. Ikuspuntu hori baieztatzeko, ikus dezagun Europako Erreferentzia Markoak dioena:

beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalkuntzarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea

Ikuspegi horretatik, hizkuntza hezkuntzaren helburua erabat aldatzen da. Helburua ez da elkarrekin zerikusirik ez duten bizpahiru hizkuntza ikastea, jatorrizko hiztunen ereduari jarraituz. Aitzitik helburua oinarrizko hizkuntza bilduma (errepertorio) bat sortzea da, bertan hizkuntza gaitasun guztiak agertuko direlarik. (Europako Kontseilua, 2005, 24. or.).

Hizkuntzei buruzko irizpide horiek guztiak direla-eta, ikastolek albora utzi dute elebitasunaren ideal abstraktuaren hasierako ikuspuntua, zeinaren helburua bi hizkuntzak jatorrizko hiztun idealaren pare jakitea baitzen. Orain, elebitasuna (eta eleaniztasuna) hiztunen beharrizan komunikatiboak islatzen dituen prozesu dinamikotzat hartzen da. Herdina-k eta Jessner-ek (2002) proposatutako *eleaniztasunaren eredu dinamiko*ak islatzen du ongien gure jarrera, kontuan hartzen baitu egoera soziokulturalek hizkuntzaren erabileran eta garapenean eragin handia dutela. Hau da, hizkuntzak ez dira era osoan eta abstraktuan garatzen pertsona elebidun edo eleaniztunarengan, baizik eta bizitzan sortzen zaizkion egoeren eta eginbeharren arabera garatzen dira. Hizkuntza jakin batean garatuko duen komunikazio-konpetentzia, bestalde, ez da guztizkoa izango edo betiko emango, baizik eta erabileraren baitan gorde, zabaldu edo galduko da.

Gurea bezalako hizkuntza gutxituen eremuan, argi dago hizkuntzaren jabekuntzan eragiten duten alderdi soziokultural horiek lotuta daudela hizkuntz ordezkapena iraultzearekin eta hizkuntzaren normalizazioa lortzearekin. Egoera horretan, eskolak funtsezko eginkizuna du hizkuntza gutxitua erabiltzeko komunikazio-behar errealak sortzen dituen inguru soziala bermatzeko. Ondorioz, ikastolek hezkuntza-sistema eleaniztunarentzako proposamena landu dute, hizkuntza gutxitua ardatz nagusi dela. Beste era batera esanda, kanpoko hizkuntzak irakasteko orduan XXI. mendeko euskal biztanleek behar duten maila egokia lortu nahi da, baina betiere euskararen nagusitasunari eutsiz erabilera-eremu guztietan.

Ikastolon eleaniztasun-eredu dinamikoak honako hautuak eginak ditu, helburutzat dituen hizkuntzak garatzeko orduan:

- Euskara hartzen du eskolako komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusi gisa, eskola barruan ahalik eta komunikazio eremu gehien harentzat irabazi nahian.
- Gaztelania/frantsesaren kasuan, gizartean duen lehentasuna aintzat hartuz, bigarren hizkuntza gisa hartuko du, eta bereziki ikasketa-munduarekin loturiko erabilera formalak indartzeari begira egingo da lana.
- Era berean, nazioarteko hizkuntzei gagozkielarik, hizkuntza horiekiko momentuan duten erabilera-testuinguru naturala baliatuko dugu hizkuntza lana bideratzeko, ikasleen benetako komunikazio-aukerak eta testuinguruak kontuan hartuz; hau da, eskola eta eskola-ekintzak izango dira gure helduleku nagusia; horrenbestez, Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua, hau da, CLIL (*Content Language Integrated Learning*) deituriko orientabidea hartuko dugu. Inguru horretan, halere, hautatutako bi hizkuntzen trataera oso desberdina izango da. Ingelesaren kasuan, globalizazioaren gizartean hartu duen *lingua franca* papera ikusirik, hizkuntza hori lanerako edo ikasketak jarraitzeko testuinguruarekin lotuko dugu; ez ditugu kultura anglofonoaren osagaiak aintzat hartuko, Graddol-ek (2006) deskribaturiko *global English* ereduaren antzera. Frantsesari/gaztelaniari dagokionez, ordea, mugaz bestaldeko komunitatearekin harremanetan jartzeko helburuarekin landuko denez nagusiki, ikuspegi kultural eta funtzionalago batekin garatuko da proposamena.

4.4.3. Komunikatzen ikasi konpetentzia orokorra

Aurkeztutako ikuspegiari erantzunez, ikastolaren hizkuntzekiko xedea honakoa dugu: *Ikasleen komunikazio-konpetentziak garatzea, hizkuntzak bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil ditzaten.*

ikastolaren hizkuntzekiko xedea honakoa dugu: *Ikasleen komunikazio-konpetentziak garatzea, hizkuntzak bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil ditzaten*

Horrenbestez, hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesua konpetentzia orokorren mailan jarriko dugu, "**komunikatzen ikasi**" konpetentziaren osagai nagusi modura[18]. Hartara, ikastolako eremu guztiek partekatutako prozesua izango da, eremu bakoitzean sortzen diren era guztietako atazek berariazko testu-generoak (berezko hizkuntz ezaugarriekin) eta hizkuntz eskakizun bereziak izango baitituzte, gizarte-ekintza jakin horietan txertatuta bakarrik landu eta ikas daitezkeenak. Bestela esanda, ikastolaren komunikazio-testuinguruko eremu bakoitzak eta bertan partaide den hezkuntza-komunitatearen kide bakoitzak (ikasle, profesional zein gurasok) egingo dio ekarpena ikaslearen komunikazio-konpetentzia orokorrari, eta guztietan eragin beharko dugu hura garatu ahal izateko.

ikastolaren komunikazio-testuinguruko eremu bakoitzak eta bertan partaide den hezkuntza-komunitatearen kide bakoitzak (ikasle, profesional zein gurasok) egingo dio ekarpena ikaslearen komunikazio-konpetentzia orokorrari, eta guztietan eragin beharko dugu hura garatu ahal izateko

Hala izanik, hizkuntz arloaren ardura izango da ikaslearen bizitzako komunikazio-testuinguru guztietako hizkuntz jardueren gaineko hausnarketa lana eta ikasketa-lan sistematikoa bideratzea. Horrela, arloaren eduki nagusiak izango dira esparru akademikoan, pertsonarteko esparruan, komunikabideen esparruan, literatura esparruan zein esparru instituzionalean sortutako testu-generoak. Alabaina, testu-genero horien testuinguru naturalak ere hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarako gune bihurtu beharko dira, hizkuntz konpetentzien garapenean era kontzientean eraginez.

Esate baterako, esparru akademikoari dagokionez, irakasle bakoitzak bere arloko berezko hizkuntz beharrei erreparatu beharko die,

[18] Euskal Curriculumak proposatzen dituen gaitasun orokorren inguruan, ikus: A. A. (2005, 2008).

honako hauek hartuta arloko curriculumeko funtsezko osagai gisa: arloari dagozkion operazio kognitibo-linguistikoak, testu-genero ohikoenak, eta horiei arrakastaz aurre egiteko ikasleak erabili beharko dituen hizkuntz gaitasun eta prozedura nagusiak.

Era berean, gela barruko interakzioa hizkuntzaren jabekuntza eta garapenerako esparru garrantzitsutzat hartu beharko da. Interakzio didaktikoak hizkuntzaren erabilera bultzatzeko eta ahozko elkarreraginezko generoak bideratzeko eskaintzen dituen aukerak behar bezala ustiatu ahal izateko, arlo guztiak eta arloetako irakasle guztiak bilduko dituen plangintza koordinatua beharko du.

gela barruko interakzioa hizkuntzaren jabekuntza eta garapenerako esparru garrantzitsutzat hartu beharko da

Horrekin batera, eskolaz kanpoko eta aisialdiko egoeretan ere modu hausnartuan jokatu beharko da, pertsonarteko harreman ez-formalen hizkuntz ereduak eta konpetentziak garatu ahal izateko. Egoera horietan eragiteko baliabide pedagogiko eta didaktiko espezifikoak garatu beharko dira, eta bertan ari diren pertsonen prestakuntza ere bideratu beharko da.

horrekin batera, eskolaz kanpoko eta aisialdiko egoeretan ere modu hausnartuan jokatu beharko da, pertsonarteko harreman ez-formalen hizkuntz ereduak eta konpetentziak garatu ahal izateko

Azkenik, era zorrotzean finkatu beharko dira eremu instituzionalak egoera guztietarako biltzen dituen hizkuntz irizpideak; beharrezkoa izango da hori ikastolako bizitzan sortzen diren barne- zein kanpo-harreman guztiak euskaraz gerta daitezen ahalbideratzeko eta, horrela, ikasleek hizkuntza erabiltzeko izango dituzten aukerak areagotzeko. Bereziki, aparteko garrantzia eskainiko zaie familiaren barruan hizkuntz transmisioa bultzatzeko sor daitezkeen ekimen guztiei.

Ikasleak bere hizkuntz gaitasuna komunikazio-eremu horietan guztietan era egokian gara dezan lagundu nahi badugu, irizpide-marko komun baten beharra dugu horietan guztietan era bateratuan eragin ahal izateko; marko hori Hizkuntz Proiektuak eskaini beharko du, hain zuzen ere.

Jarraian, eremu pedagogikoaren baitako azpi-eremuek **komunikatzen ikasi** konpetentziari egin beharreko ekarpenak azalduko dira.

4.4.3.1. Gela barruko eremuaren hizkuntz beharrak

Gela barruko esparru akademikoari dagokionez, hizkuntzaren garapen egokia izango da arrakasta akademikoaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen tresna nagusia[19]. Beraz, arlo guztietan nahitaezkoa izango da informazioaren ulermenarekin eta prozesatzearekin nahiz informazioaren egituratzearekin eta komunikatzearekin erlazionatutako gaitasun kognitibo-linguistikoak garaturik edukitzea; baita ikasketa-eremuarekin loturiko informaziozko nahiz argudiozko testu-generoak menderatzea ere.

esparru akademikoari dagokionez, hizkuntzaren garapen egokia izango da arrakasta akademikoaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen tresna nagusia

Ikuspegi hori areagotu egiten da konpetentzien hezkuntza-ereduari begira. Edozein arlotako zereginetan konpetentzia edukitzea ez da hainbat datu edo gertaera ezagutzea eta haiek errepikatzeko gai izatea soilik. Konpetentzia izateko beharrezkoa da, horretaz gain, gero eta informazio kopuru handiagoa eta konplexuagoa eskaintzen duten askotariko iturriak kudeatzen jakitea. Hau da, ikasleek jakin behar dute informazioa bilatzen, helburua kontuan hartuta egokia dena hautatzen, in-

[19] Ikus: 4.3.1. atala.

formazioa prozesatzen eta, iritzi propioa garatuz, haren balioespen kritikoa eta erabilera sortzailea egiten.

Era berean, ezagutzaren eraikuntza sozialak ideiak eta ezagutzak besteenekin alderatzea eta besteekin batera garatzea eskatzen du. Ikasleek besteekin elkarlana egin beharko dute ezagutza berria eraikitzeko, norberaren ideiak eta ezagutzak azalduz, besteenekin erkatuz, eta argudiatuz.

Prozesu kognitibo horiek guztiak ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren bidez gauzatzen dira batik bat. Konpetentzia kognitibo-linguistiko horiek oinarrizkoak dira ikaskuntzaren eremuan arrakasta izateko eta pentsamenduaren nahiz ezagutzaren garapenerako. Hartara, jakintza-arlo guztien bidez garatu behar dira, bakoitzak berezko prozedurak nahiz testu-generoak baititu (laborategiko esperientzia baten deskribapena, matematikako buruketa baten formulazioa, narrazio historikoa, gertaera sozialen edo fisikoen azalpena eta abar.)

Ondorioz, hizkuntza era kontzientean irakatsi behar dute irakasgai guztietako irakasleek. Horretarako, batetik, ikasgelaren komunikazio-ingurunea hizkuntza hobetze aldera antolatu behar da, hizkuntz ekoizpena sendotzeko eta garatzeko izan daitezkeen aukerak ahalik ongien aprobetxatzeko. Bestetik, irakasgai bakoitzari dagozkion testu-mota eta hizkuntz konpetentzia horiek argi eta garbi integratu behar dira arloaren curriculumean, ez bakarrik hizkuntza irakasteko, baita irakasgaia bera irakasteko ere, hizkuntza baita irakasgaiko edukiak eskuratzeko tresna nagusia. Horrenbestez, ebaluazioan kontuan hartu beharreko atala izango da arloari dagokion hizkuntz ekintzen kalitatearen eta eraginkortasunaren balioespena.

hizkuntza era kontzientean irakatsi behar dute irakasgai guztietako irakasleek

4.4.3.2. Hizkuntz arloaren trataera[20]

hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumaren oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza

Esan bezala, hizkuntz arloaren helburu nagusia da bizitzako zeregin askotarikoetan ekiteko ikaslearen komunikazio-konpetentzia garatzea. Helburu horri erantzunez, Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumaren oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza; bestela esanda, hizkuntza erabiltzen ikastea izango da konpetentzien definizioaren zein edukien hautaketaren oinarria.

Ondorioz, eduki nagusiak testu-generoak izango dira (ikus 4.4.1. ataleko irudia), horietan gauzatzen baitira edozein eremutako gizarte-erabilerak. Halaber, hizkuntzaren sistema aztertzeko erabilera horien hausnarketan oinarritu beharko da, baita horietatik sortutako testuekin egindako lanean ere. Izan ere, hizkuntz deskribapena ezin da egin era abstraktuan, giza ekintzatik at. Aitzitik, hizkuntz erabilera egituratzen duten parametro sozial eta kulturalak kontuan hartu rik bakarrik egin daiteke.

curriculum proposamen bakar batean bildu dugu hizkuntza guztien ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barnehartzen dituen curriculum integratuaren diseinuaren bidez

- ***Hizkuntzen ikuspegi bateratua: curriculum integratua***

Arestian aipatu bezala, ikastolek euskaran ardaztutako eleaniztasuna garatu nahi badute, ezinbestekoa izango da hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horrekin batera doan curriculum bateratua gauzatzea.

[20] Ikus: Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren Hizkuntzak eta Literatura Arloa. Elorza, Aldasoro, Goiri (2005).

Alde horretatik, curriculum proposamen bakar batean bildu dugu hizkuntza guztien ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barne-hartzen dituen curriculum integratuaren diseinuaren bidez. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntza alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuetan aplikatzea ere.

Ondorioz, arloaren konpetentzia nagusien eta blokeen definizioa eta oinarrizko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak izango dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatuko da. Berariazko konpetentziak definitzean eta, bereziki, horiek ebaluazio-irizpideen bidez definitzen direnean, hizkuntza bakoitzaren lorpen-maila zehatuko da.

9. irudia. Hizkuntz curriculum bateratuaren egituraketa



• ***Metodologiaren ikuspegia***

Arestian esan dugun moduan, irakaskuntzan ikuspegi diskurtsiboa hartzea eskatzen du Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculuma hezkuntza-konpetentzia orokorren arabera diseinatzeak; horren bidez, hizkuntzen lanketa komunikaziotik eta erabileratik abiatuz planifika daiteke. Ikuspegi horren arabera, hitz egitea eta idaztea hauxe da: komunikazio-testuinguruaren baitan, helburu batzuk lortzera bideratzen diren testuak eraikitzea. Horrek zuzeneko eragina du metodologia-erreferentzia jakin batzuk aukeratzerakoan; hain zuzen ere, ezaugarri hauek oinarrizkoak dira:

ikuspegi diskurtsiboak zuzeneko eragina du metodologia-erreferentzia jakin batzuk aukeratzerakoan

— Ikasleentzat esanguratsuak diren komunikazio-proiektuek bideratutako ikaskuntza-prozesua.

— Testua komunikazio-unitatea da. Testu-genero bakoitzak berariazko ezaugarriak ditu, beraz, bere ulermen eta ekoizpenerako ikaskuntza espezifikoak eskatzen ditu.

— Ikaskuntza sekuentzia didaktikoetan egituratzea, jarduerak komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatuz eta artikulatuz.

— Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapena nagusitzen dira; hizkuntz ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea da helburu nagusia.

— Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean barneratzea. Gramatika-hausnarketaren abiapuntua da landuko den testua; ezin dira bereizi komunikazio-ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi beharreko edukia eta horren arabera erabili beharreko hitzak eta moduak.

— Ikasleen artean eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina

indartzea, ikasgela komunikazio-testuinguru erreal bihur dadin, eta bertan lankidetzazko ikaskuntza indartu dadin.

- ***Ebaluazioaren ikuspegia***

Ikusi dugun moduan, komunikazio-konpetentziaren garapena xede duen hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzak helburuen eta edukien trataeran aldaketa sakonak eta hautu metodologiko jakinak eskatzen ditu. Ebaluazioa litzateke eraldaketa kate horren funtsezko begia; azken finean, bertan hartutako erabakiek atzerakako eragin handia dute, "zer ebaluatu, hura irakatsi" esaera ezagunak dioen moduan. Hala, ebaluatzeko moduek eta erabilitako irizpideek markatzen dute, ezinbestean, curriculumaren garapen osoa.

ebaluatzeko moduek eta erabilitako irizpideek markatzen dute, ezinbestean, curriculumaren garapen osoa

Horrenbestean, ezagutzen ebaluaziotik konpetentzien ebaluaziora doan bidea egitea funtsezkoa izango da, hizkuntzen irakaskuntza-ereduaren eraldaketa arrakastaz egin ahal izateko. Ebaluazioaren funtzioak, formatua, partaideak, edukiak, neurketa adierazleak… elementu guztietan sortu da berrikuntza esanguratsuak egiteko beharra (hizkuntzen ebaluazioan zein beste edozein arlotako ebaluazioan).

Horrenbestean, ezagutzen ebaluaziotik konpetentzien ebaluaziora doan bidea egitea funtsezkoa izango da, hizkuntzen irakaskuntza-ereduaren eraldaketa arrakastaz egin ahal izateko

Honako ezaugarriak bete beharko lituzke Hizkuntz Proiektu horretan proposatutako ikuspegiari erantzungo dion ebaluazioak:

- **Hezitzailea**: heziketa prozesuaren muinean kokatzen dena, eta ez azken muturrean soilik.
- **Integrala**: konpetentzia komunikatiboaren osagai guztiak kontuan hartuko dituena.

- **Kontestualizatua**: hizkuntza giza ekintza jakin baten komunikazio-testuinguruan txertatuta aztertuko duena, eta ez elementu formal abstraktu gisa.
- **Testuala**: hausnarketa-unitate gisa, giza ekintza horren baitan sorturiko testua izango duena.
- **Anitza**: osagai eta egoera bakoitzeko ebaluazio-une eta -mota egokiena erabiliko duena.
- **Prozesuala**: aprendizaien erregulatzaile-funtzioan oinarritutakoa.
- **Partekatua**: elkarrekintza ardatz izanik, ikasleari partaidetza eskainiko diona.

4.4.3.3. Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena

Ikasleen bizitza esparru guztietarako baliagarria den hizkuntza garatzen laguntzeko ardura hartu duen eskolak ezin du hizkuntzaren arloan egindako lanera mugatu, ez eta gela barruan beste arloetan garatu daitekeen eremu akademikora ere. Horietaz gain, garrantzi berezia eskaini beharko zaio gelaz kanpoko eremuari[21]. Esparru horretan eragiteko arrazoi nagusia, eskola-giro osoa euskararen arnasgune bihurtzea da, nahiz eta beste hizkuntzek ere lekua hartuko duten. Helburua, beraz, ikastola euskararen bilgune bihurtzea da, ikasleek gelatik atera orduko beraien artean euskaraz egiten jarrai dezaten segurtatzeko edo bultzatzeko; horretarako, egoera interaktiboak ugaritzeko aukerak eskainiko dira eta euskara haur eta gazteek gustuko dituzten jarduerekin lotuko da.

Aipatutakoa betetzeko, jakina, askotariko jarduerak euskaraz eskaintzea izango da lehen baldintza. Baina horrekin ez da nahikoa; egi-

[21] Gelaz kanpoko eremua osatzen du eskola-orduz kanpoko edo gelatik kanpo eskola giroan garatzen den edozein jarduerak. Hala nola, jolas-garaiak, ibilaldiak, ikastolako sarrera-irteerak, kanpaldiak, aisialdiak, eskola-orduz kanpoko kirol eta kultur ekintzak, bestelako ikasketak (musika, hizkuntz gaikuntza…) eta abarrek.

ten dugun eskaintza euskararen erabilera indartzeari begira benetan eraginkor eta baliagarri den ziurtatu beharko genuke.

Eremu horretan ere euskara helburu nagusia bada, ezin esan gelaz kanpoko eremua laguntza hutsa denik, zerbitzu hutsa denik; esparru pedagogikoa izateaz gainera, didaktikoa ere badela azpimarratu beharra dago. Adierazten ari garenaren arabera, eta konpetentzien hezkuntzaren planteamendutik, komunikatzen ikastearen konpetentzia txertatuta geneukake jarduera horietan guztietan (gainerako konpetentzietarako aterpea ere eskaintzen du, garapen integralaz hitz egingo badugu). Eskolaz kanpoko eremuaren xede nagusia euskararentzat espazioa irabaztea den momentutik, eta lan horrek etekinak izatea nahi bada, berezko planteamendu didaktikoa beharko du, orain-dik ere garabidean dagoena. Alegia, ekintza bakoitzak bere programazioa beharko du, bere sekuentziazioa; helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa beharko ditu, bai eta horiek aurrera eramateko egitura ere. Planteamendu didaktiko hori garatu beharko da esku-hartze eremu guztien arteko koherentzia zainduz, eta irizpide metodologiko orokorretan eta profesionalen prestakuntzan bat eginez.

eremu horretan ere euskara helburu nagusia bada, ezin esan gelaz kanpoko eremua laguntza hutsa denik, zerbitzu hutsa denik; esparru pedagogikoa izateaz gainera, didaktikoa ere badela azpimarratu beharra dago

Horrenbestez, hauek dira ikuspegi horren arabera gelaz kanpoko eremuaren helburu zehatzak (jada helburu pedagogikoen eta didaktikoen aitormena eginda):

- **Ahozko elkarreragina segurtatzea eta bultzatzea.** Eskolaz kanpoko jarduerek ikasleen hizkuntz portaeretan eta hizkuntz jabetze mailan benetako eragina izan dezaten, kirol, dantza edo jolas-jarduera horietan ahozko elkarrekintza egokia gerta dadin ziurtatu behar dugu; horretarako, komunikazio-egoera erreal horien baldintzetan eragin behar dugu.

Hartara, gelaz kanpoko jardueren ingurune soziala antolatu eta planifikatu beharko dugu, partaideen arteko elkarreragina (eta, ondorioz, hizkuntz erabilera) bultzatu nahi badugu. Horrek, eremu horretan naturalak diren egoeretatik abiatuta, ahozko jardunaren diseinua egitea eskatzen du; ikaslearen eta hezitzaileen arteko harremanez hausnarketa egitea, lan-estrategiak adostea eta lantzea, eta abar. Hau da, ekintza horien "curriculuma" idaztea, gela barrurako garatu diren hainbat proposamen metodologiko euskarri gisa harturik.

- **Hezitzaile guztiak hizkuntz irakasle.** Hizkuntzaren alderdirik adierazkorrenak erabiltzeko aukera ematen du eremu honek, harremanak libreagoak izanik lagunarteko hizkuntza nagusitzen baita. Bertan izaten diren komunikazio-egoerak informalak eta familiarrak izan ohi dira. Horrenbestez, euskararen lagunarteko erregistroa bideratzeko ezinbesteko helduleku bihurtzen zaigu. Baina, hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa daitekeela sinestarazteaz gain, gazteei beharrezko hizkuntz erregistroak irakatsi behar zaizkie; horixe da eremu ez-formaletan eragile direnen zeregina. Hizkuntza-egoera horietarako ikasleek behar duten hizkuntz corpusa zaindu eta landu beharko da: jarduerak eskatzen duen euskara teknikoa, eta testuinguru soziolinguistikoak eta adinak eskatzen duten hizkuntz erregistroa, besteak beste.

- **Hizkuntz jarrerak lantzea eta adostea.** Gizartean leku gutxi duen hizkuntza bati eusteko, era esplizituan eragin beharra dugu jarreretan; izan ere, hautu kontzientea behar da hainbat esparrutan, hainbat egoera eta funtziotarako hizkuntza gutxitua erabiltzeko. Horrekin batera, argudioak eraiki beharra dago hizkuntza gutxituarekiko aurreiritzi negatiboei edota horren aurkako diskurtso asimilatzaileei aurre egiteko; beti ere, kontuan hartu behar dira jarreren lanketan eleaniztasun eta kulturaniztasun kontzeptuak ere.

  Horretarako, eremu honetan izaten diren komunikazio-egoeretatik abiatuta, ezinbestekoa da hizkuntz jarreren tipologia identifikatzea eta horien lanketa planifikatzea. Lanketa horren ondorioz ga-

ratuko dira bilatzen ditugun hizkuntz portaerak, eta baliagarri izango dira hizkuntzen ikasketa prozesuan eragiteko, egoera soziolinguistiko desberdinak ulertzeko eta bizikidetzan aurrera egiteko.

Horrenbestez, ikastolako Hizkuntz Proiektuak ekarriko du euskararen erabilerari dagokionez aurreko lerrootan aipaturiko ikuspegia eta filosofia integratzea, gelaz kanpoko eremuari beste kokapen bat ematea eta, ondorioz, eskaintzen diren zerbitzuen ezaugarriak aztertu eta planteamendu didaktikoei tokia egitea. Gainera, gelaz kanpoko eremurako ikastolak egindako hausnarketa hori beste eremuetan eginikoarekin bateratu beharko da, lan iraunkor, kohesionatu eta sistematizatua ahalbidetuko duen plangintza finkatzea nahi bada. Izan ere, euskararen biziraupena ez da soilik irakasleena, hezkuntza-komunitate osoarena baizik.

4.4.4. Hizkuntz dibertsitateari eta kalitateari begira, erregistroen trataera[22]

Nolako euskara behar da, esku-hartze eremu desberdinetan sortutako komunikazio-testuinguru anitzei erantzuteko? Ikastolen mugimenduaren barruan, kezka nagusietako bat izan da betidanik euskararen kalitatea zaintzea eta eredu onak irakastea. Horri loturik, gazteen artean euskararen erabilera indartzea ere helburu garrantzitsuenetako bat da ikastoletan. Azken batean, hizkuntza erabiltzea eta erabileraren egokitasuna ezinbesteko oinarriak dira hiztunen komunikazio-gaitasuna ahalik eta ondoen garatzeko. Horrexegatik da hain garrantzitsua hizketa-molde edo hizkuntz erregistro bat baino gehiago lantzea eta sustatzea, ikasleak bere esparru guztietan hizkuntza egokiro erabiltzen jakin dezan. Izan ere, euskara egokia eta une ego-

[22] Gai hau luze-zabal jorratu dugu *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* liburuan (Barrios et al., 2008); besteak beste, alderdi hauek: erregistroak zer diren, erregistro bakoitzaren ezaugarriak, gabezia orokorrak, erregistroen trataera teorikoa eta praktikoa, eta erregistroak lantzeko marko proposamena. Ildo nagusi horietan sakondu nahi duenak jo beza liburu horretara eta bertan aipatzen den bibliografiara.

kian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez du hizkuntza erabiliz gozatuko eta, azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da.

hizkuntza menderatzea ez da erregistro jaso bakarra trebetasunez erabiltzea, baizik eta komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera erregistro desberdinetan egoki aritzea

Beraz, ikasleek ikasi behar dute argi, jariakortasunez, modu eraginkorrean, eta egoerari dagokion erregistro egokian hitz egiten. Hain zuzen ere, hizkuntza menderatzea ez da erregistro jaso bakarra trebetasunez erabiltzea, baizik eta komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera erregistro desberdinetan egoki aritzea. Era berean, hizkuntzaren didaktikaren alorrean eredu ezberdinak lantzea proposatzen da, hizkuntzaren erabilera ugariei tratamendu bereziak ezartzeko; besteak beste, erregistrokako banaketa proposatzen da.

Euskararen erregistroez jardutean, hainbat faktoreren eraginez erabiltzen den hizkeraz ari gara; besteak beste, solaskideen arteko harremanen, haien asmoen, gaien edo formaltasunmailaren eraginez erabiltzen den hizkeraz. Hiztun bakoitzak ohiko erregistro batzuk izaten ditu eskueran, eta komunikazio-ekintzaren testuinguruaren arabera erregistro bat ala beste erabiltzen du. Dena den, erregistroa ez da ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako continuum bat bezala baizik, beheko irudian ikus daitekeenez.

10. irudia. Hizkuntz erregistroen continuuma.



Alabaina, eskola-giroan irakasleak, hezitzaileak eta gainerako profesionalak dira hizkuntz erregistro egokiaren sustatzaile, eredu-emaile eta motibazio eragile, gela barruan zein gelaz kanpo. Ildo horretatik, eredu-emaile suertatzen diren horiek izan beharko dute lehenengoak erregistroak bereizten, eta bide-erakusle ikasleekin askotariko egoeretan erregistro formal eta ez-formal horien erabilera eginez.

Egun, euskara normalizazio-bidean dagoela kontuan hartuz, normalizazio soziologiko eta linguistiko bikoitzean (bai erabileran, bai corpusean) hain zuzen, eskolarako ondoen heldu den eredua estandarra eta jasoa da. Auzia da erregistro formalekoak ez diren egoera eta diskurtsoetan nolako euskara erabili eta irakatsi behar den, alderdi hori baita gaur egun aintzat hartzen ez dena.

Hartara, hezkuntza-komunitateak bere ezaugarri guztiak kontuan harturik –inguruak zenbateko euskalduntasuna erakusten duen, nolako ikasleak etortzen diren bertako ikasgeletara eta abar— zein hizkuntz eredu landuko dituen erabaki behar du; horretarako, gogoan izan behar du egoera informaleko hizkera euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela eta hizkera landua, berriz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan[23].

hezkuntza-komunitateak bere ezaugarri guztiak kontuan harturik zein hizkuntz eredu landuko dituen erabaki behar du; horretarako, gogoan izan behar du egoera informaleko hizkera euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela eta hizkera landua, berriz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan

Ikastolako lana antolatzeko orduan, oro har, inguruaren ezaugarrietatik abiatu behar da; hizkuntzari dagokionez, ikastola non dagoen

[23] Erregistro formalerako eta ez-formalerako ereduen proposamen zehatza jorratu dugu *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* liburuan (Barrios et al., 2008).

eta bertako ezaugarri soziolinguistikoak hartu behar ditu aintzat, inguruan erabiltzen den hizkuntz mota ahantzi gabe (inguru euskalkiduna bada, euskalkia; eta inguruan ez bada euskalkirik, lurraldea hartu beharko da aintzat) eta gero, pausoka-pausoka, urrutiko ezaugarrietara igaro. Horrez gain, ikasleak lehenagotik zer dakien kontuan hartu behar da nahitaez, eta haren hizkera errespetatu behar da.

Horrenbestez, ikastolaren zereginen artean lehen mailako helburua hizkuntza estandarra irakastea bada ere, horrekin batera kontuan hartu beharko dira herrian herriko hizkerak eta bestelako aldaerak.

Atal honetan aipatu diren oinarri teorikoak praktikara eraman ahal izateko, berebiziko garrantzia izango du hezkuntza-komunitatearen partaide guztien prestakuntza-prozesua behar bezala bideratzeak. Jarraian azalduko dira oinarri horiei erantzun ahal izateko prestakuntza-irizpide nagusiak.

5 ikastolen Hizkuntz Proiektuaren prestakuntza-irizpideak

Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-marko honetan, hezkuntza-komunitate osoaren hainbat behar eta premia azaleratuko zaizkigu, baldin eta, besteak beste, egoeraren diagnostikoa, hizkuntzekiko ikuspegi eta helburuak, eta Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoak ataletan aipatzen direnak aintzat hartuko badira. Beraz, premia horiei erantzuteko Ikastola bakoitzak erabaki behar duen prestakuntza garrantzi handikoa izango da. Hartara, aurreko ataletan esandakoetan oinarriturik, jarraian zehaztuko diren irizpideak nahitaez kontuan hartu behar dira hezkuntza-komunitatearen prestakuntzan lehentasunak erabakitzerakoan.

5.1. Prestakuntzaren esparruak

Hizkuntz Proiektuaren baitako prestakuntzak, egin-eginean ere, ikastolen hizkuntz beharrei egokitutako tresna izan behar du, eta aintzat hartu behar ditu bai hezkuntza-komunitatearen partaide eta komunikazio-eremu guztiak, bai Ikastolaren Hizkuntz Proiektua aurrera eramateko beharrezko esparru guztiak. Horretarako, Ikastoletako eskola-giroan hizkuntzen erabileran eragiten duten eta hobetu beharrekoak diren alderdiak lantzea du helburu, bakoitza bere erabilera-esparruaren arabera. Alderdi horiek, besteak beste, honakoak dira: hizkuntz elkarrekintza (mintza-jardun aktiboa indartzea), gaiak eta hizkera-moduak, profesionalen eta eskola-lagunen euskara-maila, eta gizartearen eragin-moldea (ikaslearen eskolaz kanpoko jardun-esparruetako hizkuntz ohiturak, jokabideak eta jarrerak) (Zalbide, 2001). Horretarako, lau esparru nagusi hauetan eragitea aurreikusten dugu:

Hizkuntz Proiektuaren baitako prestakuntzak, egin-eginean ere, ikastolen hizkuntz beharrei egokitutako tresna izan behar du, eta aintzat hartu behar ditu hezkuntza-komunitatearen partaide eta komunikazio-eremu guztiak

- Hizkuntz prestakuntza
- Metodologia prestakuntza
- Hizkuntz jarreren inguruko prestakuntza
- Hizkuntz Proiektua dinamizatzeko prestakuntza

5.2. Prestakuntzaren ardatz nagusiak

Lehenago ere aipatu dugu hizkuntzekin loturiko prestakuntzak aintzat hartu behar dituela ikastolaren eremu guztiak eta hezkuntza-ko-

munitatearen partaide guztiak. Hartara, prestakuntzaren ardatz nagusiak deskribatuko ditugu jarraian, kolektibo bakoitzeko eta eremu nagusi bakoitzaren arabera.

5.2.1. Profesionalak. Funtzioa eta garrantzia

Profesionalena dugu eremurik zabalena, eremu pedagogikoan gela barruko eta gelaz kanpoko jarduerei ez ezik, eremu instituzionalari ere begira jarriz gero. Profesional guztiek, bakoitzak bere eremuan, ikastolako komunikazio-esparru bat dute gutxienez, eta aldez edo moldez, une batean edo bestean, ikasleekin hartueman zuzenean komunikazio-ekintzaren bat garatu behar izaten dute. Batzuek era trinkoagoan besteek baino, baina, hala ere, komunikazio-ekintza horietako bat bera ere ez da gutxiesteko modukoa. Izan ere, ekintza komunikatibo horien bitartez ikasleek hizkuntzaren erabilera funtzionala egiten dute, eta horietako bakoitzean garatu beharreko diskurtsoa eremu horretako profesionalarekin batera eraikitzen du, elkarrekintzan gehienetan eta eredua bilatuz besteetan. Hortaz, ikastoletako profesionalentzako prestakuntzak aintzat hartu beharko ditu gutxienez bi eragin esparru, profesional bakoitzaren inguruan: bata, hiztun gisa bere hizkuntz gaitasunaren hobekuntza; eta bestea, ikasleen aurrean askotariko ekintza komunikatiboetan erabakigarri suertatzen diren eredu-emaile eta diskurtso-bideratzaile gisa. Hartara, profesionalei zuzendutako prestakuntza ardatz horien inguruan egituratu beharko da.

ikastoletako profesionalentzako prestakuntzak aintzat hartu beharko ditu gutxienez bi eragin esparru, profesional bakoitzaren inguruan: bata, hiztun gisa bere hizkuntz gaitasunaren hobekuntza; eta bestea, ikasleen aurrean askotariko ekintza komunikatiboetan erabakigarri suertatzen diren eredu-emaile eta diskurtso-bideratzaile gisa

• ***Hizkuntz prestakuntza***

Hizkuntz mailaren hobekuntzaz diharduguneanean, komunikatzen ikastearen konpetentziaren edo gaitasun komunikatiboaren hobekuntzaz ari gara, oro har (Canale, 1983). Alabaina, ikastolako komunikazio-esparruetara etorrita, hizkuntzaren erabilera-esparru bakoitzeko ekintza komunikatiboa gauzatzen deneko egoeraren araberako diskurtsoak lantzeaz mintzo gara, eta horietan, gaitasun gramatikalarekin batera gaitasun testuala edo diskurtsiboa lantzeaz. Aldi berean, ekintza komunikatiboa zehazten eta zedarritzen duen testuinguruen osagaiak lantzeaz ere ari gara; hau da, komunikazio-egoerari egokitzeko abileziaz, gaitasun soziolinguistikoaz eta sozіopragmatikoaz. Eta, noski, horren barruan aintzat hartzen dugu ekintza komunikatiboaren xedeari, hartzaileari, erabilera-esparruari eta abarri dagokien hizkuntz erregistro egokiaren hautaketa.

Hizkuntz erregistroen gaia da, hain zuzen, gaitasun soziolinguistikoari dagokionez, eskola-giroan oro har dugun gabeziarik handienetakoa. Izan ere, hiztun arruntak hainbat hizkera-molde izaten ditu aukeran, eta bat edo beste erabiltzea erabakitzen du egoeraren arabera, ekintza komunikatiboaren testuinguruaren osagaien arabera. Gogoan izan behar dugu kontu hauetan ere, hiztun gisa norberaren gaitasuna hobetzeaz gain, ikasleen aurrean etengabeko eredua eman ohi duela profesionalak; beraz, are garrantzitsuagoa da irakasleen eta hezitzaileen rola, horrelako ikaskuntzen bideratzaile eta komunikazio-egoeren kudeatzaile baitira. Horren haritik, gogorarazi behar dugu erregistroa ez dela ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako continuum gisa baizik. Hala, hizkuntzaren erabilera-esparru jakin batean ekintza komunikatiboetan egin beharreko lanek, une ezberdinetan, erregistro formala eta ez-formala agertzeko aukera eman dezakete esparru berean.

Oro har, arestian aipatzen genuen hizkuntz normalizatzaile rol bikoitzean eragin beharra dago, bereziki gaitasun soziolinguistikoaren eta gaitasun diskurtsibo-testualaren hobekuntzan. Eta gaitasun horiek direla eta, landu beharrekoak lehenago ere aurreratu ditugu: ba-

tetik, ikastolako esparru bakoitzean gertatzen diren ekintza komunikatiboaren testuinguruaren osagaiak, erabilera-esparruak eta hizkuntz erregistroak barne; eta, bestetik, erabilera-esparru bakoitzean ekintza komunikatiboa gauzatzen deneko egoeraren araberako diskurtsoak.

Azken batean, profesional bakoitzak baliabide jakin batzuk izango ditu aukeran bere lan-arloari loturiko diskurtsoak gauzatzeko; eta aukera horien artean, bat ala bestea hartzea erabaki beharko du, egoeraren eta beharren arabera. Hain zuzen, erabaki edo estrategia egokiak erabiliz lortuko du komunikazio arrakastatsua. Beraz, gaitasun estrategiko horren lanketaren aldeko hautua egiten dugu; izan ere, bakoitzaren beharrek izan behar dute abiapuntu, baina behar horiei erantzuteaz harago joan behar dugu, soilik hiztun autonomo eta estrategiko izanez lortuko baitugu egoera eta testuinguru ezberdinetan komunikazio arrakastatsua bermatzea.

profesional guztientzako abiapuntua gaitasun operatibo eraginkorra izanik, gaitasun komunikatibo orokorrak lantzeaz gainera, bere lan-arloari loturiko gaitasun komunikatibo espezifikoak ere kontuan hartu beharko dira

Gaitasun komunikatibo horien gaineko irizpide orokorrak, besteak beste, Europako Erreferentzia Markoan daude jasota, hain zuzen erabiltzaile gaituarentzat zehazten dituen gaitasun operatibo eraginkor eta menderatze-mailetarako deskribatzaileetan. Hala, bada, profesional guztientzako abiapuntua gaitasun operatibo eraginkorra izanik, gaitasun komunikatibo orokorrak lantzeaz gainera, bere lan-arloari loturiko gaitasun komunikatibo espezifikoak ere kontuan hartu beharko dira. Hau da, berezko hizkuntz beharrei erantzuteko baliabideak eta estrategiak eskuratzen diren heinean osatuko litzateke menderatze-mailara arteko bidea, ondorengo irudian ikus daitekeenez.

11. irudia. Erabiltzaile gaituaren mailak



- **C1 maila**, *Maila autonomo* edo *Gaitasun operatibo eraginkorra* deritzona da. Maila honen ezaugarri nagusia diskurtso sail zabal bat erabiltzeko gaitasuna da, jariotasuna eta bat-bateko komunikazioa bideratzeko aukera ematen duen diskurtsoa osatzeko gaitasuna.

- **C2 maila**, edo *menderatze-maila* deitua. Maila honen helburua goimailako hiztunen diskurtsoan aurkituko den hizkuntz zehaztasuna, egokitasuna eta erabilera-erraztasuna ezaugarritzea da.

Irudian zehazten den ikuspegiaren ezkerreko adarra ezaguna da hezkuntzako profesionalen artean, IRALE eta antzeko programen bidez garatzen baita aspalditxotik. Irudiaren eskuineko adarra, berriz, azken lauzpabost urteotan osatu da HABEren eskutik, 4. mailako egitasmoaren inguruan. Egitasmo horren oinarrietan aurkitu dugu, besteak beste, lehenago aipatzen genituen gaitasunen maila-goreneko lanketa, ikuspegi soziodiskurtsibo batetik (Bronckart, 1997). Hala, gure ustez, hizkuntzaren hobekuntzaren ildo horretatik menderatze-mailara arteko bidea jorratzeak erantzun egokia ematen die irakaskuntzan jarduten duten profesionalen hizkuntz beharrei eta komunikatzen ikastearen konpetentzia garatzeari. Beraz, Ikastolako profesionalen hizkuntz hobekuntza goian irudikatzen den ikuspegiaren bitartez garatuko genuke, bakoitzaren arlotik eta beharretatik abiatuz.

• ***Metodologiaren prestakuntza***

Eremu pedagogikoan (gela barruan eta gelaz kanpo, hain zuzen) jardun-gune duten profesionalei so eginez eta dokumentu honetan diagnosiari buruz aipatu direnak kontuan hartuz, esan daiteke, oraindik ere, urte luzez hezur-muinetaraino hedaturik izan dugun hizkuntzen ikuspegi estruktural-gramatikaletik hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzaren ikuspegi komunikatiborako jauzia erabat emateko dugula. Eremu horietan, bakoitzak bere berezitasunak dituela, hizkuntzen erabileraren alde egingo badugu, beharrezkoa izango da berariazko metodologia-prestakuntza saioen bitartez ondoren aipatzen diren ildo nagusiak aintzat hartzea eta lantzea.

Ahozko elkarreraginezko diskurtsoari begira bereziki

Konpetentzia komunikatiboa lantzeari begira, benetako premiak dira ahozkotasuna eta elkarreragina bultzatzea, kontzeptu bi horiek zer diren ondo ulertzea eta nola landu daitezkeen jorratzea. Ikasleek ahozko hizkuntza ingurunearekin eta ingurukoekin elkarreraginean nola eraikitzen duten landu beharko da. Orobat jorratu beharko da esparru bakoitzaren testuinguruaren berezitasunen arabera sortzen diren komunikazio-egoera esanguratsuak nola balia daitezkeen, gela barruan eta gelaz kanpo, ikasleek hizkuntzaren erabilera funtzionala egin dezaten.

konpetentzia komunikatiboa lantzeari begira, benetako premia dugu ahozkotasuna eta elkarreragina bultzatzea

Guztiak hizkuntz irakasle

Ildo horretatik, berebiziko garrantzia hartzen dute metodologiaren inguruko prestakuntza saioek. Izan ere, horien bitartez ikasiko dituzte irakasleek eta hezitzaileek –hizkuntz arlokoek ez ezik, gainerako arlo eta esparruetakoek ere—, besteak beste, ekintza komunikatiboen testuinguruaren arabera ahozkotasuna nola landu ikasleekin elkarreraginean, sortzen diren komunikazio

esanguratsuak egoki kudeatzeko estrategiak –ikasleak behar duelako protagonista izan eta ez irakasleak edo hezitzaileak–, ikasketa kooperatiboa bultzatzea, arloetako operazio kognitiboak gauzatzen dituzten testu-generoak nola landu arrakastaz, arloko konstanteak eta trebeziak nola landu… Azken batean, hizkuntza edozein ikaskuntza-irakaskuntzaren oinarrizko tresna izanik, metodologia horien inguruko prestakuntza behar dute irakasleek eta hezitzaileek, bakoitzak bere esparruan hizkuntzaren behar horien lanketa egiteko ikasleekin.

• ***Hizkuntz jarreren inguruko prestakuntza***

Ikasleak euskalduntasunean eta euskaraz ardaztutako eleaniztasunean hezi nahi ditugu ikastoletan, ikastola bakoitzak duen inguru soziolinguistikoa kontuan hartuz. Oro har, lehen esan bezala, hizkuntz normalizatzaile sozial eta linguistiko rol bikoitz hori jokatu beharko dugu ikastoletan. Batetik, ekimenak gauzatzerakoan normalizatzaile sozial izan beharko dugu, euskararekiko jarrerak lagungarriak ez direnean aldeko jarrerak landu beharrean izango garelako. Bestetik, ikasleen aurrean eredu-emaile gisa agertzen garen heinean, hizkuntz normalizazioaren eragile gisa ere jokatu beharko dugu.

> euskarekiko jarreren inguruko alderdiak lantzeaz batera, euskara eta euskal kulturaren eta bestelako hizkuntzen eta kulturen arteko bizikidetza sustatu behar dugu; aldi berean, hizkuntz eta kultur aniztasunak gizakion eta bizitzaren garapenerako duen garrantziaz jabetu behar dugu

Azken batean, landu beharrekoen artean honakoak ditugu: euskarekiko kontzientzia eta konpromisoa, hizkuntzen balio soziokulturala eta begirunea, aniztasunaren balorazioa eta begirunea, ikasketaren inguruko jarrerak (errakuntzen onarpen positiboa, saiatzearen garrantzia…). Baina euskarekiko jarreren inguruko alderdiak lantzeaz batera, ikastoletan ikasle eleaniztunak hezi nahi ditugunez gero, euskara eta euskal kulturaren eta bestelako hizkuntzen eta kulturen

arteko bizikidetza sustatu behar dugu; aldi berean, hizkuntz eta kultur aniztasunak gizakion eta bizitzaren garapenerako duen garrantziaz jabetu behar dugu.

• ***Hizkuntz Proiektua dinamizatzeko prestakuntza***

Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak eskola-giro osoan aintzat hartu eta landu behar dituen ekintza guztiak —hala hezkuntza-komunitateko partaideei nola esparru guztiei begira gauzatzen direnak— zuzenean elikatzeko, dinamizatzeko eta bideratzeko prestakuntza beharko dute lan horietan arituko diren Hizkuntz Proiektuaren dinamizatzaileek. Profesional horiek, erreferentzia-marko horretan finkatutako oinarri teorikoak barneratzearekin batera, ikastolako esparru guztietan oinarri horien aplikazio praktikoa aurrera eramateko tresnak eta lan-estrategiak bereganatu beharko dituzte. Horretarako, prestakuntza berezitua beharko dute, non hainbat arlo landuko diren elkarlanean: batetik, oinarrizko marko teorikoa; bestetik, egoeraren diagnostikoa eta ondorioztatzen den plan estrategikoa egiteko baliabideak; eta azkenik, ikastolako giza taldea dinamizatzeko estrategiak.

5.2.2. Gurasoak

Ikaslearen inguruko harreman-sareetatik (gurasoak, lagunak, auzoa, aisialdi-ekintzako lagun taldeak, hizkuntza gutxitua sustatzearen aldeko elkarteak eta abar), familia da ondorio nabarmenenak ezartzen dituen eragilea hizkuntzaren transmisioan eta eskurapenean. 2005ean, D ereduko DBH-4ko ikasleen B2 maila ebaluatzeko ISEIren proben emaitzek halaxe dela erakusten digute:

familia da ondorio nabarmenenak ezartzen dituen eragilea hizkuntzaren transmisioan eta eskurapenean

— Familia-hizkuntzaren aldagaiak aldaketa handiak eragiten ditu emaitza orokorretan. Etxean euskaraz hitz egiten dutenen artean

% 74,1 dira ikasle gaindituak; bestalde, etxean euskaraz egiten ez dutenen ikasleen emaitza % 47,6 da, batez besteko orokorraren ia kopuru bera. Bi talde horien arteko aldea nabaria da; % 26,5, hain zuzen ere. Aldagaia, beraz, eragin handikoa da.

— Emaitza onenak lortzen dituzten ikasleek honako baldintzak dituzte: D eredukoak izatea eta etxean gurasoekin euskaraz hitz egitea; % 74,1 kopuruak erakusten du hori.

Hala, bada, seme-alabek euskara ikasteko ardura handitu egin da azken urteotan. Gero eta guraso euskaldun gehiago ditugu eskolari esker. Familia bidez euskara geroratzeko aukera gero eta handiagoa da. Euskarekiko aitormen sozial handiagoa dago gure gizartean eta, beraz, gurasoek bere egin dute euskara ondorengoei transmititzearen ardura. Hala eta guztiz ere, asko dago egiteko arlo honetan ere euskararen erabilera areagotzeko; honako lerrootan jorratuko dira egiteko nagusienak.

• ***Gurasoentzako hizkuntz prestakuntza***

Belaunez belauneko hizkuntz transmisio betea lortzeko bidean, Ikastolak aukerak eskaini behar dizkie gurasoei euskara ikasteko, hobetzeko, sendotzeko eta erabiltzeko, ahal dela irizpide hauek aintzat hartuz:

Eskolaren testuinguruak eskainitako hizkuntz baliabideak oinarri harturik. Ikuspegi diskurtsibo batetik, eskolaren testuinguruak dituen hizkuntz baliabideak baliatu behar dira gurasoek aukera izan dezaten hizkuntza ikasteko, hobetzeko, sendotzeko eta kasu guztietan erabiltzeko; era berean, motibatu egin behar dira dakiten euskara gutxi edo asko hori eskolaren inguruko ekintza eta helburu esanguratsuetan seme-alabekin berehala erabiltzeko. Izan ere, soilik era horretan lortuko dugu batzuekin eta besteekin egiten diren ahaleginak elkarren osagarri izatea eta sinergiak bateratzea.

Ildo horretatik, ohiko eskaintzez gain, berebiziko garrantzia izango dute ikastolan umeekin etapa bakoitzean lantzen diren materialekin eta programazioekin lotura zuzena duten euskara ikastaroek. Hartara, Ikastolaren jardueretara erakartzea lortuz gero, batetik, umeei hizkuntzaren erabileraren aldeko eredu ona eta indargarria suertatuko zaie eta, bestetik, gurasoei gertuagokoa egingo zaie seme-alaben hezkuntza-prozesua.

berebiziko garrantzia izango dute ikastolan umeekin etapa bakoitzean lantzen diren materialekin eta programazioekin lotura zuzena duten euskara ikastaroek

Oinarrizko erabiltzaile-mailari begira. Gurasoen inguruan ari garela, oso kontuan hartu beharko genuke euskararik ez dakiten guraso askoren kasua; seme-alabak euskaraz murgiltzeaz batera euskara ikasteari ekiten diote askok. Euren helburua, ordea, ez da EGAren pareko gaitasuna eskuratzea, baizik eta oinarrizko erabiltzailearen gaitasuna lortzea. Beraz, ahalik eta guraso gehien oinarrizko erabiltzaile izan dadin lehenetsi behar da ikastolako prestakuntza-planean, betiere, goragoko helbururik baztertu gabe.

Europako Markoaren erreferentzia harturik, A2 mailan kokatuko genuke bilatzen dugun oinarrizko lorpen-maila:

Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta

ahalik eta guraso gehien oinarrizko erabiltzaile izan dadin lehenetsi behar da ikastolako prestakuntza-planean, betiere, goragoko helbururik baztertu gabe

zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere.

• ***Hizkuntz jarreren inguruko prestakuntza***

Arestian esan dugunez, gizartearen eragin-moldea nolakoa den kontuan hartuta, hizkuntz normalizatzailearen rol bikoitza jokatu beharrean gara. Horrez gain, euskara ardatzat duen heziketa eleaniztuna arrakastaz sustatuko bada, gogoan izan behar dugu hizkuntzekiko jarrerak gurasoekin lantzea ere garrantzi handiko kontua dela. Beraz, ildo nagusi hauek landu beharko ditugu:

euskara ardatzat duen heziketa eleaniztuna arrakastaz sustatuko bada, gogoan izan behar dugu hizkuntzekiko jarrerak gurasoekin lantzea ere garrantzi handiko kontua dela

Euskara ondorengoei transmititzearen ardura bere egitea. Seme-alabek euskaraz egin dezaten gurasoen euskararekiko kontzientzia eta konpromisoa ez dira aski, baldin eta gurasoek ez badute euskara erabiltzen. Gurasoek, oro har, beren euskaramaila eta eredua edozein direla ere, etxeko hizkuntzari garrantzia handiagoa eman diezaioten eta erabil dezaten sustatu behar dugu.

Bestalde, hizkuntz eredu edo aldaera bakoitzaren erabilera-esparruak aitortu, bultzatu eta prestigiatu behar dira. Izan ere, eredu bat ez da bestea baino hobea, bata ez dago bestearen gainetik; bakoitzak bere erabilera-esparrua dauka, eta elkarri traba egiten edo elkar zapuzten ibili beharrean, bakoitzari berea aitortu eta hizkera eredu guztiak erabiltzeko motibazioa sustatu beharra dago; izan ere, euskararik txarrena egiten ez dena da.

Hizkuntz eta kultur aniztasuna aintzat hartzea. Horrekin batera, ikasle eleaniztunak hezi nahi ditugunez gero, hizkuntzen ba-

lio soziokulturala eta begirunea nabarmendu behar ditugu, eta euskara eta euskal kulturaren eta bestelako hizkuntzen eta kulturen arteko bizikidetza sustatu behar dugu, modu horretan hizkuntz eta kultur aniztasunak gizakion eta bizitzaren garapenerako duten garrantziaz jabetu gaitezen.

5.2.3. Ikasleak

Ikasleak dira, azken batean, Ikastoletan hartzen diren erabaki pedagogiko guztien jomuga; izan ere, erabaki pedagogiko horien ondorioz ikaskuntza-irakaskuntzen emaitzak hobetzea bilatzen dugu. Hala, bada, ikasleek komunikatzen ikasi konpetentzia egokia lortzea da dokumentu honetan jorratzen diren irizpide guztien helburua; beraz, erabaki guztien jomuga ikasleak badira eta ikasleen hizkuntz garapena ohiko hezkuntza-prozesuak bideratu behar badu —hizkuntz jarrerak barne—, ez dirudi zentzuzkoa ikasleentzako berariazko hizkuntz prestakuntza bat zehaztu behar izatea. Alabaina, batetik, gizartearen eragin-moldea eta testuinguru soziolinguistikoa zein diren ikusita eta, bestetik, ikastolen eguneroko praktikek erakusten digutenari erreparatuz gero, ezin uka bestelako ekintzabide osagarriak ere beharrezko direnik. Hartara, eskola-giroan hizkuntza lantzea eta erabiltzea helburu duten ikastaro eta saio osagarrien beharra gerta daiteke, besteak beste kasu hauetan:

eskola-giroan hizkuntza lantzea eta erabiltzea helburu duten ikastaro eta saio osagarrien beharra gerta daiteke, besteak beste kasu hauetan:

— Hizkuntz behar berezien kasuan

— Euskararen erabilera eta ukipen-orduak gehitzearren

— Hizkuntz gaitasuna egiaztatzeko agiri ofizial bat eskuratzearren

— **Hizkuntz behar berezien kasuan**. Bereziki eskolatze berantiarraren ondorioz hizkuntz gaitasuna indartzearren lagungarri suerta daitezkeen egitasmoak (ikastaro bereziak, mintza-saioak, autoikaskuntza-programak…).

— **Euskararen erabilera eta ukipen-orduak gehitzearren**. Euskalduntasun-maila apala edo oso txikia duten inguruneetan, eskola-orduez kanpoko ikastaroak edo komunikazioarekin zuzenean loturiko ekintza bereziak, ikasleek euskararekin ukipen-ordu gehiago izan ditzaten.

— **Hizkuntz gaitasuna egiaztatzeko agiri ofizial bat eskuratzearren**. Aurreko argudioari loturik, batetik, eta gizartearen eskakizunei erantzuteko, bestetik, bai euskaraz bai atzerriko hizkuntza batean gaitasun-mailaren bat etsamina ofizial baten bidez egiaztatzea helburu duten ekintzak.

Hizkuntz Proiektuak zedarritzen dituen markoak eta hemengo irizpideek aukera ezin hobea eskaintzen diote Ikastolari prestakuntza-plangintza iraunkor bat diseinatzeko eta hizkuntzen esku-hartze eremu bakoitzaren helburu jakin bati edo sustatu nahi den eraldaketari erantzuteko

5.3. Ikastolako prestakuntza-planaren beharra

Ikastolaren eremuak oso zabalak dira, eta ez da erraza eremu horietan guztietan jarduten duten partaide guztien hizkuntz beharrei erantzutea. Bestalde, esparru bakoitzak bere berezitasunak dituenez, hainbat oztopo gainditu beharko dugu: batetik, pedagogia aldetik (beharrak antzematea, diseinu eta erantzun pedagogikoa, kontestualizatua izatea...) eta, bestetik, antolaketa aldetik (planifikazioa, epeak, finantzabidea, hartzaile kopurua, emaileak...). Alabaina, koska horiek guztiak behar bezala bideratzeko, ikuspegi sistemiko batez behatu beharko dugu ikastolaren errealitate osoa; horretarako, bertan diren elementu guztiak identifikatu beharko ditugu, eta plangintza batean bistaratu beharko ditugu elementu horien arteko loturak, elkarreraginak eta beste. Hartara, Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak zedarritzen dituen markoak eta hemengo irizpideek aukera ezin hobea eskaintzen diote Ikastolari prestakuntza-plangintza iraunkor bat diseinatzeko eta hizkuntzen esku-hartze eremu bakoitzaren helburu jakin bati edo sustatu nahi den eraldaketari erantzuteko.

ikasto
itzako
ereHiz
kuntz
Proiek
tuagar
atzeko
gida

ikastola bakoitzak bere Hizkuntz Proiektua garatzeko gida

Atal honetan eskaintzen dira ikastola bakoitzak bere errealitateari eta kokaturik dagoen ingurune soziolinguistikoari egokitutako Hizkuntz Proiektua kudeatzeko ibilbidea, hori garatzeko orientabideak eta tresnak. Hauek dira, zehazki, atal honek landuko dituen gaiak:

- . Ikastolaren Hizkuntz Proiektua: kudeaketarako ibilbidea
- . Ikastola barruko esku-hartze eremuen deskribapena
- . Ikastolako hizkuntz plangintzaren oinarriak eta orientabideak
- . Esku-hartze eremuetan eragiteko orientabideak
- . Hizkuntz Proiektua kudeatzeko egitura eta zereginen proposamena
- . Hizkuntz Proiektua garatzeko, Ikastola sarearen zerbitzuak

6 ikastolaren Hizkuntz Proiektua: kudeaketarako ibilbidea

Ikastola bakoitzak martxan jarriko du bere Hizkuntz Proiektua garatzeko bost urteko iraupen ziklikoa izango duen ibilbidea.

Ibilbide horren urrats nagusiak bi alditan bereiziko dira:

- **Lehenengo ikasturtean** egitasmoa abiatzeko urrats nagusiak egingo dira:
  - — Ikastolako hezkuntza-eragile guztiekin Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-markoaren gaineko hausnarketa egin.
  - — Hizkuntz Proiektuaren beharra partekatu eta aurrerantzean urratu beharreko bidea elkarrekin adostu eta onartu.

— Ikastolako komunikazio-testuinguru osoa aztertu eta hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnosia egin.

— Ikastolaren Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idatzi.

— Diagnosian identifikatutako beharrei erantzuteko lau urterako plan estrategikoa idatzi.

— Plan estrategikoan jasotako helburuei erantzuteko urtebeterako plan zehatz bat -urteko plana- idatzi.

• **Bigarren ikasturtetik aurrera** egin beharrekoak errepikatu egingo dira lau ikasturtez:

— Urteroko plana aurrera eraman eta egindako lanen ondorioz, plan hori ebaluatu; hurrengo ikasturteko plana idatzi eta hasierako Hizkuntz Proiektua dokumentua osatu.

— Bosgarren ikasturtearen bukaeran plan estrategikoa ebaluatuko da eta ebaluazio horren arabera bigarren plan estrategiko bat idatzi ahal izango da, urratsen zikloa berriro abian jarriz.

6.1. Ibilbidearen sekuentzia grafikoa

Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak bizirik eta etengabeko eraldaketan dagoen egitasmoa beharko luke izan eta, horretarako, luzera begira diseinatutako plangintza behar du. Modu askotan bereiz daiteke ikastola batek bere Hizkuntz Proiektua eraikitzeko egin beharko lukeen ahalegina; hemen proposatzen den hau hamazazpi urrats nagusitan sailkatzen da.



12. irudia. Ibilbidearen sekuentzia grafikoa.

6.2. Ibilbidearen urratsak

6.2.1. Hausnarketa eta sozializazio-fasea (1. urratsa)

Fase honetan gaiarekiko sentsibilizazioa jorratuko da hezkuntza-komunitatearekin. Ikastolako zuzendaritzak Hizkuntz Proiektuaren beharra sumatu eta haren erreferentzia-markoa landu ondoren, horren gaineko hausnarketa-prozesuari hasiera emango dio ikastolako hezkuntza-eragile guztiekin. Lehen urrats horren helburuak Hizkuntz

Proiektuaren beharra partekatzea eta aurrerantzean urratu beharreko bidea elkarrekin adostea eta onartzea izango dira. Hausnarketa horretan Hizkuntz Proiektua abian jartzean, esparru hauetan izango duen eragina nabarmendu beharko da, besteak beste:

- Hizkuntza arloaren xedea, ardatz metodologikoa, hizkuntzen bateratzea, erabiltzen diren ikasmaterialak, helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen arteko osagarritasuna.
- Irakasle guztiak hizkuntz irakasle izan beharraren ildotik, beste arloetako hizkuntz beharren azterketa eta erabiltzen diren ikasmaterialak premia horiekiko egokiak diren hausnartzea.
- Ikasleen gaitasun komunikatiboa garatu ahal izateko gela barruko eta gelaz kanpoko interakzioa berrikustea eta hura aberasteko estrategiak bideratzea.
- Irakasleen prestakuntza: metodologia, hizkuntz hobekuntza eta hizkuntzekiko jarrera-ikastaroak.
- Ikastolako hizkuntz politika eta plangintza (gela barruan, gelatik kanpo eta eremu instituzionalean), hala nola, gelaz kanpoko jardueren hizkuntza (eredua, jarrera, prestakuntza…), ikastolako eraketa eta barne-komunikazioan erabilitako hizkuntza, kanpo-harremanetarako erabilitako hizkuntza.

1. urrats hau, Hizkuntz Proiektuaren beharra hezkuntza eragile guztiekin partekatzea, zuzendaritzaren zeregina izango da (ikus gida honen 11.2. atala).

6.2.2. Egoeraren diagnostikoa (2. urratsa)

Edozein plangintza diseinatu aurretik funtsezkoa da errealitatea ahalik eta ondoen behatzea. Beraz, ikastolako hizkuntzekiko esku-hartze eremu guztietan (eremu pedagogikoan eta instituzionalean) hizkuntzen erabilera eta trataeraren **diagnosia** egin beharra dago. Hiru fasetan egingo da:

1. fasea. Ikastolan egindako aurrelanak bildu
Hezkuntza Proiektuaren, barne-araudiaren, hizkuntz arloetako curriculum-proiektuen, eta antzerako dokumentuen hustuketa.

Euskararen erabilera-neurketak edo antzerako datuak.

2. fasea. Hizkuntzekiko esku-hartze eremuen araberako azterketa
Eremu pedagogikoaren nahiz instituzionalaren datuak bildu, informazio-bilketarako galdetegia eta bestelako tresnak aplikatuz.

3. fasea. Emaitzen ondorioak atera
Jasotako datuen arabera, ikastolaren hizkuntz egoeraren indarguneak, ahuleziak eta beharrak identifikatu eta gizarteratu.

Lan hori bere osotasunean hiruhileko zeregina izatea aurreikusten da; Hizkuntz Proiektua Taldea arituko da horretan, nahiz eta informazio-bilketaren garaian hezkuntza-eragile guztien parte-hartzea nahitaezkoa izango den.

6.2.2.1. Diagnosiaren 1. fasea

Ikastolako hezkuntza-prozesuekin eta hizkuntz politikarekin zerikusia duten dokumentuak arakatuko dira (hezkuntza-proiektua, curriculum-proiektua, barne-araudia, gestio-planak, ikastetxearen hizkuntz politika, bestelako ikerketa lanak…); batetik, ikastolaren egoera soziolinguistikoari buruz dauden datuak biltzeko eta, bestetik, Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-markoarekiko jada egiten diren planteamenduak, hartuta dauden erabakiak eta gainerakoak aztertzeko asmoz. Besteak beste, honako esparruetako datuak bilduko dira:

- Ingurune soziolinguistikoaren datuak
- Ikastolako euskararen erabilera dela-eta, ordura arteko neurketen emaitzak
- Hezkuntza, hizkuntza eta kulturari buruzko ikuspegia eta helburuak
- Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak eta aipamenak

6.2.2.2. Diagnosiaren 2. fasea

Diagnosiaren bigarren fasean, esku-hartze eremu guztien egoeraren datu zehatzagoak biltzeari edota esparru berriak aztertzeari ekingo zaio. Gela barruko eremuan, kudeaketa pedagogikoa nahiz interakzio didaktikoa atalak zehazki aztertzeko unea izango da. Besteak beste, honako esparru hauen egoerari buruz hausnartuko da: curriculum-proiektuen egokitasuna eta koherentzia, hizkuntzaren zehar-lerroen trataera, gelako komunikazioaren trataera didaktikoa, metodologiari dagokionez hizkuntzen arteko eta arlo guztien arteko koherentzia, irakasleen prestakuntza-planak eta abar.

Era berean, gelaz kanpoko eremua eta eremu instituzionala ere aztertuko dira, honako gaien inguruan adibidez: gelaz kanpoko hizkuntz erabilera, hezitzaileen hizkuntza eta metodologia-prestakuntza, edota eraketa eta barne-komunikazioan eta kanpo-harremanetan ikastolak elebitasunaren aurrean dituen hizkuntz ohiturak.

Azterketa lan hau egiteko, esku artean duzun dokumentu honek hainbat baliabide eskaintzen du: batetik, esku-hartze eremu guztien behaketarako tresna bilduma eskaintzen du (erantsitako CDa ikusi) eta tresnekin batera, nork bideratu beharko lukeen eta zein helbururekin egingo den iradokitzen da; bestetik, esku-hartze eremu guztien azterketarako eta haietan eragiteko hainbat orientabide eskaintzen du 10. atalean.

6.2.2.3. Diagnosiaren 3. fasea

Diagnosiaren urrats hauetatik ikastolako dokumentazio ofizialean jasotzen denaz eta esku-hartze eremu guztien gaineko egoeraz informazioaren hustuketa egingo da, horretarako eskainitako txantiloien bitartez (erantsitako CDa ikusi).

Diagnosiaren emaitzak ezaguturik, ondorioak ateratzeko unea iritsiko da. Hizkuntz Proiektuak finkatutako helburuak lortzeko ikastolak dituen gabeziak identifikatu behar dira. Horrela, ikastolaren eremu ba-

koitzeko indarguneak, ahuleziak eta beharrak jasoko dira, horretarako eskainitako txantiloia erabiliz (erantsitako CDa ikusi).

Txantiloi horretatik eratorritako informazioa izango da ikastolako errealitateari ateratako argazkia eta, urrats horren bukaera gisa, garrantzizkoa izango da errealitate hori gizarteratzea eta identifikatutako beharren inguruan ikastolako hezkuntza-eragile guztien adostasuna lortzea. Ikastolako komunitatean barneratutako dokumentu hori erreferentzia nagusi izango da Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoa sortzeko garaian.

2. urrats hori, diagnosia burutzea alegia, Hizkuntz Proiektua Taldearen egitekoa da (ikus gida honen 11.4. atala).

6.2.3. Hizkuntz Proiektuaren idazketa (3. urratsa)

Pauso honen azken emaitza ikastetxearen Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idazten hastea da. Dokumentu dinamiko eta bizia izan nahi du Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak; hortaz, kontuan hartu behar da bertsio hori hastapenekoa dela eta hurrengo ikasturteetan egingo diren ebaluazioen ostean urtero hainbat zehaztapen, zuzenketa eta egokitzapen jasoko dituela.

Erreferentzia-markoaren 3.5. atalean adierazten den moduan, Ikastolaren Hizkuntz Proiektua jasotzen duen dokumentuak **zortzi atal** bilduko ditu bere baitan:

- **Hizkuntz Proiektuaren definizioa eta ezaugarriak**

Erreferentzia-markoaren 3. atalean aipatzen direnak aztertu eta ikastolak bere egiten dituenak hautatu eta jasoko ditu atal horretan.

- **Hizkuntzekiko ikuspegia eta helburuak**

Erreferentzia-markoaren 2. atalean aipatzen direnak aztertu eta ikastolak bere egiten dituenak hautatu eta jasoko ditu atal horretan. Erreferentzia-markoan aipatzen diren hizkuntzekiko helburu orokorrak ikas-

tola guztientzat lotesleak direnez gero, Ikastola bakoitzaren Hizkuntz Proiektuan jaso beharko dira. Hauek dira helburu orokor horiek:

- Ikastolak bere ikasleei heziketa euskalduna eman nahi die, euskara ongi menderatuz, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta indartzearekin konpromisoa hartuz. Gauzak horrela, ikastolak euskal hiztunak hezi nahi ditu, etengabe eraginez euskararekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.
- Ikastolak Hezkuntza eta Hizkuntz Proiektuaren ardatza euskara duela pertsona euskaldun eleaniztunak hezi nahi ditu, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz.
- Ikastolak bere hezkuntza-komunitatearen barne-bizitza euskaraz gauzatu nahi du mota guztietako harremanetan, eta, horretarako, sortutako bitartekoetan euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu.
- Ikastolak euskararen normalizazioan eragile izan nahi du txertatuta dagoen komunitatean. Hartara, bestelako gizarte-eragileekin zein askotariko instituzioekin lankidetzan jarduteko borondatea du.

• Hizkuntz Proiektuaren oinarri teorikoak

Erreferentzia-markoaren 4. atala oinarritzat hartuta, ikastolak hizkuntzen trataerarekiko dituen printzipioak aztertu, hautatu eta atal honetan jasoko ditu.

• Hizkuntz plangintza

Atal hau osatzeko, gida honen 9. atala aztertu, bertan proposatzen dena ikastolak jada indarrean dituen erabakiekin erkatu, eta bien arteko koherentzia aztertu beharko da. Horretarako, kontuan hartuko

dira Hezkuntza Proiektuan, Idearіumean edo Ikastolako Curriculum Proiektuan idatzita dituen eta diagnosiaren 1. fasean bildu diren erabakiak edo planteamendu pedagogiko nahiz instituzionalak. Azterketa horren emaitzaren arabera, ikastolako erabakiak bere horretan utzi edo berridatzi egingo dira Hizkuntz Proiektuan biltzeko. Horrekin batera, diagnosiaren 2. urratsetik eratorritako informazioarekin osatuko da atal horren idazketa, formalki jaso gabeko hainbat erabaki eta jarraibide agerian geldituko baitira bertan.

• Prestakuntzarako irizpideak

Atal honetan, erreferentzia-markoaren 5. atala aztertu eta ikastolak bere egiten dituen printzipioak hautatu eta jasoko ditu.

• Hizkuntz Proiektua kudeatzeko ibilbidea

Gidaren 6. atalean proposatutakoa kontuan hartuz, ikastolak bere ibilbidea zehaztu eta jasoko du atal honetan.

• Hizkuntz Proiektuaren kudeaketarako egitura eta zereginak

Gidaren 11. atalean proposatzen direnak oinarritzat hartuz, ikastolak bere Hizkuntz Proiektua kudeatzeko egiturak definitu eta jasoko ditu atal honetan.

• Ikastolaren diagnosia eta plan estrategikoa

Atal hau bi txantiloik osatuko dute. Lehenengoa, Ikastolaren egoerari buruzko diagnosiaren 2. urratsetik eratorritako emaitzak bildu eta *ikastolako beharrak eta lehentasunak* jasotzen dituen txantiloia izango da. Bertan jasoko dira, beraz, ikastolak definitu dituen helburu eta oinarrizko adierazleekiko identifikatu diren ahuleziak eta indarguneak, bai eta hizkuntzen trataera dela-eta ikastolaren beharrak ere.

Bigarren txantiloia, berriz, Ikastolaren behar horiei erantzunez diseinatutako lau urterako plan estrategikoa izango da (ikus 6.2.4. atala).

3. urrats horren ardura, Hizkuntz Proiektua idaztearena alegia, Hizkuntz Proiektua Taldearen egitekoa da. Talde horrek idatzitako dokumentuaren lehen bertsioa zuzendaritzarekin kontrastatu beharko

du, oniritzia jaso dezan (ikus gida honen 11.2. eta 11.4. atalak). Garrantzitsua da, era berean, eginiko lanak ikastolako hezkuntza-komunitate osoaren onarpena izatea.

Lehen hiru urratsak (sentsibilizazioa, diagnosia eta Hizkuntz Proiektuaren lehen idazketa) ikasturteko lehen bi hiruhilekoetan burutu beharko dira, azken hiruhilekoa izan dadin egindako lan guztiaren ondorio-biltzaile (plan estrategikoa eta urteko plana).

6.2.4. Plan estrategikoa (4. urratsa)

Plan estrategikoa lau urterako ikastolak bere beharrei erantzuteko garatuko duen gestio-plana da. Zaila denez diagnosian identifikatutako behar guztiei aldi berean erantzun egokia ematea, ikastolak dituen beharren artean lehentasunak finkatu beharko dira. Gero, lehentasun estrategiko horiei aurre egin ahal izateko, hizkuntzen garapenean eta bereziki euskararen garapenean eta normalkuntzan gehien eragin dezaketen estrategiak definitu beharko dira, eta horiek aurrera eramateko plan zehatza eratu.

6.2.4.1. Plan estrategikoaren atalak

Dokumentu honek hizkuntzekin lotura duten esku-hartze eremu guztiak bilduko ditu. Eremu horietako bakoitzari dagozkion helburu estrategikoak definituko dira, eta lehentasun horiei helburu zehatzak eta horiek garatzeko jarduera estrategikoak zein ebaluazio-adierazleak finkatuko zaizkie. Helburu bakoitzaren bilakaerararen arduraduna zein izango den eta lanak zein epetan edo ikasturtetan burutuko diren ere aurreikusi beharko da.

Honako taula honetan plan estrategikoaren txantiloi eredua eskaintzen da, item bat erakutsiz. Plan estrategikoaren txantiloi osoa eranskin gisa ikus daiteke argitalpen honen amaieran.

HIZKUNTZ PLANGINTZA									
ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EPEA			
Hizkuntz plangintza									

6.2.4.2. Plan estrategikorako orientabideak

Esku-hartze eremu guztiak hartzen dituen plan estrategikoaren konplexutasuna ikusita, hori garatzeko bi laguntza mota eskaintzen dira: gida honen 10. ataleko orientabideak eta eranskin gisa eskaintzen den plan estrategikoaren eredu osatua. Azken horretan, planaren atal bakoitzaren idazketaren eredu garbiak finkatzeaz gain, esparruen baitako item bakoitzeko helburu zein jarduera edo ebaluazio-adierazleen adibide egokiak eskaintzeko ahalegina egin da. Hortaz, ereduan diagnosi-fasea egin ondorengo egoera estandar baterako hainbat orientabide aurkituko dira, nork bere errealitatearen arabera egokitu beharko dituenak.

Orientabide horien ondorioz hartzen diren erabakien aplikazioa, jarraipena eta balioespen/ebaluazioak ez dira hemen adierazi; norberak garatu beharrekoak izango dira.

Lan horretarako baliatuko da Ikastolen kolektiboak bere web-orrian, *www.ikastola.net,* eskaintzen duen aplikazio informatikoa.

4. urrats honetako plan estrategikoaren ardura zuzendaritza taldeak eta Hizkuntz Proiektua Taldeak izango dute. Hizkuntz Proiektua Taldeak plan estrategikoa idatzi eta proposatu egingo du eta zuzendaritzak haren onespena bideratuko du (ikus gida honen 11.2. eta 11.4. atalak).

6.2.5. Urteko plana (5. urratsa)

Lau urterako aurreikusitako plan estrategikotik urtebeterako hustuketa eginez osatuko dira urteko planak. Horien bitartez, progresiboki erantzungo litzaieke ikastolak antzeman dituen beharrei.

Dokumentu hau plan estrategikotik eratortzen da. Beraz, dokumentu honek ere hizkuntzekin lotura duten eragin-eremu guztiak bilduko ditu. Plan estrategikoko helburu zehatzetatik abiatuko gara, dagozkien ebaluazio-adierazle eta haiek garatzeko jarduera zehatzak planteatzeko garaian. Jarduera bakoitzaren bilakaeraren arduradunak zein izango diren eta horiek zein epetan burutuko diren aurreikusi beharko da. Urteko planari dagokion txantiloia argitalpen honi erantsitako CDan jasotzen da.

Lan horretarako, Ikastolen kolektiboak bere web-orrian, *www.ikastola.net,* eskaintzen duen aplikazio informatikoa baliatuko da.

Aurrekoan bezala, 5. urrats honen ardura ere zuzendaritza taldeak eta Hizkuntz Proiektua Taldeak izango dute. Hizkuntz Proiektua Taldeak urteko plana idatzi eta proposatu egingo du, eta zuzendaritzak haren onespena bideratuko du (ikus gida honen 11.2. eta 11.4. atalak).

4. eta 5. urratsok (plan estrategikoa eta urteko plana) hirugarren hiruhilekoaren maiatzerako egitea beharrezko ikusten da; izan ere, ekainean zuzendaritzak horren baitan antolatu beharko ditu prestakuntza, baliabideak, ordutegia eta abar.

6.2.6. Urteko memoria (6. urratsa)

Urteko planaren ebaluazio-prozesua da hau. Plangintza-fitxaren jarraipena egiten da urrats honetan. Urteko helburuak hiruhilean behin ebaluatu beharko lirateke eta urtean zehar lortutakoa balioetsi beharko litzateke. Ikasturteko planari egindako egokitzapenak agertu beharko lirateke dokumentu honetan.

Ebaluatzen diren atalak urteko plangintza-fitxatik eratorritakoak dira. Aldatzen direnak honakoak dira: ebaluazio-adierazleak (helburu eta jardueren lorpen-maila eta arrakasta zehazten dira sistemati-

zazioari begira) eta urteko lan-plangintza berrirako hobetzeko iradokizunak.

Lan horretarako Ikastolen kolektiboak bere web-orrian, *www.ikastola.net,* eskaintzen duen aplikazio informatikoa baliatuko da.

6. urrats honetan Hizkuntz Proiektua Taldearekin batera zuzendaritzak aritu beharko du (ikus gida honen 11.2. eta 11.4. atalak).

6.2.7. Hizkuntz Proiektua dokumentua eguneratzea (7. urratsa)

Lehen urtean gauzatutako lanaren arabera, ikastetxearen Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa eguneratu egin beharko du Hizkuntz Proiektu Taldeak, burutu berri den urteko memorian lortutako helburuen arabera.

7. urrats honetan egin beharreko lana teknikoa denez, Hizkuntz Proiektua Taldearen zeregina izango da (ikus gida honen 11.4. atala).

6.2.8. Urteko plana (8. urratsa)

Urteko plan berria idazteko garaian, bi dokumentu erabiliko dira: plan estrategikoa eta urteko memoria. Bi dokumentu horietatik eratorritako helburuei erantzun beharko zaie plan berria egiteko garaian. Lortu ez diren helburuak berriz aurreikusi beharko dira hurrengo honetan, eta aztertu egin beharko da zein diren lorpenak ez eskuratzeko arrazoiak.

Ohi bezala, 8. urrats honen ardura zuzendaritza taldeak eta Hizkuntz Proiektua Taldeak izango dute (ikus gida honen 11.2. eta 11.4. atalak).

6. urratsetik (urteko memoriatik) 8. urratserako (urteko plan berrirako) bidea lau aldiz errepikatuko da osorik, plan estrategikoaren iraungitze-data bitartean.

6.2.9. Plan estrategikoaren ebaluazioa (azken urratsa)

Lau urteko epealdiaren amaieran plan estrategikoa ebaluatuko da. Horretarako, lau urteetan egindako urteko memoriak eta plan estrategikoaren ebaluazio-adierazleak eskuratu, eta lau urte horietako helburuen lorpen-maila aztertu beharko da.

Horren ondoren, hasierako diagnosian identifikatutako beharrak eta lehentasunak berrikusi eta, agian, hainbat eremuren diagnosia (hots, 2. urratsa) berregin beharko da.

Azterketaren ostean, lehentasunak egokitu edo erabat berrituko dira; ibilbide ziklikoa berriro abian jarriko da, plan estrategiko berria idatziz.

Ondorioz, Ikastolaren Hizkuntz Proiektuak dagokion eguneratzea jasoko du. Lan horretarako, Ikastolen kolektiboak bere web-orrian, *www.ikastola.net,* eskaintzen duen aplikazio informatikoa baliatuko da.

Azken urrats honetan ere, Hizkuntz Proiektu Taldearekin batera zuzendaritzak aritu beharko du (ikus gida honen 11.2. eta 11.4. atalak).

7 ikastolaren komunikazio-testuinguruaren deskripzioa:

hizkuntzekiko esku-hartze eremuen zehaztapena

Hizkuntz Proiektuaren marko orokorra garatzeko orduan, ikastolako komunikazio-testuinguruan sorturiko “hizkuntzekiko esku-hartze eremuak”[24] izango ditugu helduleku. Arestian esan bezala, eremu horietako bakoitzak ezaugarri soziolinguistiko jakinak ditu eta hainbat arlo zabaltzen du hizkuntzen trataeran berariaz eragiteko. Arlo horiek sortutako aukerak ondo baliatu ahal izateko, ezinbestekoa da eremu bakoitzaren ezaugarriak xehatzea eta bakoitzeko lan-plangintza berezia garatzea.

[24] Ikus: 3.2. atala.

Hizkuntzekiko esku-hartze eremuen deskripzio xehea zein haiekiko plangintza gauzatuko da hezkuntza-erakunde bakoitzeko Hezkuntza Proiektuaren xedeei eta oinarriei erantzunez. Hots, bakoitzaren egoerara egokitzerakoan, zehaztutako eremuen pisua eta barne-sailkapena desberdinak gerta daitezke, bai eta garatutako lan-plangintza ere. Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren kasuan, berezko hezkuntza- eta eskola-ereduei erantzunez egin da erreferentzia-marko horrek proposatzen duen sailkapena; beheko taulan laburtzen saiatu gara. Taula horretan jasotako deskribapenak gidatuko ditu lan honen hemendik aurrerako azalpen guztiak eta, bereziki, Hizkuntz Proiektuaren plangintzarako eskainiko diren orientabideak. Proposamen horren argira, ikastola bakoitzak (edo bestelako hezkuntza-erakunderen batek) bere egoerari egokitutako berezko deskribapen-taula egin dezake, atal jakinen garrantzi-mailak aldatuz edo hemen aurreikusi gabeko beste batzuk gehituz.

Hona hemen hizkuntzekiko esku-hartze eremuen sailkapen zehatza:

HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK

HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Hizkuntz Proiektua eta Hizkuntz Plangintza

EREMU PEDAGOGIKOA

GELA BARRUKOA

KUDEAKETA PEDAGOGIKOA

1 HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA

- o Hizkuntza arloaren kudeaketa
- o Helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak

2 BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK

- o Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak (hizkuntzen trataera instrumentala).

3. PROIEKTU OSAGARRIAK

- o Zehar-lerroen hizkuntz trataera
- o Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak

4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

- o Hizkuntz hobekuntza
- o Arloko metodologia eta didaktika
- o Hizkuntzekiko jarrerak

5. BALIABIDEAK

- o Arlo bakoitzeko ikasmaterialak
- o Espazioen banaketa eta hizkuntz trataera
- o Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza

INTERAKZIO DIDAKTIKOA

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- o Arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza
- o Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera
- o Ikasleen arteko hizkuntz erabilera

2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA

- o Komunikazio-egoera esanguratsuak
- o Taldekatze motak eta irizpideak

GELAZ KANPOKOA

(jolasaldiak, kirol ekintzak, jantokia, garraioa, irteerak eta abar)

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- o Hezitzaileen hizkuntz erabilera
- o Hezitzaile-ikasle arteko hizkuntz erabilera
- o Ikasleen arteko hizkuntz erabilera

2. METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA

- o Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak

3. HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA

- o Hizkuntz hobekuntza
- o Jardueraren metodologia
- o Hizkuntzekiko jarrerak

4. BALIABIDEAK

- o Gune eta zerbitzuetako baliabideen hizkuntz trataera

EREMU INSTITUZIONALA

ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA

IKASTETXEA

1.HIZKUNTZ ERABILERA

- o Gobernu, administrazio eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta trataera
- o Langileen hizkuntz profila
- o Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak

2. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

- o Hizkuntz hobekuntza
- o Hizkuntzekiko jarrerak

3. BALIABIDEAK

- o Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz trataera
- o IKT euskarrien hizkuntz trataera.
- o Ikastolako espazioen hizkuntz trataera

FAMILIA

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- o Familien hizkuntz tipologia
- o Familia barruko hizkuntz erabilera
- o Ikastolen eta gurasoen arteko harremanak

2. GURASOEN PRESTAKUNTZA

- o Hizkuntz hobekuntza
- o Hizkuntzekiko jarrerak

3. BALIABIDEAK

- o Komunikazio baliabideak: aldizkariak eta abar

KANPO-HARREMANAK

(beste ikastetxeak, gizarte-elkarteak, udalak eta herri-erakundeak, hornitzaileak)

1. HIZKUNTZ ERABILERA

- o Harremanetarako hizkuntz irizpideak.

2. ERABILERA EREMUEN SUSTAPENA

- o Harreman-sareak indartzea
- o Euskal kultur ekintzak bultzatzea
- o Euskarazko ekintzak bultzatzea.

8 hezkuntza proiektua iturburu

Ikastolak hezkuntzarekiko eta hizkuntzekiko dituen xedea eta ikuspegiak Hezkuntza Proiektuan jasotzen direnez gero, Hizkuntz Proiektuan hartuko diren erabaki guztiak baldintzatzen ditu. Beraz, Hezkuntza Proiektua izango da edozein hizkuntz proiekturen iturburua.

9 hizkuntz plangintza[25]

9.1. Hizkuntz plangintzaren oinarriak[26]

Erreferentzia-markoaren ataletan jasotako hezkuntza-ikuspegiak eragin zuzena izango du Ikastolen hizkuntz ereduan nahiz hizkuntz plangintzan; horren isla da, hain zuzen ere, Ikastolek euskaran ardaztutako eleaniztasunaren alde egindako hautua (ikus 2.2.2 eta 4.4.2 atalak).

Eleaniztasun-eredu horrek, 2.2.2 atalean azaldu bezala, hizkuntza bakoitzeko lorpen-maila jakinak bilatzen ditu: batetik, derrigorrezko eskolaldiaren amaierarako, nahitaezkoa izango da euskara eta harremanetarako hizkuntza (gaztelania edo frantsesa, kasuaren arabera) ondo menderatzea (bere kasako erabiltzailea: B2 maila); bestalde, hirugarren hizkuntzaren maila baxuagoa eskatuko da (bere kasako erabiltzailea: B1 maila); eta, azkenik, oinarrizko maila eskatuko da (oinarrizko erabiltzailea: A2 maila), Euskal Herriko harremanetarako beste hizkuntzan (frantsesa edo gaztelania, kasuaren arabera).

Ikastolak, beraz, hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko eta ikasteko aukera bermatu beharko du; ondorioz, hezkuntza-komunitatearen harremanak zein ikaskuntza-prozesua bera ere arautu egin beharko dira helburu hori ziurtatu ahal izateko. Horretarako, hizkuntza bakoitzak ikastola barruan izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak de-

[25] Hizkuntz Plangintza: hezkuntza-erakundearen jarduera-eremu askotarikoetan hizkuntza bakoitzaren rola zehazten duen erabakien eta planteamenduen bilduma.
[26] Atal hau garatzeko honako dokumentuak erabili dira: A. A. (2006) eta Amondarain eta beste batzuk (2002).

finitu beharko dira, eta hizkuntza bakoitzaren irakaskuntza noiz hasiko den eta ordutegian zein pisu izango duen zehaztu beharko da.

Erabaki horiek hartzeko garaian, ezinbestekoa izango da kontuan izatea hizkuntza bakoitzaren egoera soziolinguistikoa nahiz euskararen normalkuntzaren esparrutik datozen ekarpenak; izan ere, horrela bideratu ahal izango dugu euskararen garapena eta normalizazioa oztopatzen ez duen eta, beraz, euskaran ardatz duen hizkuntz eredu eleaniztuna.

9.1.1. Hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa ikastolako eremuetan

Hizkuntza bakoitzak ikastola barruan izango duen erabilera-eremua eta funtzioa finkatze aldera, honako hau da Ikastolen Hizkuntz Proiektuak egiten duen proposamena:

2. taula. Komunikazio-eremuak eta hizkuntzen banaketa.

EREMUAK		HIZKUNTZAK				
		EUSKARA	GAZTELANIA/ FRANTSESA	HIRUGARREN HIZKUNTZA	LAUGARREN HIZKUNTZA	BESTE
PEDAGOGIKOA	GELA BARRUKOA	X	X	X	X	X
	GELAZ KANPOKOA	X	X*	X	X	X
INSTITUZIONALA	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA	X	X*			
	KANPO-HARREMANAK	X	X*			

X* Ikastolaren ingurune soziolinguistikoaren arabera, eremu honetan gaztelaniak edo frantsesak izango duen tokia zehaztu beharko da.
X Atzerriko hizkuntzek eremu honetan izango duten tokia zehaztu beharko da, betiere, ikastolaren ingurune soziolinguistikoa eta hizkuntza horiek indartzeko beharra (halakorik balego) orekatuz.

Ondorengo tauletan, gela barruko nahiz gelaz kanpoko eremuetarako orientabideak eskaintzen dira. Gela barruko eremuari dagokionez, 3. taulak Ikastolek[27] hizkuntza bakoitzari eskaintzen dioten ordutegia eta hizkuntza bakoitzaren irakaskuntzarako hasierako adina azaltzen du.

[27] Ordutegi horrek Hegoaldeko Ikastolen egoera soilik jasotzen du.

4. taulak, berriz, gelaz kanpoko eremuan hizkuntza bakoitzak izan dezakeen lekua eta funtzioa definitzeko proposamenak ageri dira.

3. taula. Hizkuntzen irakaskuntzarako ordutegia eta hasierako adina.

Maila		ADINA	EUSKARA	GAZTELANIA	ENGLISH	FRANÇAIS
HH	1	3-4	**X***			
	2	4-5	**X***		X (2.5o.)	
	3	5-6	**X***		X (2.5 o.)	
	1	6-7	**X***	*x**	X (3 o.)	
	2	7-8	**X***	*x**	X (3 o.)	
LH	3	8-9	**X***	X (3 o.)	X (3 o.)	
	4	9-10	**X***	X (3 o.)	X (3 o.)	
	5	10-11	**X***	X (3 o.)	X (3 o.)	
	6	11-12	**X***	X (3 o.)	X (3 o.)	
	1	12-13	X (3 o.)	X (3 o.)	X (4 o.)	X (2 o.)
	2	13-14	X (3 o.)	X (3 o.)	X (4 o.)	X (2 o.)
DBH	3	14-15	X (3 o.)	X (3 o.)	X (5 o)	X (2 o.)
	4	15-16	X (3 o.)	X (3 o.)	X (5 o) (2 h. Eng. -3 h. Social S.)	X (2 o.)
HIZKUNTZA BAKOITZAK DUEN DENBORA: %			Euskara(z): 75,72	**8,86**	**12,12**	**3,80**

X* Globalizatua.
*x** Gaztelaniaren sarrera, batez ere hizkuntza nagusi gisa euskara duten haurrentzat (bai familian bai inguruko gizartean).

4. taula. Gelaz kanpoko eremuan hizkuntzen banaketa.

GELAZ KANPOKOA	HIZKUNTZAK				
	EUSKARA	GAZTELANIA/ FRANTSESA	HIRUGARREN HIZKUNTZA	LAUGARREN HIZKUNTZA	BESTE
JOLASALDIAK	X				
JANTOKIA	X				
GARRAIOA	X				
SARRERA –IRTEERAK	X				
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK (ikastola eragile denean)	X	X*	X	X	X
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK (ikastola eragile ez denean)	X	X*	X	X	X
IRTEERAK, EGONALDIAK ETA KANPALDIAK	X	X	X	X	X
JAI-OSPAKIZUNAK	X	X	X	X	X

X* Ikastolaren ingurune soziolinguistikoaren arabera, eremu horretan gaztelaniak edo frantsesak izango duen presentzia arautu beharko da eta, ezinezko balitz, konpromisoak hartzera bultzatu.
X Beste hizkuntzek eremu horretan izango duten tokia zehaztu beharko da, beti ere, ikastolaren ingurune soziolinguistikoa eta hizkuntza horiek indartzeko beharra (halakorik balego) orekatuz.

Beheko taulan, eremu instituzionalean hizkuntza bakoitzak izan ditzakeen lekua eta funtzioa definitzeko orientabideak ageri dira.

5. taula. Eremu instituzionalean hizkuntzen banaketa.

EREMUAK INSTITUZIONALA		HIZKUNTZAK				
		EUSKARA	GAZTELANIA/ FRANTSESA	HIRUGARREN HIZKUNTZA	LAUGARREN HIZKUNTZA	BESTE
ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA	GOBERNU-ADMINISTRAZIO-, ETA FUNTZIONAMENDU-ORGANOEN HIZKUNTZA	X	X*			
	HIZKUNTZEN TRATAERARI BURUZKO ERABAKIAK BILTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK	X	X			
	HEZITZAILE EZ DIREN LANGILEEN HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA	X				
	EKONOMIA- ETA ADMINISTRAZIO -DOKUMENTAZIOA	X	X			
	IKT EUSKARRIEN HIZKUNTZ TRATAERA	X	X	X	X	
	IKASTOLAKO ESPAZIOEN HIZKUNTZ TRATAERA	X	X!	X!	X!	X!
X* Ikastolako ingurune soziolinguistikoaren arabera, eremu honetan gaztelaniak edo frantsesak izango duen presentzia arautu beharko da eta ezinezkoa balitz konpromisoak hartzera bultzatu. X Ikastolako ingurune soziolinguistikoaren arabera eta dokumentazioak beteko duen funtzioaren arabera, gaztelaniaren edo frantsesaren idatzizko erabileraren zenbatekoa eta nolakotasuna arautu beharko da. X! Ingurune soziolinguistikoa, hizkuntza gelak, espazioen erabilera eta izaera, adina eta gurasoekiko loturak kontuan hartuta definituko da.						
FAMILIA	FAMILIA BARRUKO HIZKUNTZA	X	X	X	X	X
	IKASTOLAREN ETA GURASOEN ARTEKO HARREMANAK	X	X*			
	GURASOEN HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA	X				
X* Familia-tipologien arabera eta hiztun motak kontuan hartuta finkatuko da harreman hizkuntza. Erabakia ez litzateke behin betikoa izan behar, aldatzeko konpromisoetan oinarritutakoa baizik. X Elkarren arteko errespetuan oinarrituz, hizkuntzaren transmisioan familiaren garrantziaz hausnarketa egiteko eta eragiteko bideak jorratu beharko dira.						
KANPO HARREMANAK	BESTE IKASTETXEEKIKO HARREMANAK	X				
	GIZARTE-ELKARTEEKIKO HARREMANAK	X	X*			
	UDAL ETA HERRI-ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK	X				
	HORNITZAILEEKIKO HARREMANAK	X	X*			
Ikastolaren ingurune soziolinguistikoaren arabera, eremu horretan gaztelaniak edo frantsesak izango duen presentzia arautu beharko da eta, ezinezkoa balitz, konpromisoak hartzera bultzatu.						

Aurreko tauletan ikastolan erabiliko diren hizkuntzen antolaketa eta plangintza orokorrerako proposamena egiten da; horretaz gain, ordea, ikastolaren hizkuntz plangintzan badira kontuan hartu beharreko esparru zehatzago batzuk, hala nola, euskararen erregistroen trataera zein izango den, eskolatze berantiarra duten ikasleen hizkuntz beharrei nola erantzun, edota horrek dakarren hizkuntz aniztasuna nola integratu. Segidako ataletan jasotzen dira bi esparru horietarako orientabideak.

9.1.2. Hizkuntz erregistroen trataera[28]

9.1.2.1. Hizkuntz erregistroen mailakatzea

Ikasleen adina eta inguruko gizartearen euskalduntasun-gradua kontuan hartuz, erabaki beharko dugu zein hizkuntz eredu (ez formalerako eta formalerako) lehenetsiko dugun.

Beherago eskainiko den taulan hainbat bide dago aukeran, Ikastola bakoitzak bere burua kokatu dezan ingurune soziolinguistikoaren arabera; hain zuzen, bere ingurunetik hartzen dituen euskaldunen ehunekoaren arabera. Beheko taulan erakusten da hizkuntz eredua nola bilakatuko litzatekeen etapetan zehar; lehenengo urteetan ahozko erregistro ez-formal/familiar bat eskainiko diegu ikasleei Ikastolaren jarduera guztietan (gela barruko nahiz gelaz kanpoko eremuan); gero, zenbat eta aurreratuagoa izan etapa, orduan eta eredu jasoagoa landu beharko dute ikasleek eremu formalean.

Taularen goiko aldean ikasle euskaldunen ehunekoa jarri da; hau da, gela batean, etxetik euskaldun diren umeen ehunekoaren arabera, era batera edo beste batera jokatzea proposatzen da. Barrualdeko laukietan, berriz, *eusk*. jarri denean, euskalkia, eskualdeko edo herriko hizkera esan nahi da; *batua* jarri denean, ostera, euskara estandarraren kontzepzio zabala ulertu behar da, hau da, euskalkiaren edo inguruko gizartearen euskararen ezaugarriak eta bereizgarriak biltzen dituen eredu estandarra.

[28] Ikus: Barrios, Osa, Muñoa, Elorza, eta Boan (2008).

6. taula. Erregistro ez-formalak eta formalak gauzatzeko hizkuntz ereduak

ERREGISTRO EZ-FORMALAK ETA FORMALAK GAUZATZEKO HIZKUNTZ EREDUAK

		% 0-20 eusk. A		% 20-40 eusk. B		% 40-60 eusk. C		% 60-80 eusk. D		% 80-100 eusk. E	
Haur Hezkuntza	0-3 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	(1)	Eusk.	(1)	Eusk.	(1)	Eusk.	(1)	Eusk.	(1)
	3-6 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	(2)	Eusk.	(2)	Eusk.	(2)	Eusk.	(2)	Eusk.	(2)
Lehen Hezkuntza	6-8 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / . Eusk	Batua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua
	8-10 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua
	10-12 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Landua	Eusk.	Landua
DBH	12-14 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / . Eusk	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Landua
	14-16 urte	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.	Inform.	Form.
		Batua / Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua	Eusk.	Batua

Erregistro familiarra erabiliko da, beti ere, ahozko kodean. Hortik aurrerako etapetan erregistro familiarra dagokion ahozko esparru ez-formalean erabiliko da.

(1) Esparru ez-formala da, ludikoa, afektiboa eta, beraz, eredu familiarra erabiltzeko modukoa.

(2) Ziklo honetan aurrera egin ahala, ez-formaletik formalera igarotzen hasiko gara eta, beraz, eredu familiarretik ez-familiarrera, tokiko hizkeratik eredu landura.

9.1.2.2. Erregistro formalak eta ez-formalak Ikastolako eremuetan

Esku-hartze eremuen banaketari begira, zehaztu behar da noiz erabili aldaera ez formal/familiarra eta noiz ez. Gai konplexua izanik, segidan, arlo bakoitzeko irizpide orokor batzuk ematen saiatuko gara; badakigu etorkizunean hobetu, zehaztu eta findu beharreko irizpideak direla.

Eremu pedagogikoari dagokionez, gelaz kanpoko eremua esparru egokia da hizkuntzaren erabilera ez-formalerako.

Gela barruan, berriz, den-dena ez da formala. Ikasgela barruko jardueran, esaterako, ikasketa kooperatiboa bultzatzen denean, eta gelako jarduerak taldeetan egin ostean irakaslearen aurrean azalpenak eman behar direnean, hortxe berean ari gara ikasleak jartzen formaltasun aldetik egoera desberdinetan. Taldean egin beharreko lan hori hizkera-eredu ez-formalean egitea da zentzuzkoena; geroxeago, paperean jartzean kodez aldatuko dira; eta, azkenik, euren erabakiak aurkezteko garaian, berriz, hizkera eredu formala erabili beharko genuke; izan ere, ahoz esateko prestatutako testu idatzia da, kode mistokoa, hain zuzen.

Beraz, gela barruko hainbat egoera, ataza eta jarduera, osorik ez bada ere, zati batean hizkuntzaren erabilera ez-formalari dagozkio. Egoera horiei etekina ateratzea litzateke kontua, ikasleak jabetu daitezen noiz egin hizkuntzaren erabilera formala eta noiz ez-formala.

Gelaz kanpoko eremuan, jolasaldietan, ez genuke dudarik izango eredu familiarra erabiltzeko; era berean egingo genuke jantokian eta garraioan. Eskolaz kanpoko ekintzetan, berriz, ekintza motaren arabera erabaki beharko da bata ala bestea erabili. Gainera, begiraleen hizkuntz erabilerari ere erreparatu behar zaio arlo horretan. Irakasleen arteko hizkuntz ekintzetan, halaber, askotariko egoerak izango dira formaltasun-mailaren arabera; esaterako, mintegia, klaustroa, atsedenaldia eta abar. Halakoetan gogoan izan behar dugu ohikoa dela erregistro aldaketa harremanaren, konfiantzaren eta gaiaren arabera.

Eremu instituzionalean, batetik, eta ikastetxearen antolaketan, bestetik, harremanak ditugu arlo nagusi. Ikastetxearen antolaketari erreparatzen hasita, lehen begiratuan, badirudi erabilera formalerako esparrua dela; beraz, aldaera estandarra erabili beharko litzateke zeregin horietan. Hala ere, idatziz erabili beharreko eredua baino malguago bat erabil daiteke ahoz, betiere testuingurua kontuan hartuz.

Harremanetarako, halaber, familia-tipologia kontuan hartzea ezinbestekoa da haiekin izan beharreko harreman-hizkuntza hautatzean. Izan ere, egoera formala da, aldaera estandarra erabiltzeko modukoa, denok ulertzeko modukoa, eta inguruko hizkeraren ezaugarriak biltzen dituena. Gurasoekin izaten ditugun harremanetan, gurasoek sentitu behar dute eskolako hizkera ez dagoela hain urrun euren hizkeratik eta, horrenbestez, solaskideak ezagutu ostean haien ezaugarrietara egokitu beharko gara.

Gizartearekiko harremanetan, gure ustez, erakundeak udalerrikoak, eskualde edo bailarakoak, lurraldekoak edo lurralde-artekoak diren ikusi beharko da, eta horren arabera erabakiko da zer eredu erabili. Irizpide orokor gisa, erregistroei buruzko atalean aipatu ditugunak hartu beharko dira aintzat eta, azken batean, hiztun bakoitzak egoeraren eta aukeran dituen erregistroen arabera naturaltasunez egiten duena erabili beharko da.

9.1.3. Eskolatze berantiarraren erronka

Hizkuntz plangintzak garatzeko garaian, kontuan hartu beharreko beste aldagai bat izango dira eskolatze berantiarrarekiko irizpideak.

Gizartearen egungo migrazio-mugimenduen ondorioz, gero eta gehiago dira eskolatze-prozesua jatorrizko herrialdean hasi eta, gehienetan, ikasturtea hasita dagoela eskolatze hori beste lurralde batean jarraitzen duten ikasleak. Eskolatze goiztiarraren kasuan, etorri berri diren ikasleen integrazioa kasu gehienetan era naturalean gertatzen da, baina, eskolatze berantiarra konplexuagoa izan ohi da. Izan ere, hizkuntzari eta eskolatzeari dagokienez, ikasle horien artean as-

kotariko egoerak topatuko ditugu: batzuk, aldez aurretik eskolan aritutakoak eta jatorrizko hizkuntza gehiago garatu dutenak izango dira; beste batzuk, eskolan inoiz aritu gabekoak; batzuek kultur input aberatsagoa izango dute, eta besteek eskasagoa; batzuek euren ama hizkuntzaz gain atzerriko hizkuntza bat ekarriko dute, baina beste batzuek ez …

Egoera hori kudeatzeko, hau da, aniztasuna kudeatzeko, Hizkuntz Proiektuak hainbat erabaki eta irizpide markatzen lagunduko du; hortaz, erreferentziazko dokumentua izango da, baldin eta garatu beharreko ikastolako hizkuntzen markoa aldez aurretik behar bezala lantzen bada eta aniztasun egoera hori kontuan hartzen duen plangintza garatuta baldin badago. Markatutako irizpide horiek guztiak ikuspegi barne-hartzailearekiko koherentzian jarri beharko dira, ez dezagun eman kontraesankorra den pausorik. Egoera horietatik guztietatik abiatuta, irizpide komun batzuk finkatu beharko dira hezkuntza-proiektuan, curriculum-proiektuan eta hizkuntz plangintzetan.

9.1.3.1. Hizkuntz plangintza

Garbi eduki behar da hizkuntza dela integraziorako euskarri nagusia, gizarteratzeko tresna. Eta horrekin batera, argi eduki behar da zer eskola-eredu garen eta zer hezkuntza-erreferentzia ditugun. Ikastolok euskara dugu ardatz eta, ondorioz, ikastolara iritsitako ikasle berriek garaiz jakin beharko dute zein diren ikastola-ereduaren printzipio nagusiak. Aukerak garaiz landu beharko dira familia etorri berriarekin eta haien seme-alabekin. Gaur Euskal Herrian euskararik ez dakienak ez luke sarbiderik izango herri honetako kultur aberastasunaren zati funtsezko batean, eta ez litzateke euskal gizartean integratuko. Bizi garen gizartean euskararen jabe izateak bermatzen du besteek dituzten aukera berdinak izatea. Beraz, edozein delarik ere ingurune soziolinguistikoa, ikasle etorkinak euskara izango du komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza lehentasunez, ikastolak ziurtatu beharreko oinarrizko maila lortzeko. Horrek ez du kentzen zenbaitetan, eta egoera zehatzetan, egokitzapenak egin beharra eta malguago jokatu beharra.

Bestalde, ingurune soziolinguistikoari eta ikaslearen jatorriari erreparatuta erabaki beharko dugu zein aitortza egingo diogun gaztelaniari (edo frantsesari), zein izango den hizkuntza horretan finkatuko ditugun oinarrizkoak, eta zein baliabide jarri beharko dugun hori lortzeko.

Atzerriko hizkuntzari dagokionez, aztertu beharko dugu ikasleak ingelesaren eta frantsesaren (edo gaztelaniaren) gaineko ezagutzarik duen; izan ere, helduleku interesgarria litzateke hori ikaslearen integraziorako. Eskolako hirugarren hizkuntza hori ezagutuko balu, ezagutza horiek indartu eta errekonozitu egin beharko litzaizkioke, bere eskolaldirako motibazio bat gehiago izan dadin. Egoera horretan, gainera, testuinguru motibagarriak proposatu beharko litzaizkioke ezagutzen duenetik euskarara eta gaztelaniara ekarpenak eta transferentzia automatikoak egiteko. Eta ezagutuko ez balu, berdinen arteko egoera errealean aurkituko litzateke eskola-testuinguruan, laugarren hizkuntzan, bederen.

9.1.3.2. Curriculumaren egokitzapena, konpetentziei begira

Ikasle berantiarraren garapen osoaren bila, irakasle talde osoak diziplina arteko oinarrizko konpetentziak adostu beharko ditu. Gela barruan egingo den lana lortu beharreko gutxieneko maila horrekiko bideratuko litzateke. Horrenbestez, hizkuntz arloa diziplina arteko oinarrizko konpetentzien zerbitzura jarriko da, curriculum bateratutik abiatuta hizkuntza bakoitzean garatu beharreko konpetentziak finkatuz. Lan hori egiteko ezinbesteko erreferentzia da *Euskal Curriculuma*; era berean, eredugarri dira atzerriko hizkuntzak irakasteko nahiz beste arloen hizkuntz beharrei erantzuteko sortutako baliabideak.

Horren guztiaren harira, ikastolako curriculum-proiektua konpetentzien hezkuntzari begira behar bezala aztertu, arakatu, landu, proposatu eta eguneratu beharko da, betiere diziplinartekotasuna bermatuz. Ahalegin horretan, gainera, gizarte-inguruneari dagozkion elementuak ere aurreikusi beharko dira, eta curriculum-proposameneean txertatu. Adibidez, kulturartekotasunaren hezkuntzak garapena izan dezake dimentsio artistikoaren aukera jorratuz; izan ere, artea da erai-

kitzeko eta sortzeko elementu nagusienetakoa eta herri-kulturaren oinarrizko adierazpena. Hori izan daiteke jatorrizko hizkuntzari eta kultur aniztasunari ateak eta eremuak irekitzeko bidea, benetan barnean sartzeko aitzakia.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartuko dute egoeraren arabera ikasleen ikaskuntza eta garapena bultzatuko duten elkarreraginezko askotariko testuinguruek eta horiek ustiatzeko metodologia-ildo egokiek. Hemen ere, lagungarri izan daiteke CLIL (ikus 4.4.2. atala) moduko planteamenduen bidea.

Curriculum-proiektua ildo horietan adostu eta gero, irakasle taldeak balioetsi beharko du erdietsi beharreko konpetentziei begira, zer baliabide izango duen, ikasleak laguntzarik beharko duen, eta zer motakoa beharko lukeen (gelatik kanpo noiz eta zertarako). Alegia, beharren arabera moldatu beharko da gelaren antolaketa eta baliabideen antolaketa; funtzionaltasuna bilatu beharko da.

9.1.3.3. Aniztasunaren ekarpena ikasle guztien hezkuntza-prozesuan

Hezkuntza-konpetentzia orokorren lanketara bideratutako lanean, ekarpen aberasgarria egin digute beste kultura eta hizkuntza batzuen jabe diren ikasleek; izan ere, bideak irekitzen dizkigute “elkarrekin bizitzen ikasi” eta “norbera izaten ikasi” konpetentzietan garrantzizkoa den osagai baterako, hau da, kulturartekotasunerako. Kulturarteko hezkuntzak bost dimentsio hartzen ditu bere baitan (Banks, 1995):

- Hainbat kulturatako edukiak modu orokorrean integratu diziplina arteko eremuan.
- Jarrera baikorrak landu etnia, kultura eta arrazekiko aurreiritziak gutxitzeko.
- Zuzentasunaren pedagogia finkatu, ikasle talde osoaren arrakasta akademikoa bultzatzeko.
- Etnia, kultura eta gizatalde anitzeko ikasleen estatus berdintasuna landu, horretarako eskola-kultura eta egitura egokiak finkatuz.

- Ikasleek dakarten esperientziatik ezagutzak eraiki (inputak aprobetxatu)

Bost alderdi horiek kontuan hartuta, identifikatu beharko dugu gelako ikasleek zerekiko duten abiapuntu berdintsua, eta adostu beharko ditugu ikasle guztiei komunak zaizkien esparruak (balioen lanketa, kultur ikuspegi desberdinen ekarpenak eta abar) eta baita horiek garatzeko uneak eta prozedurak ere.

> *"No se trata de hacer nada extraordinario, sino de aprovechar los potenciales ya existentes para transformar el centro educativo en un espacio para todo el mundo" (Essomba, 2006, 92. or.).*

Era berean jokatu beharko da ikasleak jatorriz dakarren hizkuntzarekin. Aurreikusi eta landu beharko da noiz eta nola eman aukera gela barruan eta ikastolan jatorrizko hizkuntza horri. Familiarekin ere landu beharko da ikuspegi hori, tokian tokiko hizkuntza berriak ez ditzaten ikusi jatorrizko hizkuntzarekiko mehatxutzat, aukeratzat baizik.

9.1.3.4. Gelaz kanpoko eremuaren garrantzia

Gelaz kanpoko jardunari dagokionez, gela barrurako hartutako erabakiekin koherentzian jokatu beharko dugu. Eremu horrek bi helburu izango ditu ikasle etorri berriarekiko: batetik, eta edozein dela ere ingurune soziolinguistikoa, euskara egoera informaletarako ere baliagarri dela aitortzea, eta ikasleari gelaz kanpoko jardunerako behar duen hizkuntz errepertorioa eskaintzea; bestetik, etorri berriaren integrazioa eta taldearen kohesioa.

9.1.3.5. Gizartearengan eragina

Kulturartekotasuna eta gizarte-kohesioa garatzea Ikastolen erronka izateaz gain, zeregin horiek guztionak dira eta beraz, gizartearengan eragin beharra dago. Ikastolak, prozesu horietan erabateko inplikazioa duten erakundeekin elkarlanean jardun beharko du: Hezkuntza Sailarekin (integrazio-politika egokia planteatuz, curriculum-proposamenetan tresna koherenteak eta laguntzak eskainiz, baliabide ekonomikoekin lagunduz eta abar), udaletako gizarte-zerbitzuekin (ikas-

tolako prozesuetan inplikazio zehatzagoak eginez) eta udaletako euskara batzordeekin (euskalduntzeko ahalegin esanguratsuak eginez eta finantziazio ekonomikoak eskainiz).

Horrekin batera, ezinbestekoa izango da ikastolako hezkuntza-komunitate osora iristea, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko bideak elkarrekin eraikitzea, eta gizarte zabalera irekitzea; horretarako, inguruko GKEekin elkarlana eta beste hainbat ekimen auzolanean bideratuko dira.

Etorri berriak etxekotzeko ahalegin horretan, *familia*ren rola ezinbestekoa da. Ikastolako familia orok, etorkina izan edo ez, hurbiltzeko borondatea behar du. Borondate hori erreala izan dadin lan egin beharra dago, eta ikastolako guraso-elkarte, guraso-eskola edo batzordeetatik atera behar da lan hori. Etengabeko sentsibilizazioak soilik ekar lezake elkarrekin bizi nahi izatea.

Euskal familiek funtsezko rola beteko dute beren seme-alabekin elkarbizitzarako dimentsioan, kontzientziazioaren lanketan, eskubideberdintasunaren lanketan, eta elkarbizitza eta elkarren arteko ulermena sustatzeko gainerako balioetan.

Etorri berri diren familiek, berriz, akulturazio esanguratsua egin ahal izateko kontzientzia hartu beharko dute. Familia horiek eskainiko duten informazioa egunerokotasunean kokatu beharko dugu; horri esker diseinatuko dugu harrera-plana eta gainerako gurasoekiko elkarlana. Taldeko partaide dela sentiarazi behar zaio hasieratik etorri berriari, horrela bakarrik ulertuko baitu komunitatearekiko betebeharrak eta eskubideak dituela. Elkarrizketa izango da horretarako gakoa, beste kultura bat dutenekin harremanak sortzea eta mantentzea; baina berezko nortasunari eta ohiturei uko egitea eskatu gabe, hori ez baita etorkina etxekotzeko bide egokia.

Familia guztiek, beraz, lau zeregin nagusi izango dituzte: kontzientzia hartzea, informazio gehiago lortzea (ezagutzea), autokritika egitea, eta familiaren inplikazioa bultzatzea.

Eskolatze berantiarrari dagozkionak laburbilduz, konpetentzien hezkuntzak, curriculum bateratuak eta aniztasunerako baliabideak ikus-

pegi barne-hartzailea garatzeko aukerak eskaintzen dituzte. Hala ere, ikuspegi horren arrakasta hezkuntza-komunitatearen hausnarketa sakonean eta esku-hartze egokian oinarritzen da. Alegia, ikuspegi barne-hartzailera iristeko bidea luzea da, trebakuntza eta kultura eskatzen du, eta horrek hezkuntza-komunitate osoaren kontzientziazioa, prestakuntza profesionala eta baliabideak inplikatzen ditu.

9.2. Hizkuntz plangintzan eragiteko orientabideak

Hizkuntz plangintzarako oinarriak zehaztu ondoren, eremu horretan eragiteko hainbat orientabide eskainiko da.

Esku-hartze horrek bi helburu izango ditu: batetik, ikastolako hizkuntz plangintza hausnarturik dagoen eta irizpideak idatzirik dauden ala ez behatzea eta, bestetik, hizkuntz plangintza horren egokitasuna balioestea.

Atal honetan jasoko dira, beraz, ikastolak indarrean dituen hizkuntz helburuak lortu ahal izateko hartu diren erabakiak, betiere, ikastola dagoen ingurune soziolinguistikoan oinarrituz. Erabaki horien artean egongo dira, besteak beste, hizkuntzen banaketa, ordutegia, plangintza horretarako irizpideak, eremu bakoitzean erabili beharreko hizkuntza ereduak eta erregistroak hautatzea, eta jatorri desberdineko hizkuntzen trataera.

Atal hau garatzeko erreferentziazko dokumentu nagusiak honako hauek izango dira:

- *Ikastolak orain eta gero* (EHIK)
- Indarrean dauden curriculum dekretuak
- *Ikastolen Hizkuntz Proiektua* (9. atala) (EHIK)
- *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma* (EHIK)

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide ikusiko dugu. Orientabide hauek eta ondorengo ataletan eskainiko direnak argitalpen honen amaieran erantsi den plan estrategikoaren eredutik hartu dira.

HIZKUNTZ PLANGINTZA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hizkuntz plangintza	Ingurune soziolinguistikoa eta aniztasuna zein den kontuan hartuta hizkuntz plangintza irizpideak idaztea	Murgiltze-eredua planifikatzea, adina eta hizkuntzaren jatorria kontuan hartuta	• Ikasle horien hizkuntz maila aztertu eta horrekiko erabakiak hartu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Hizkuntza bakoitzaren erabilera-eremua eta funtzioa finkatzea	• Ingurune soziolinguistikoaren arabera, hizkuntza bakoitzerako erabilera-eremua eta funtzioa finkatu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Hizkuntza bakoitzaren ordutegia finkatzea	• Ingurune soziolinguistikoa eta hizkuntz helburuen araberako ordutegia finkatu • Finkatutako ordutegia Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Gelaz kanpoko eremuan zein eremu instituzionalean hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa finkatzea	• Hizkuntzek eremu horietan izango duten tokia zehaztu, beti ere, ingurune soziolinguistikoa eta hizkuntza horiek indartzeko beharra orekatuz • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Hizkuntz aldaeren inguruko hausnarketa egitea eta irizpideak idaztea	• *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* liburuaren lanketa egin • Hizkuntz aldaeren espazioa finkatu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

10 esku-hartze eremuetan eragiteko orientabideak

Jarraian, erreferentzia-markoaren 3.2. atalean eta gidaren 7. atalean aurkeztu den esku-hartze eremuen taula oinarritzat hartuta, esku-hartze eremu bakoitzerako lan-plangintza berezia garatzeko hainbat orientabide eskainiko da.

10.1. Eremu pedagogikoa: gela barrukoa

Eremu honetan curriculum-lanak bilduko dira, bai curriculumaren kudeaketari dagozkionak bai interakzio didaktikoari dagozkionak. Datozen ataletan, eremu honen barruan kokatzen diren azpi-eremuak deskribatu eta horietan eragiteko orientabideak aipatuko dira.

10.1.1. Kudeaketa pedagogikoa

Ikastolaren Curriculum Proiektuak hizkuntzari dagozkion gaietan duen kalitatea zaintzearekin batera, haren koherentzia lantzea izango da Hizkuntz Proiektuaren barruan egingo den lan esanguratsuenetako bat. Hartara, atal honetan Curriculum Proiektuaren barne-koherentzia aztertzeaz gain, Ikastolaren Hezkuntza Proiektuarekin eta Hizkuntz Proiektua garatzeko erreferentzia-markoarekin duen koherentzia ere aztertuko da. Azterketa horretarako kontuan hartu erreferentzia-markoaren 2. eta 4. atalak.

Kudeaketa pedagogikoak, beraz, bere baitan hartuko ditu bai hizkuntzaren curriculum bateratuaren garapena bai gainerako arloen hizkuntz beharren gaineko lana. Horretaz gain, proiektu osagarrien bidez lantzen diren alderdien koherentzia ere aztertuko da, bai eta Ikastolaren Curriculum Proiektua era egokian gauzatzeko beharrezkoa den irakasleen koordinaziorako guneak, prestakuntza beharrak eta baliabideak ere.

10.1.1.1. Hizkuntz arloko curriculum bateratua

Atal honetan hizkuntz arloko curriculum bateratua gauzatzea aztertuko da, eta horretarako bi ardatz nagusi hartuko dira kontuan: hizkuntz arloaren kudeaketa eta hizkuntz curriculuma.

Jarraian, bi ardatz horien lanketarako hainbat orientabide aipatuko da.

- ***Hizkuntz arloaren kudeaketa***

Hizkuntzen curriculum bateratua koordinatzeko eta garatzeko markoa egokia dela ziurtatzea da atal hau aztertzearen helburua.

Hizkuntz arloaren ikuspegi bateratua gauzatzea ezinbestekoa da ikastolan irakasten diren hizkuntzen garapen egokia ziurtatzeko. Lehen urratsa, beraz, hizkuntzen arteko mintegi bateratua abian jartzea izango da; mintegi horren antolaketari eta bideratzeari dagozkion ekin-

tzak bilduko dira atal honetan: partaideak izendatzea, baliabide fisikoak esleitzea, zereginak zehaztea eta abar.

- ***Hizkuntz arloko curriculuma: helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak***

Atal hau aztertzearen helburua da indarrean dauden hizkuntz curriculumak Ikastolaren hezkuntza proiekuarekin, hizkuntz helburuekin eta Hizkuntz Proiektua garatzeko erreferentzia-markoarekin koherenteak direla ziurtatzea. Era berean, hizkuntz curriculum horien zehaztapen-mailak adostasunez ezarri diren aztertuko da, etapa barruan nahiz etapa artean, eta hizkuntza bakoitzaren barruan nahiz hizkuntza ezberdinen artean.

Atal honetan bilduko dira, beraz, hartutako erabakiak gauzatzeko hizkuntz curriculum bateratuan nahiz hizkuntza bakoitzaren curriculumean egin beharreko lanak. Hizkuntza bakoitzari dagozkion helburuak, edukiak nahiz ebaluazio-irizpideak abiaraztean koordinazio bertikala (ziklo-etapa artekoa) eta horizontala (maila barrukoa) bermatu beharko dira.

Hizkuntz arloko curriculum bateratuaren atala garatzeko, honako hauek izango lirateke erreferentziazko dokumentu nagusiak:

Ikastola: izaera eta egitura (EHIK, 1988)
Indarrean dauden curriculum-dekretuak
Ikastolen Hizkuntz Proiektua (2. eta 4.4. atalak) (EHIK)
Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma (EHIK)
Ikastolen Elkarteko ikasmaterialen 2. eta 3. zehaztapen-mailak

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide ikusiko dugu.

EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA KUDEAKETA PEDAGOGIKOA HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hizkuntz arloaren kudeaketa	Hizkuntz arloaren koordinazio bertikala eta horizontala bideratzea eta ziurtatzea	Hizkuntz departamentu bateratua eta hizkuntz departamentuak antolatzea	• Hizkuntz departamentuen eta departamentu bateratuaren funtzioak definitu eta arduradunak izendatu • Urtean zehar landu beharreko urteko plangintza idatzi eta proposatu • Antolaketa egiturak sortu • Koordinaziorako giza baliabideak esleitu • Irakasleen ordutegiak egokitu	— Hizkuntz departamentuen eta departamentu bateratuaren urteko jarduera-plana — Irakasleen ordutegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Hizkuntz curriculuma: helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak	Hizkuntzen xedea eta ardatz metodologikoak kontuan hartuta, hizkuntzen planteamendu bateraturako urratsak egitea	Euskal Curriculumak ezarritako hizkuntzen irakaskuntzarako ikuspegia barneratzea eta ardatz metodologikoak finkatzea	• Konpetentzietan oinarritutako planteamenduaren inguruko prestakuntza jaso • Ikuspegi komunikatiboaren inguruko prestakuntza jaso • Testu-pedagogiari buruzko prestakuntza jaso • Legeak hizkuntz ardatz metodologikoei buruz dioena eta ziklo-maila bakoitzerako ezarritako helburuak ezagutu • ICPan idatzitakoa ezagutu • Hizkuntz Proiektuan hizkuntzaren eta metodologiaren inguruan esaten dena ezagutu • Hizkuntzari nahiz hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko ikuspegia adostu • Hizkuntzen ardatz metodologikoak Hizkuntz curriculumean jasotzen direla ziurtatu	— Prestakuntzaren balioespen-galdetegiak — Hizkuntz curriculuma	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Hizkuntz departamentu bateratua
		Hizkuntz arloko proiektu kurrikular bateratuaren oinarriak ezartzea	• Hizkuntza bakoitzean eta DBH bukaeran eskuratu beharreko maila kontuan hartuta, hizkuntzen arteko helburu orokorrak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak erkatu etapa bakoitzean • Hizkuntzen arteko prozedura komunak aztertu eta barneratu • Testu-generoen sekuentziazio bertikala eta horizontala bilduz, hizkuntzen mapa bateratua egin etapaka • Helburu didaktiko eta ebaluazio-irizpideekin koherentzia dutela ziurtatuz, UDak berrikusi • Azterketak partekatu eta adostu	— Prestakuntzaren balioespen-galdetegiak — Hizkuntz curriculuma	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Hizkuntz departamentu bateratua

10.1.1.2. Beste arloetako curriculumak

Hizkuntzaren bidez kontzeptu berriak berbalizatzen eta barneratzen ditugu, gure ezaguera-sistema antolatzen eta ordenatzen dugu, eta jasotzen ditugun ezagutza berriak biltzen eta lotzen ditugu. Hartara, hizkuntzaren garapen egokia esparru akademikoaren arrakastarako giltzarri izango da neurri handi batean, eta ikasleen hizkuntz gaitasuna garatzeak arloetako edukien barneratze egokia eta eragingarria ekarriko du. Arrakasta horretarako erabakigarriak diren hizkuntz trebetasunak eta testu-generoak izango dira, beraz, beste arloen hizkuntz beharrak.

Hortaz, atal honetan aztertuko da beste arloetako curriculumetan hizkuntz behar horiei ematen zaien trataera. Jarraian, esparru hori aztertzeko hainbat orientabide aipatuko da.

- ***Hizkuntzen trataera instrumentala***

Atal hau aztertzearen helburua beste arloetako curriculumetan hizkuntz beharren lanketa egokia ziurtatzea da. Bestela esanda, hizkuntz behar horiei ematen zaien erantzuna kalitatezkoa izatearekin batera, atal honen zeregina da Ikastolaren Curriculum Proiektuarekin, Hezkuntza Proiektuarekin eta Hizkuntz Proiektua garatzeko erreferentziamarkoarekin koherentea den baieztatzea.

Atal honetan bilduko dira, beraz, hizkuntz arlokoak ez diren arloen hizkuntz beharrei dagozkien erabakiak. Alegia, arlo bakoitzak berezkoak dituen hizkuntz ezaugarriak aztertu, identifikatu eta horiei erantzuteko bideak zehaztu beharko dira; era berean, arloa irakasteko erabiliko den hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz, estrategia didaktiko egokiak hautatu beharko dira, hizkuntza horren garapen egokia bermatzeko.

Beste arloetako curriculum-eremua garatzeko erreferentziazko dokumentu nagusiak honako hauek izango lirateke:

Indarrean dagoen curriculum-dekretua

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (4.3. eta 4.4.3. atalak) (EHIK)

Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma (EHIK)

Ikastolen Elkarteko ikasmaterialen 2. eta 3. zehaztapen-mailak

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide ikusiko dugu.

KUDEAKETA PEDAGOGIKOA: BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hizkuntzen trataera instrumentala: helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak	Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-ikuspegia barneratzea eta irakasle guztiak hizkuntz irakasle bilakatzea	Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-ikuspegia onartzea	• Konpetentzietan oinarritutako planteamenduaren inguruko prestakuntza jaso	— Prestakuntzaren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Beste arloetako irakasle ordezkariak
		Arloetako hizkuntz behar bereziak definitzea	• Prozedurazko edukiak[29], gaitasun kognitiboak[30] eta testu-generoak arloetako helburu didaktikoetan identifikatu	— Identifikatutako hizkuntz beharren bilduma	
		Behar horiek lantzeko eduki eta estrategiak hizkuntz arloarekin aztertzea eta adostea	• Hizkuntzako eta beste arloetako irakasleen koordinazio horizontala eta bertikala antolatu • Prozedurazko edukien lanketa bateratu (urratsak, estrategiak, tresnak...) • Testu-generoen ezaugarriak eta lanketa bateratu (azalpenezko testu zientifikoa…) • Hizkuntzaren egokitasunari dagozkion irizpideak finkatu (ortografia, gramatikaren zuzentasuna, ahozkoaren egokitasuna...) • Prozedurazko edukiak garatzen dituzten jarduerak mailaka partekatu eta adostu • Egindako guztia txosten batean jaso eta gizarteratu	— Egindako lanaren txostena	—Zuzendaritza —Hizkuntz Proiektua Taldea —Hizkuntz departamentu bateratua —Beste arloetako irakasleak edo ordezkariak

10.1.1.3. Proiektu osagarriak

Atal honetan Ikastolaren Curriculum Proiektua osatzeko abian jartzen diren proiektu osagarriak aztertuko dira: batetik, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoa duten egitasmoak eta, bestetik, zehar-lerro gisa lantzen diren proiektuak (adibidez, bakegintzarako proiektua, Agenda 21, elkarbizitza-proiektua, sexu-hezkuntza edo drogamenpekotasuna).

[29] Ahozko eta idatzizko ulermena, ahozko eta idatzizko ekoizpena.
[30] Laburtu, definitu, sailkatu,…

Jarraian, bi eremu horien azterketarako orientabideak aipatuko dira.

- ***Zehar-lerroen hizkuntz trataera***

Atal hau behatzearen helburua, ekintza hauekiko hizkuntz irizpideak ikastolako hizkuntz helburuekiko koherentzian finkatuta dauden aztertzea da.

Atal honetan jasoko dira, beraz, kanpoko elkarte nahiz erakundeek egindako eskaintzen egokitasuna neurtzeko irizpideen artean hizkuntzak izango duen tokia eta garrantzia finkatzeko, adosteko eta indarrean jartzeko ekintzak.

- ***Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak***

Atal honetan aztertuko dira euskara sustatzeko ekimenak (euskararen eguna, motibazio kanpainak eta abar), euskal literaturaren inguruko ekintza bereziak (idazleak geletan, bertsolaritza egitasmo osagarriak eta abar) edota euskal kulturan errotuta dauden usadioak (inauteriak, Santa Ageda, Olentzero eta abar) ezagutze eta lantze aldera antolatzen diren ekintzak. Ekintza horiek hausnartutako plangintzaren bitartez bideratu behar direnez, plangintza hori ziurtatzea da atal hau aztertzearen helburua.

Atal honetan bilduko dira, beraz, curriculumetik eratorritako ekintzak identifikatzeko eta koordinatzeko, nahiz curriculumarekiko osagarriak diren ekintzak txertatzeko egiten diren urratsak. Horietaz gain, zehar-lerro gisa landuko diren egitasmoak koordinatzeko ekintzak ere jasoko dira.

Proiektu osagarrien atala garatzeko honako hauek izango lirateke erreferentziazko dokumentu nagusiak:

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (4.2. atala) (EHIK)
Euskal Eskola (Ikastolen Elkartea, 1991)
Euskaraz Bizi plana

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide ikusiko dugu.

KUDEAKETA PEDAGOGIKOA: PROIEKTU OSAGARRIAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Zehar-lerroen hizkuntz trataera	Ingurune soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta zehar-lerroen hizkuntz irizpideak adostea	Zehar-lerroen hizkuntz irizpideak adostea eta idaztea	• Zehar-lerroen hizkuntz trataera zein izango den finkatu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Idatzitako irizpideen arabera, kasuan kasu, dagoeneko burutzen diren ekintzak aztertu • Hizkuntz irizpidea ziurtatuko duen erakundearekin harremanak bideratu • Adostutako ekintzak burutu • Ekintzak baloratu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Zehar-lerroen ekintza-plana eta balioespena	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak	Euskara eta euskal kultura sustatzea	Euskara eta euskal kultura sustatzeko irizpideak idaztea	• Irizpideak idatzi • Irizpideak Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	
		Euskara eta euskal kultura sustatzeko gela barruan egiten dena aztertzea eta osatzea	• Euskara eta euskal kultura sustatzeko irizpideen arabera kasuan kasu dauzkagun ekintzak aztertu • Euskal Curriculumak euskal kulturaren garapenerako proposatzen duen sekuentziazioa aztertu • Euskara suspertzeko egiten diren jarduera solteei UDetan tokia bilatu eta txertatu • UDetan txertatu gabe geratu diren ekintza solteei proiektu osagarrien izaera eman	— Hizkuntz Proiektuko urteko plana — Unitate didaktikoak	

10.1.2. Interakzio didaktikoa

Gela barruko interakzioa giltzarri da hizkuntzaren jabekuntza eta garapenerako. Batetik, eremu horietan komunikazio-behar errealak sortzen direlako eta, ondorioz, egiten den hizkuntz erabilera funtzionala eta motibagarria gertatzen delako. Bestetik, testuinguru kontrolatuak direnez, hizkuntz erabilera hori irakasleak bideratu eta optimizatu dezakeelako. Egoki hitz egiten irakatsi behar zaio ikasleari; hau da, irakaslearen gidaritzapean ikasleak aukera izan behar du komunikazio-eremu bakoitzari dagokion hizkuntza erabiltzeko eta erabilera hori hobetzeko.

Atal honek bi ardatz nagusi izango ditu: hizkuntz erabilera, eta metodologia eta didaktika.

10.1.2.1. Hizkuntz erabilera

Atal hau lantzearen helburuak gela barruko hizkuntz erabilera neurtzea eta haren kalitatea bermatzea dira.

Atal honetan, beraz, gela barruko testuinguruan gertatzen diren harreman libre nahiz gidatuetan hizkuntz erabilera zein den aztertuko da eta lortutako emaitzen arabera hobekuntzarako irizpideak finkatuko dira.

Horretarako, hiru eremu landuko dira: arlo bakoitzeko harreman-hizkuntza; irakasleen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera; eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera. Jarraian, eremu horiek garatzeko orientabideak aipatuko dira.

- ***Arlo bakoitzaren harreman-hizkuntza***

Eleaniztasuna kontuan izanda eta hizkuntz plangintzan hartutako erabakien baitan, gelan ari garenean irakasleek nahiz ikasleek arloari dagokion hizkuntza zenbat eta noiz erabiltzen duten neurtuko da atal honetan.

Atal honen baitan jasoko da, beraz, arloari dagokion hizkuntza zenbat erabiltzen den. Erabilera hori nahikoa edo egokia ez bada, zergatiak aztertu (jarrera edo gaitasun eza) eta egoera bideratzeko neurriak hartuko dira.

- ***Irakasleen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera***

Atal hau behatzearen helburua irakasleen hizkuntz erabilera neurtzea izango da, irakasleen komunikazio-gaitasuna eta hizkuntzarekiko jarrera ikasleentzat eredu baitira.

Hartara, atal honetan irakasleen arteko harreman-hizkuntza jasoko da (lankide moduan, laneko gaietan, arlo informalean, mota desberdinetako bileretan...). Era berean, hemen bilduko dira irakasleen hizkuntzarekiko motibazioa nahiz arlo horretan dituzten sinesmenbalioak behatzekoa, eta horietan eragiteko bideratutako ekimenak.

- ***Ikasleen arteko hizkuntz erabilera***

Atal hau aztertzearen helburua ikasleen gela barruko hizkuntz erabilera behatzea da. Hartara, atal honetan bilduko dira, besteak beste, ikasleen arteko harreman libreetan nahiz irakaslearen gidaritzapean ari direnean gela barruan egiten duten arloko hizkuntz erabileraren behaketa, eta ikasleek arloko hizkuntzarekiko duten jarrera aztertzeko ekintzak. Horretaz gain, gela barruko interakzioa eragotz dezaketen ikasleen hizkuntz premiak definitu beharko dira, eta behar horiei era egituratuan eta sistematikoan erantzun.

Hizkuntz erabileraren atala garatzeko, honako hauek izango lirateke erreferentziazko dokumentu nagusiak:

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (9.1. atala) (EHIK)
Euskal Eskola (Ikastolen Elkartea, 1991)
Euskaraz Bizi (Jose Luis Gorostidi, 1991)

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide ikusiko dugu.

INTERAKZIO DIDAKTIKOA HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Arlo bakoitzerako harreman-hizkuntza	Arlo bakoitzari dagokion harreman-hizkuntza definitzea	Arlo bakoitzari dagokion harreman-hizkuntza hautatzea	• Arlo bakoitzari dagokion harreman-hizkuntza definitu, irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera	Arlo bakoitzean dagokion harreman-hizkuntza erabiltzen dela bermatzea	Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera egokia izatea bermatzea	• Irakasleen hizkuntz erabilera eta gaitasun-maila behatu • Hizkuntz hobekuntza prestakuntzak egin • Arlo bakoitzean erabilera-joerak behatu eta joeren araberako irakasleen sentsibilizazioaren lanketa egin • Egoeraren araberako esku-hartze planak proposatu	— Mintzagramak — Prestakuntza-plana — Esku-hartze plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Arlo bakoitzean dagokion harreman-hizkuntza erabiltzen dela bermatzea	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera arlo bakoitzari dagokiona dela bermatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu • Joeren araberako ikasleen sentsibilizazioaren lanketa egin • Egoeraren araberako esku-hartze planak proposatu	— Mintzagramak — Esku-hartze plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

10.1.2.2. Metodologia eta didaktika

Ikasleek euren komunikazio-gaitasuna gara dezaten ezinbesteko baldintza da ikaskuntza-irakaskuntza prozesu osoan gertatzen diren komunikazio-egoera esanguratsuak sortzea eta horiek ustiatzea. Egoera esanguratsu horiek sortzeko, gela barruko edukien eta harremanen ingurua gainditu eta ikasleen bizitzako eremu guztietako egoerak baliatu beharko ditugu. Era berean, ezinbestekoa izango da proposatutako ekintzen funtzionaltasuna, ikasleen behar eta interesekiko lotura, eta ikasleen ikasketa prozesuarekiko koherentzia ziurtatzea.

Helburu hori lortu ahal izateko, irakasleak gelako komunikazio-ekintzaren protagonista nagusi izateari utzi eta ikaslearen protagonismoa bultzatzen duen planteamendu didaktikoa behar dugu, benetako elkarrizketa edo komunikazio esanguratsuetan bideratuko duena.

Atal honetan, beraz, ikuspegi komunikatiboan nahiz eraikitzailean oinarritutako ardatz metodologikoak finkatzeko eta lantzeko ekintzak jasoko dira; ikuspegi horren aplikazioa da gela barruan komunikazio-egoera esanguratsu horiek sortzeko nahiz kudeatzeko bideak irekitzeko modua.

Bi izango dira atal honen barruan behatuko diren esparruak: komunikazio-egoera esanguratsuen sorrera eta horiek kudeatzeko estrategia didaktikoak.

Jarraian, lan-esparru horiek bideratzeko orientabideak aipatuko dira.

- ***Komunikazio-egoera esanguratsuak***

Atal hau behatzearen helburua, hain zuzen ere, arlo guztietako irakasleek darabiltzaten metodologia eta estrategia didaktikoak komunikazio-egoera esanguratsuak sortzeko eta ustiatzeko egokiak diren aztertzea da.

Hartara, atal honetan jasoko dira, esaterako, irakaslearen jardunak gela barruan duen protagonismoa behatzeko ekintzak, bai eta ikaslearen ahozko nahiz idatzizko parte-hartzeak gela barruan hartzen duen lekua behatzekoak ere. Era berean, hemen bilduko dira ikas-

materialek nahiz irakasleek komunikazio-egoera aberatsak sor eta kudea ditzaten hartzen diren neurriak.

- ***Taldekatze motak eta irizpideak***

Atal hau aztertzearen helburua da arlo guztietako irakasleek komunikazio-egoera horiek kudeatzeko zer taldekatze mota erabiltzen duten behatzea eta elikatzeko bideak garatzea.

Atal honetan jasoko dira, beraz, irakasle horiek komunikazio-egoera esanguratsuak ustiatzeko dituzten taldekatze motei buruzko irizpideak biltzeko eta horiek bateratzeko ekintzak. Izan ere, ikasleen protagonismoa bultzatzeko, besteak beste, gelako dinamikaren kudeaketan ikasketa kooperatiboa bideratzen duten ikasleen taldekatze motek hartu beharko dute garrantzia.

Metodologia eta didaktika-atala garatzeko, honako hauek izango lirateke erreferentziazko dokumentu nagusiak:

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (4.3. atala) (EHIK)

Ikastolen Elkarteko ikasmaterialen 2. eta 3. zehaztapen-mailak

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide ikusiko dugu.

INTERAKZIO DIDAKTIKOA METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Komunikazio-egoera esanguratsuak	Gela barruko ahozko komunikazioa kalitatezkoa[31] eta esanguratsua izatea ziurtatzea	Arlo guztietan estrategia didaktiko egokiak erabiltzea, ikasleen ahozko komunikazio kalitatezkoa eta esanguratsua bermatzeko	• Gela barruko ahozko komunikazioaren diagnosia egin (galdetegiak, behaketak, mintzagramak…) • Egoeraren araberako neurriak proposatu, burutu eta balioetsi	— Diagnosiaren ondorioak — Hartutako neurrien balioespenak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Taldekatze motak eta irizpideak	Gela barruko taldekatze motak ikasleen ahozko komunikazioa kalitatezkoa eta esanguratsua izatea bermatzea	Arlo guztietan taldekatze mota egokiak erabiltzea ikasleen ahozko komunikazio kalitatezkoa eta esanguratsua bermatzeko	• Taldekatze moten inguruko hausnarketa burutu eta irizpideak bateratu • Talde kooperatiboen inguruko hausnarketa burutu eta hori bultzatzeko neurriak hartu	— Hausnarketaren ondorioak — Hartutako erabakien aplikazioa eta balioespena	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

[31] Ikasleen partaidetza egokia, esanguratsua eta ugaria.

10.1.3. Irakasleen prestakuntza

Arestian aipatu bezala, atal honetan aztertuko da Ikastolako Curriculum Proiektua modu egokian gauzatzeko irakasleek behar duten prestakuntza. Lehenik, komunikazio-gaitasuna hobetzera bideratutako prestakuntza arakatuko da; izan ere, irakasleek eskaintzen duten hizkuntz ereduak garrantzi handia du ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzeko orduan. Bigarrenik, arloko metodologian eta didaktikan sakontzeko formazioari dagozkionak ere kontuan hartuko dira; izan ere, hizkuntz eredu egokia eskaintzeaz gain, irakasleek didaktikan eta metodologian sakondu beharko dute, ikasleei hizkuntza erabiltzeko ahalik eta aukera gehien emateko eta komunikazio-egoera horien kudeaketa egokia egiteko. Hirugarrenik, hizkuntzekiko jarreren inguruko prestakuntza aztertuko da. Izan ere, euskaraz ardaztutako eleaniztasuna garatzeko orduan, ezinbestekoa izango da hizkuntzekiko jarrera baikorrak sustatzea.

Jarraian, hiru esparru horiek aztertzeko orientabideak aipatuko dira.

- ***Hizkuntz hobekuntza***

Atal hau lantzearen helburua irakasleen komunikazio-gaitasuna egokia dela ziurtatzea da. Hartara, atal honetan komunikazio-gaitasuna hobetzeko ekintzak jasoko dira, betiere aintzat hartuz irakasleek zein adin-tarteko ikaslerekin eta zein esparrutan diharduten.

- ***Arloko metodologia eta didaktika***

Atal hau lantzearen helburua, irakasleek euren arloak dituen hizkuntz beharrak nahiz gela barruan ikasleen hizkuntz erabilera sustatzeko gaitasuna bermatzea da. Atal honetan, beraz, arloko metodologiari eta didaktikari dagozkion prestakuntza-ekintzak jasoko dira; esaterako, arloko hizkuntz beharrei erantzuteko nahiz hizkuntzazko edukien lanketa egokia bermatzeko prestakuntzak, ikasleen gela barruko hizkuntz erabilera areagotzeko prestakuntzak, eta komunikazio-egoera horien kalitatean eragiteko prestakuntzak.

- ***Hizkuntzekiko jarrerak***

Ikasleak euskaraz ardaztutako eleaniztasunean hezi nahi baditugu, ezinbestekoa izango da irakasleek hizkuntzekiko jarrera egokiak izatea. Horretaz gain, euskararekiko edo beste edozein hizkuntzarekiko jarrerak lagungarriak ez direnean, irakasleek jarrera horiek iraultzeko estrategiak izan beharko dituzte.

Atal honen helburua izango da, beraz, irakasleek hizkuntzekiko jarreren esparruan dituzten prestakuntza-beharrak aztertzea eta horiek bideratzea.

Irakasleen prestakuntza-atala garatzeko, honako hauek izango lirateke erreferentziazko dokumentu nagusiak:

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (5. atala) (EHIK)

Prestakuntza eskaintzen katalogoa (EHIK, Irale, Berritzegunea...)

Ikastolen Elkarteko ikasmaterialen 2. eta 3. zehaztapen-mailak

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aipatuko dugu.

GELA BARRUKOA IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Irakasleen prestakuntza	Ikastolaren prestakuntza-plana diseinatzea, finkatutako hezkuntza eta hizkuntz ikuspegiekiko	Arloetako irakasle guztien behar komunak zein diren identifikatzea (konpetentzien hezkuntza ikuspegia; ikuspegi komunikatiboaren didaktikan sakontzea[32], hizkuntz hobekuntza ikastaroak, hizkuntz jarrerak...) eta horren araberako eskaintza egitea	• Prestakuntzarako lehentasunak finkatu eta Ikastolako prestakuntza-plana idatzi • Prestakuntzaren hartzaileak hautatzeko irizpideak finkatu • Ikasitakoa barneratu eta eguneroko praktikarekiko erabakiak klaustroan adostu • Hartutako erabakiak txostenean idatzi • Erabakitakoa ikasleekin praktikara eramaten dela ziurtatu • Aurrerantzean irakasle berriek prestakuntza-ildoak jasoko dituztela ziurtatu	— Prestakuntza-plana — Prestakuntzaren balioespen-galdetegiak — Txostenak — Gela barruko behaketak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

[32] Interakzio didaktikoa, lan kooperatiboa...

10.1.4. Baliabideak

Gela barruko esparrurako zehaztu diren ildoak landu ahal izateko, baliabide materialak eta espazioak aztertzea izango da atal hau behatzearen helburua.

- ***Arlo bakoitzeko ikasmaterialak***

Arlo bakoitzaren irakaskuntzarako ikasmaterialak aukeratzeko eta haien erabilera arduratsua egiteko, erreferente nagusiak izango dira arloaren didaktikarako hautatutako ikuspegia eta planteamendu metodologikoa, bai eta diziplinarekiko doitasuna ere.

Atal hau arakatzearen helburua, beraz, ikasmaterialen hautaketa adostutako ikuspegi horrekiko koherentea dela eta hautaketarako irizpideak idatzita daudela bermatzea izango da. Hartara, hemen bilduko dira ikasmaterialen hautaketarako irizpideak finkatze eta adoste aldera egiten diren ekintzak; bai eta irizpide horien erabilerarako nahiz jarraipenerako ekintzak ere.

- ***Espazioen banaketa eta hizkuntz trataera***

Gela barrurako zehaztu diren lan-ildoak gauzatzeko beharrezkoa izango da espazioaren banaketa aztertzea eta espazio horietarako hizkuntz erabilera definitzea. Bestela esanda, atal hau behatzearen helburua honako hauek aztertzea izango da: ikastolan hizkuntz gelarik badagoen, gela barruko hizkuntz paisaiaren antolaketarako irizpiderik badagoen, pasabideetako hizkuntz paisaia zein izango den, mediateka edo gela barruko liburutegirik badagoen eta abar.

Hartara, atal honetan jasoko dira ikastolak dituen espazioak identifikatzeko ekintzak eta espazio horiek antolatzeko orientabideak.

- ***Informazio-iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza***

Atal hau behatzearen helburua gela barruko lan-ildoak gauzatzeko eskura ditugun baliabideak nahikoak eta egokiak diren aztertzea da.

Hartara, atal honetan jasoko dira baliabide horiek hautatzeko irizpideak (baliabideen hizkuntzari nahiz bestelako ezaugarriei dagozkienak) eta antzerakoak.

Baliabideen atala garatzeko, honako hauek izango lirateke erreferentziazko dokumentu nagusiak:

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (4.3. eta 4.4. atalak) (EHIK)

Ikastolen Elkarteko ikasmaterialen 2. eta 3. zehaztapen-mailak

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide ikusiko dugu.

GELA BARRUKOA BALIABIDEAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Arlo bakoitzeko ikasmaterialak	Hezkuntza-konpetentzien lanketa bermatzen duten ikasmaterialak hautatzea	Konpetentzien lanketa eta ikuspegi komunikatiboa bermatzen duten ikasmaterialak hautatzeko irizpideak idaztea, ikasmaterialak hautatzea eta aplikatzea	• Ikasmaterialak hautatzeko irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hainbat argitaletxetako proposamenak aztertu eta irizpideekiko egokiena hautatu • Ikasmaterialen zerrenda idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hautatutako ikasmaterialak erabili eta ebaluatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Ikasmaterialen balioespena	— Zuzendaritza — Hizkuntz proiektua Taldea
Espazioaren banaketa eta hizkuntz trataera	Ingurune soziolinguistikoa kontuan hartuta eta ikuspegi eleaniztunari egoki erantzuteko, ikastolako espazioak antolatzea eta bertako hizkuntz trataera definitzea	Espazio komunen funtzio pedagogikoaren hausnarketa egitea, espazio bakoitzaren hizkuntza identifikatzea eta haren erabilera zehaztea	• Ikastolako espazioen antolaketarako eta hizkuntz erabilerarako irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Espazioak irizpideen arabera antolatu • Espazio bakoitzean dagokion hizkuntz erabilera bermatzen dela ziurtatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Gelen behaketa (argazkiak) — Pasabideen behaketa (argazkiak)	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Gelen kudeaketa egokirako eta gelen espazio komunaren[33] antolaketari[34] buruz hausnartzea eta irizpideak idaztea	• Gela barruko hizkuntz paisaia antolatzeko irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Gelak eta bertako espazioak irizpideen arabera antolatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Gelen behaketa (argazkiak)	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Informazio-iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza	Ingurune soziolinguistikoa kontuan hartuta eta ikuspegi eleaniztunari egoki erantzuteko, baliabideen hizkuntza definitzea	Geletako baliabideen hizkuntz irizpideak idaztea eta irizpideak kontuan hartuta gela horiek baliabide egokiz hornitzea	• Gela bakoitzerako baliabideen hizkuntza finkatu eta erabakitakoa Hizkuntz Proiektuan txertatu • Geletan dauden baliabideak aztertu eta beharrak identifikatu • Gelak baliabide egokiz hornitu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Geletako baliabideen zerrenda — Balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

33. Zein den hizkuntza bakoitzak gelan izan behar duen presentzia, bai baliabideetan bai ikasleen lanei dagokienez.
34. Mahaien kokapena, taldekatze-irizpideen baitan.

10.2. Eremu pedagogikoa: gelaz kanpokoa

Gida honen hasieran aipatu dugun moduan, eremu honen barruan xede pedagogikoak dituzten gelaz kanpoko jarduerak biltzen dira, irakasle, hezitzaile nahiz begiraleen bidez bideratzen direnak.

Esparru hori didaktikoa denez gero, planifikatu eta antolatu beharreko eremua da. Planifikazio horren bidez, ahozko elkarreragina bultzatuko duten jardueren presentzia bermatu beharko da, bai eta irakasle, hezitzaile nahiz begiraleek jarduera horiek kudeatzeko prestakuntza dutela ere. Prestakuntza horrek hiru esparru hartuko ditu: irakasleen, hezitzaileen nahiz begiraleen hizkuntz maila, eremu horretako jarduerak kudeatzeko estrategia didaktikoak, eta hizkuntzekiko jarrerak.

Atal honetan, beraz, gelaz kanpoko jardueretan gertatzen den komunikazioaren kalitatea aztertzeaz gain, komunikazio hori aberasteko metodologia eta estrategia didaktikoak arakatu eta lan horietarako prestakuntza beharrak eta baliabideak zehaztuko dira.

• Azpi-atalak

Gelaz kanpoko jarduera horietan guztietan, bi azpi-atal hartu behar dira kontuan: hizkuntz erabilera, eta metodologia eta didaktika. Jarraian, bi esparru horiek lantzeko hainbat orientabide aipatuko da.

10.2.1. Hizkuntz erabilera

Atal hau aztertzearen helburua, gelaz kanpoko eremuan gertatzen den hizkuntz erabilera neurtzea eta hobekuntzarako urratsak egitea da. Erabilera neurtzerakoan, hizkuntzaren egokitasuna ere aztertuko da; hau da, gelaz kanpoko jarduera bakoitzak eskatzen duen euskara teknikoa eta hizkuntz erregistroa erabiltzen diren arakatuko da.

Atal honetan hiru eremu izango ditugu kontuan: irakasle, hezitzaile nahiz begiraleen hizkuntz erabilera, horien eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera, eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera.

- ***Irakaslearen, hezitzailearen nahiz begiralearen hizkuntz erabilera***

Atal hau behatzearen helburua pertsona horien hizkuntz erabilera neurtzea izango da, euren komunikazio-gaitasuna eta hizkuntzekiko jarrera ikasleentzat eredu baitira.

Hartara, atal honetan bilduko dira irakasle, hezitzaile nahiz begiraleen hizkuntz erabilera nahiz hizkuntzekiko duten jarrera behatzeko eta horietan eragiteko bideratutako ekimenak.

- ***Irakasle-hezitzaile-begiraleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera***

Hizkuntz plangintzan hartutako erabakien baitan, pertsona horien eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera neurtzea izango da atal hau behatzearen helburua. Hemen jasoko dira, beraz, gelaz kanpoko egoera bakoitzari dagokion hizkuntza zenbat erabiltzen den eta, erabilera hori nahikoa ez bada, zergatiak aztertu (jarrera edo gaitasun eza) eta neurriak hartuko dira egoera berriz bideratzeko.

- ***Ikasleen arteko hizkuntz erabilera:***

Atal hau aztertzearen helburua gelaz kanpoko egoeretan ikasleek egiten duten hizkuntzaren erabilera behatzea da. Atal honetan bilduko dira, besteak beste, ikasleen hizkuntz erabileraren behaketak -bai harreman libreetan bai irakasle nahiz hezitzailearen gidaritzapean ari direnean- eta egoera bakoitzean ikasleen hizkuntzarekiko jarrerak aztertzeko ekintzak.

10.2.2. Metodologia eta didaktika

Gela barruan bezala, gelaz kanpoko eremuan ere ezinbestekoa izango da komunikazio-egoerak ustiatzeko estrategiak lantzea. Bestela esanda, aztergai ditugun egoera guztiak berez dira komunikazio-egoera esanguratsuak, eta horien kudeaketa egokiak ikasleen komunikazio-gaitasunean eragin zuzena izango du, batez ere egoera

horiek erregistro ez-formal eta lagunartekoak lantzeko aukera ematen dutelako. Hartara, irakasleek, hezitzaileek nahiz begiraleek komunikazio-egoera horiek hizkuntzaren mesedetan jartzeko estrategiak garatu beharko dituzte.

Jarraian, esparru horretan eragiteko hainbat orientabide aipatuko da.

• ***Komunikazio-egoerak ustiatzeko estrategiak***

Atal hau behatzearen helburua da irakasleek, hezitzaileek nahiz begiraleek jolasaldi, irteera eta antzerakoetan gertatzen diren komunikazio-egoerak hizkuntzaren aldetik kudeatzeko duten gaitasuna neurtzea.

Hartara, atal honen barruan bilduko dira, besteak beste, pertsona horien zereginaren inguruko hausnarketak eta erabakiak, ikasleen hizkuntz erabilera suspertzeko hezitzaile taldeak lantzen, adosten eta bateratzen dituen estrategiak, eta ikasle taldeak sortzeko eta gidatzeko estrategien inguruko lanak.

Hauek dira eremu hau garatzeko erabiliko ditugun erreferentziazko dokumentuak:

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (4.4.3.3., 9.1. eta 9.1.2. atalak) (EHIK)

Euskaraz Bizi (Jose Luis Gorostidi, 1991)

Hezitzaile nahiz begiraleentzako prestakuntza-eskaintzen katalogoa

Jarraian, hizkuntz erabileraz nahiz metodologia-didaktikaz esandakoak gelaz kanpoko hainbat esparrutan aplikatzeko orientabide batzuk aipatuko dira.

Jolasaldiak

Atal hau behatzearen helburua jolasaldietan sortzen diren egoera komunikatiboak euskaraz gauza daitezen bideak aztertzea da.

Hartara, atal honetan ikastolak ikasleen hizkuntz erabileran eragiteko helburuarekin jolasaldietan egiten dituen ekintzak bilduko dira.

GELAZ KANPOKOA- JOLASALDIAK HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Irakasleen hizkuntz erabilera	Jolasaldietan irakasleen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta, esku-hartze plangintza diseinatzea	• Irakasleen hizkuntz erabilera behatu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu • Lortutako emaitzen araberako esku-hartze plangintza idatzi	– HIZKUNTZ PROIEKTUA – Hiztun-neurketak – Urteko plana	– Zuzendaritza – Hizkuntz Proiektua Taldea – Euskaraz Bizi Taldea
		Irakaslea kontziente izatea esparru horretako komunikazio-egoerei, nagusiki, hizkera ez-formala eta, balego, euskalkia dagozkiela	• Jolasaldian ikasleekin erabili beharreko hizkuntz erregistroa adostu • Behar izanez gero, esparruko eragileentzat prestakuntza bideratu	– Antolatutako ekintzetan erabilitako hizkuntz erregistroa	
Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikaslearekin euskaraz aritzeko urratsak ematea	• Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	– Hiztun-neurketak – Urteko plana	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Ikasleen hizkuntz erabilera sistematikoki behatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu • Ikasleekin hizkuntz erabileraren inguruko hausnarketa-saioak egin	– Hiztun-neurketak – Urteko plana	
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jolasaldietako komunikazio-egoerak ustiatzea hizkuntzaren mesedetan	Irakasle edo hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta erabiltzea	• Jolasaldia hizkuntza aldetik ustiatzeko estrategiak irakasleen eskura jarri • Irakasleen inplikazioa lortu • Jolasaldietarako ekintzak zehaztu eta bideratu: jolas antolatuak, kirol-txapelketak, kidetze-saioak… • Ikasle elkarteak sortu eta martxan jarri	– Urteko plana – Jardueren balioespen-galdetegiak	– Zuzendaritza – Hizkuntz Proiektua Taldea – Euskaraz Bizi Taldea

Irteerak, egonaldiak eta kanpaldiak

Atal hau behatzearen helburua ekintza horiek euskararen erabilera eta euskal kulturaren baitako bizipenak sustatzeko erabiltzen diren aztertzea da.

Atal honetan, beraz, aipatutako helburuarekin antolatzen diren ekintzak bilduko dira; batez ere, ekintza horiek euskaraz gauza daitezen ziurtatzeko irizpideak nahiz erabakiak. Eremu honetan eragiteko garaian, beste hizkuntza batzuk indartzeko egiten diren gisa horretako ekintzak ere kontuan hartu beharko dira, eta guztien arteko oreka egokia bermatu beharko da.

GELAZ KANPOKOA – IRTEERAK, EGONALDIAK ETA KANPALDIAK HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Irakasleen hizkuntz erabilera	Irakasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Irakaslea kontziente izatea irteeretako komunikazio-egoerei, nagusiki hizkera ez-formala eta, balego, euskalkia dagozkiela	• Hizkuntz portaerak adostu eta, baleude, birgogoratu • Irteeretan ikasleekin erabili beharreko hizkuntz erregistroa adostu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikasleekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Urteko plana	
		Beste erakunde batzuekin antolatutako jardueren hizkuntza ziurtatzea	• Ikastolak gai horren inguruan dituen erabakiak aplikatu eta horien jarraipena egin	— Jardueren asebetetze-maila	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Ikasleen hizkuntz erabilera sistematikoki behatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	

METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Ekintza horietan dauden komunikazio-egoerak ustiatzea hizkuntzaren mesedetan	Irakasle edo hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta erabiltzea	• Ikasleen interesguneetan oinarritzen diren ekintzak zehaztu eta bideratu • Ekintza horiek hizkuntza aldetik ustiatzeko estrategiak irakasleen eskura jarri • Ekintza horietan euskal kultura eta identitatea landu dadin erabili beharreko estrategiak irakasleen eskura jarri	— Jardueren balioespen-galdetegiak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

Sarrera-irteerak

Atal honen helburua sarrera-irteeretako hizkuntz erabilera aztertzea eta girotzea da. Atal honetan jasoko dira, beraz, hizkuntzaren erabilera suspertze aldera une horietan egiten diren esku-hartzeak.

GELAZ KANPOKOA – SARRERA-IRTEERAK HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Ikasleen hizkuntz erabilera	Sarrera-irteeretan ikasleen hizkuntz harremanak euskarara lerratzeko urratsak egitea	Ikasleen hizkuntz erabilera behatzea	• Hiztun-neurketak egin	— Erabilera-indizea	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
		Ikasleen eta euren familien arteko hizkuntz erabilera behatzea	• Hiztun-neurketak egin	— Erabilera-indizea	
		Sarrera-irteerak euskal girora ekartzea	• Paisaia euskaratu eta euskal kulturaren adierazletzat jo daitezkeen elementuak jarri • Megafoniaz baliatu euskal musika jartzeko	— Paisaiaren behaketa	

Jantokia

Jantokia ikastola barruko esparrua denez gero, ikastolak bere gain hartu behar ditu esparru horretan hizkuntzari ematen zaion trataeraren ardura eta bermea. Hartara, atal hau aztertzearen helburua esparru horretako komunikazioa euskaraz gauza dadin bideak jartzea da.

Atal honetan bilduko dira, beraz, ikasleen hizkuntz erabilera euskara-ra lerratzeko ekintzak, bai eta esparru horretako langileek edo irakas-leek erabili beharreko estrategiak adosteko eta lantzeko ekintzak ere.

GELAZ KANPOKOA – JANTOKIA HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hezitzaileen hizkuntz erabilera	Jantokiko hezitzaileen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta, esku-hartze plangintza diseinatzea	• Hezitzaileen hizkuntz erabilera behatu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu • Lortutako emaitzen araberako esku-hartze plangintza idatzi • Adin-tarte bakoitzari dagokion egitaraua antolatu eta hezitzailea dinamizatzaile bihurtu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Jantokiko koordinatzailea
		Hezitzailea kontziente izatea esparru horretako komunikazio-egoerei, nagusiki hizkera ez-formala eta, balego, euskalkia dagozkiela	• Jantokian ikasleekin erabili beharreko hizkuntz erregistroa adostu • Behar izanez gero, esparruko eragileentzat prestakuntza bideratu	— Antolatutako ekintzetan erabilitako hizkuntz erregistroa	
Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Hezitzaileen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikaslerekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Behaketak sistematizatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jantokiko komunikazio-egoerak hizkuntzaren mesedetan ustiatzea	Hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta burutzea	• Bazkalosteko tartean egiten den jarduera-eskaintza ikasleentzat albait motibagarrien egin eta jarduerak euskaraz bideratuko direla ziurtatu • Ekintza horiek hizkuntzaren aldetik ustiatzeko estrategiak hezitzaileen eskura jarri • Hizkuntza teknikoaren lanketa egin: menuaren lanketa, eremuko berariazko esamoldeen eta hiztegiaren lanketa	— Urteko plana — Jardueren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Jantokiko koordinatzailea

Garraioa

Garraio-zerbitzua ikastolako eremu den neurrian, ikastolak bere gain hartu behar du esparru horretarako hizkuntz irizpideak finkatzearen eta horiek jarraitzearen ardura. Horixe izango da, beraz, atal hau aztertzearen helburua.

Hartara, atal honen barruan jasoko dira, besteak beste, ikasleek esparru horretan duten hizkuntz erabileraren gaineko behaketak eta garraioan parte hartzen duten begirale nahiz gidarien komunikazio-gaitasun nahiz jarrera egokiak bermatzeko ekintzak.

GELAZ KANPOKOA – GARRAIOA					
HIZKUNTZ ERABILERA					
Begiraleen hizkuntz erabilera	Begiraleen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Euskaraz aritzeko aukera ematen duen gunetzat hartzea autobusa begiraleek	• Hizkuntz portaerak begiraleekin landu • Begiraleen hizkuntz erabilera behatu • Lortutako emaitzen araberako eskuhartze plangintza idatzi	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Garraio eta zerbitzuetako koordinatzailea
Begiraleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Begiraleen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikasleekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Begiraleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu • Ikasleak euskara erabiltzera bultzatzeko estrategiak begiralearen eskura jarri	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Behaketak sistematizatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	

Eskolaz kanpoko ekintzak

Atal hau aztertzearen helburua eskolaz kanpoko ekintzetan gertatzen den hizkuntz erabileran eragiteko neurriak hartzea da.

Atal honetan, beraz, eskolaz kanpoko aisia nahiz kirol ekintzen inguruko irizpideak eta ekimenak bilduko dira. Ikastolak antolatutako

eskolaz kanpoko ekintzak direnean, ekintza horietan zer hizkuntza erabiliko den eta erabilera hori bultzatzeko zer estrategia eta jarduera txertatuko diren zehazteko ekintzak jasoko ditugu. Aitzitik, ekintza horiek antolatzeko ardura beste elkarte edo erakunde batena denean, ikastolak ekintza horien inguruko hizkuntz irizpideak proposatu eta horien jarraipena egin beharko du. Horrelakoetan, hizkuntz irizpideen inguruan egindako lanak edo urratsak jasoko dira.

GELAZ KANPOKOA – ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hezitzaileen hizkuntz erabilera	Hezitzaileen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta esku-hartze plangintza diseinatzea	• Hezitzaileen hizkuntz erabilera eta jarrerak behatu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu • Lortutako emaitzen araberako esku-hartze plangintza idatzi • Hezitzaileen prestakuntza-plana diseinatu eta haren jarraipena egin	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Eskolaz kanpoko ekintzen koordinatzailea
Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Hezitzaileen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikaslearekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Behaketak sistematizatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Eskolaz kanpoko komunikazio-egoerak euskararen mesedetan ustiatzeko urratsak egitea	Hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta burutzea	• Ikasleentzat jarduera-eskaintza albait motibagarriena egin eta jarduerak euskaraz bideratuko direla ziurtatu • Ikasleak euskara erabiltzera bultzatzeko estrategiak hezitzaileen eskura jarri	— Urteko plana — Jardueren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Eskolaz kanpoko ekintzen

Jaiak eta ospakizunak

Atal hau aztertzearen helburua jai eta ospakizunetan gertatzen den hizkuntz erabileran eragitea nahiz ekintza horien bidez euskal kulturaren baitako bizipenak sustatzea da.

Atal honetan, beraz, jai eta ospakizunen inguruko irizpideak eta ekimenak bilduko dira, besteak beste, euskal kultura eta euskararen arteko lotura indartzeko nahiz ikasleen artean hausnarketa bideratzeko egiten diren jai-ospakizunen inguruko ekintzak, eta ikastolak kanpoko eragileekin antolatutako jai-ospakizunetarako hizkuntz irizpideak. Atal hau antolatzerakoan, ikastolako hizkuntza guztien arteko oreka bermatu beharko da.

GELAZ KANPOKOA – JAIAK ETA OSPAKIZUNAK HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Partaideen hizkuntz erabilera	Partaideen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta, esku-hartze plangintza diseinatzea	• Partaideen hizkuntz erabilera eta jarrerak behatu eta aurrera begirako esku-hartze plangintza zehaztu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Jai eta ospakizunen koordinatzailea
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jai eta ospakizunetako komunikazio-egoerak euskararen mesedetan ustiatzeko urratsak egitea	Partaide guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta erabiltzea	• Jai eta ospakizun eskaintza ikasleentzat albait motibagarrien egin eta jarduerak euskaraz bideratuko direla ziurtatu • Ekintza bakoitzari dagokion hizkuntz erregistroaren lanketa egin	— Urteko plana — Jardueren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Eskolaz kanpoko ekintzen koordinatzailea

10.2.3 Hezitzaileen prestakuntza

Hezitzaileen prestakuntzak hiru ardatz izango ditu: batetik, hezitzaileek esparru horretan eroso aritzeko beharrezko duten hizkuntz errepertorioa lantzea eta garatzea; bigarrenik, eremu horretan gauzatzen

diren egoera komunikatiboak kudeatzeko estrategiak lantzea eta garatzea; eta azkenik, hizkuntzekiko jarrera egokiak lantzea. Izan ere, hizkuntza gutxiagotuen indarberritzean ezinbestekoa da jarreretan eragitea, gutxiagotze-prozesuan zehar eragindako aurreiritzi negatiboak, konplexuak nahiz oztopoak gainditu ahal izateko (ikus erreferentzia-markoaren 5. atala).

Jarraian, hiru esparru horiek aztertzeko hainbat orientabide aipatuko da.

• ***Hizkuntz hobekuntza***

Atal hau arakatzearen helburua hezitzaileen komunikazio-gaitasuna hobetzeko prestakuntza bideratzea da. Hartara, atal honetan jasoko dira hizkuntz erregistro ez-formalak edota hizkuntza teknikoak garatze aldera abiatzen diren prestakuntza-ekimenak.

• ***Metodologia eta didaktika***

Atal hau lantzearen helburua hezitzaileek ikasleen hizkuntz erabilera sustatzeko duten gaitasunean eragitea da.

Hartara, atal honetan bilduko dira gelaz kanpoko jarduera horiek kudeatzeko metodologiari dagozkion prestakuntza-ekintzak; horien artean, esaterako, ahozkoaren erabileran (kantitatean nahiz kalitatean) eragiteko jarduerak izango ditugu, ahozko adierazpenaren ingurukoak izango baitira gelaz kanpokoan sortuko diren hizkuntz behar nagusiak.

• ***Hizkuntzekiko jarrerak***

Atal honen helburua da hezitzaileen hizkuntzarekiko motibazioa nahiz sinesmen-balioak aztertzea eta, behar izanez gero, horietan eragiteko formazio-ekintzak bideratzea.

Jarraian, hainbat orientabide aurkeztuko da hezitzaileen prestakuntzari dagokion atal honetan eragiteko.

GELAZ KANPOKOA HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hezitzaileen prestakuntza	Ikastolak bideratutako gelaz kanpoko jardueretako hezitzaile guztiek prestakuntza egokia eskuratzea	Hezitzaileen prestakuntza-plana antolatzea eta aurrera eramatea	• Prestakuntza beharrak identifikatu eta lehentasunak finkatu • Prestakuntza eskaini eta jarraipena egin • Ikasitakoa praktikara eramaten dela ziurtatu eta balioetsi • Aurrera begira, hezitzaile berriek prestakuntza-ildoak jasoko dituztela ziurtatu	— Prestakuntza-plana — Balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

10.2.4. Baliabideak

Gelaz kanpoko eremuan zehaztu diren lan-ildoak garatu ahal izateko Ikastolak eskura dituen baliabideak aztertzea izango da atal hau behatzearen helburua.

Hartara, atal honetan jasoko dira baliabide horiek osatzeko irizpideak eta ekintzak; besteak beste, material bildumen katalogoak (hiztegi teknikoak, musika bildumak...) osatzeko erabakiak eta hizkuntz irizpideak bilduko dira.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

GELAZ KANPOKOA BALIABIDEAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Gune eta zerbitzuetako baliabideen hizkuntz trataera	Gelaz kanpoko eremuak behar dituen baliabideak definitzea	Beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko aurreikuspena egitea	• Ingurune soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, baliabideen hizkuntz irizpideak idatzi • Baliabideak aurrekontuetan aurreikusi	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Aurrekontua	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

10.3. Eremu instituzionala

Eremu instituzionala ikastolako hizkuntz politikari dagokio, eta bertan hartzen diren erabakiak funtsezkoak izango dira ikasleek testuinguru ahalik eta euskaldunena izan dezaten.

Zehazkiago, beraz, eremu instituzionalean eragiteko helburu nagusiak izango dira hezkuntza-komunitatearen harreman-sareetan euskararen erabilera eragozten duten etenak identifikatzea eta horiek gainditzeko estrategiak abian jartzea.

Hauek dira eremu hau garatzeko erabil ditzakegun erreferentziazko dokumentuak:

Ikastolen Hizkuntz Proiektua (4.2. eta 9.1.1. atalak) (EHIK)

Ikastola: izaera eta egitura (EHIK, 1988)

Euskaraz Bizi (Jose Luis Gorostidi, 1991)

Langileentzako eta gurasoentzako prestakuntza-eskaintzen katalogoa

Datozen ataletan, eremu instituzionalak bere baitan hartzen dituen eraketa eta barne-komunikazioa eta kanpo-harremanen eremuak deskribatu, eta horietan eragiteko orientabide batzuk aipatuko dira.

10.3.1. Eraketa eta barne-komunikazioa: ikastetxea

Atal hau behatzearen helburua ikastolako eraketari eta barne-funtzionamenduari dagokion hizkuntz politika aztertzea da.

Atal honetan jasoko dira, esaterako, ikastolako dokumentazioa sortzeko nahiz kudeatzeko hizkuntz irizpideak, langile ez-hezitzaileen hizkuntz profila eta prestakuntza-beharrak, eta hizkuntz paisaiari dagozkion jarraibideak.

• Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta trataera

Atal hau behatzearen helburua ikastolako hizkuntz politika orokorra finkatuta eta jasota dagoen aztertzea da.

Hartara, hizkuntz politika hori adosteko eta finkatzeko ekintzez gain, organo horien funtzionamendurako (dokumentazioa prestatzeko, bilerak egiteko...) hizkuntz irizpideak zehazteko eta jarraitzeko ekintzak bilduko ditu atal honek.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta trataera	Gobernu, administrazio eta zuzendaritzaren barne- eta kanpo-harremanetarako hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Barne- eta kanpo-harremanetarako hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• Erabakiak hartu eta gizarteratu • Erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu- organoetako partaideei euskaraz aritzeko gaitasuna eskatu berauetan parte hartu ahal izateko • Euskaraz aritzeko zailtasunak dituztenen kasuan prestakuntza eskaini • Jendaurrean aritu behar dutenen kasuan, lehendakaria kasu, euskaraz aritzeko gaitasuna bermatu • Batzar orokor eta bestelako bileretan euskara izatea komunikazio-hizkuntza nagusia	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

• Langileen hizkuntz profila

Atal hau behatzearen helburua ikastolako langileen hizkuntz ezaugarriak aztertzea da. Atal honetan bilduko dira, beraz, ikastolako irakasle nahiz bestelako langileen hizkuntz profilen inguruko irizpideak adosteko eta erabaki horiek betetzen direla bermatzeko ekintzak.

Hona hemen atal horretan eragiteko hainbat orientabide.

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Langileen hizkuntz profila	Ikastolako irakasleen nahiz bestelako profesionalen hizkuntz profila adostea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Langileen hizkuntz profilak zehaztea	• Lanpostu bakoitzerako profil egokia zehaztu eta erabakitakoa Hizkuntz Proiektuan txertatu • Profesional guztiek erabakitako hizkuntz profila betetzen dutela ziurtatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

- **Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak**

Atal hau behatzearen helburua ikastolako dokumentu nagusien hizkuntz irizpideak aztertzea da. Hartara, dokumentu horiek hizkuntzei buruz jasotzen dituzten aipamenen arteko koherentzia aztertzeaz gain, zer hizkuntzatan idatzi diren arakatuko da.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak	Ikastolako dokumentazioari dagokion hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Dokumentu horiek guztiak euskaraz izatea, atzerriko hizkuntzari dagozkion programazioak salbu	• Hizkuntz irizpideak finkatu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Dokumentazioa euskaratu (behar izanez gero)	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
	Ikastolako dokumentazioan hizkuntz gaiei buruz egiten diren aipamenak elkarren artean koherenteak izatea	Dokumentuak aztertzea eta koherentzia ziurtatzea	• Dokumentazioa aztertu	— Dokumentazioa	

• Langileen prestakuntza

Langileen prestakuntzak bi ardatz izango ditu: batetik, langileek beren lanean eroso aritzeko beharrezkoa duten hizkuntz gaitasuna lantzea eta garatzea; bigarrenik, hizkuntzekiko jarrera egokiak lantzea.

Jarraian, bi esparru horiek aztertzeko hainbat orientabide aipatuko dira.

Hezitzaile ez diren langileen hizkuntz prestakuntza

Atal hau aztertzearen helburua da eremu instituzionalerako hautatutako ildoak gauzatu ahal izateko ikastolako langileek beharko duten hizkuntz prestakuntza zehaztea. Atal honetan bilduko dira, beraz, ikastolako langile ez-hezitzaileen hizkuntz gaitasuna nahiz jarrerak garatzeko prestakuntza-ekintzak.

Hizkuntzekiko jarrerak

Atal hau lantzearen helburua, hain zuzen, langileen hizkuntzarekiko motibazioa nahiz sinesmen-balioak aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, horietan eragiteko formazio-ekintzak bideratzea da.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA LANGILEEN PRESTAKUNTZA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Langileen hizkuntz prestakuntza	Ikastolako langile orok euskaraz egoki aritzeko gaitasuna izatea	Langileen hizkuntz beharrei erantzutea	• Ikastolako prestakuntza-planean langileen hizkuntz beharrak kontuan hartu • Langileen hizkuntz profilen egokierarako prestakuntza eskaini eta bideratu • Ikasitakoa praktikara eramaten dela ziurtatu eta balioetsi • Aurrera begira, langile berriek prestakuntza-ildoak jasoko dituztela ziurtatu	— Prestakuntza-plana — Prestakuntzako balioespen-galdetegiak	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektu Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

• **Baliabideak**

Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz trataera

Atal honen helburua ikastolako ekonomia eta administraziorako dokumentazio ofizialaren inguruan dagoen hizkuntz politika jasotzea da.

Hartara, atal honetan bilduko dira, esaterako, administrazioari eta ekonomiari buruzko dokumentuetan, guraso edo irakasleei bidaltzen zaizkien jakinarazpenetan eta antzerako bestelako dokumentuetan jarraitu beharreko hizkuntz irizpideak, bai eta erabaki horien jarraipena egiteko ekintzak ere.

Hona hemen atal honetan eragiteko hainbat orientabide.

ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA BALIABIDEAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioaren hizkuntz trataera	Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioari dagokion hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Dokumentu orokorrak zein diren zehaztu • Ekonomia- eta administrazio-mailako esku-hartzea zehaztu • Euskararen erabilera arautzeko proposamena idatzi • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioa	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

IKT euskarrien hizkuntz trataera

Atal honen helburua ikastolan erabiltzen diren IKT euskarrien hizkuntz irizpideak finkatzea da. Hartara, hemen bilduko dira euskarri horien hizkuntza definitze aldera egiten diren ekintzak.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

BALIABIDEAK	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA				
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
IKT euskarrien hizkuntz trataera	IKT euskarriei dagokien hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• IKT euskarrien hizkuntzari buruzko erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — IKT euskarriak	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

Ikastolako espazioen hizkuntz trataera

Atal hau aztertzearen helburua hizkuntz paisaiari buruzko irizpideak aztertzea da, betiere eleaniztasuna kontuan izanda.

Atal honetan jasoko dira, besteak beste, ikastolako espazioen hizkuntz antolaketarako irizpideak adosteko eta horiek jasotzeko ekintzak, bai eta gai horren inguruan hartzen diren erabakiak jarraitzeko ekimenak nahiz dokumentazio ofizialean txertatzekoak ere.

Hona hemen atal honetan eragiteko orientabide batzuk:

BALIABIDEAK	ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA				
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Ikastolako espazioen hizkuntz trataera	Ikastolako espazioak euskalduntzea	Ikastolako espazioen hizkuntza zehaztea	• Espazio bakoitzak duen funtzioaren araberako hizkuntz irizpideak proposatu eta adostu • Informazio-guneen hizkuntza(k) definitu • Ikastolako errotulazioa euskaldundu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Argazkiak — Aurrekontua	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
		Aurrekontuetan hizkuntz paisaia euskalduntzeko baliabideak eskuratzea (IKE)	• Hizkuntz paisaia euskalduntzeko eskura dauden baliabideak eskuratu eta erabili	— Argazkiak — Aurrekontua	

10.3.2. Eraketa eta barne-komunikazioa: familia

Atal hau behatzearen helburua familien hizkuntz erabilera nahiz hizkuntzekiko jarrerak aztertzea da. Izan ere, etxea da ikastolarekin batera hizkuntza bereganatzeko edota horren aldeko jarrera eraikitzeko ikasleak duen esparrua.

Hartara, atal horretan jasoko dira gurasoek hizkuntzaren esparruan dituzten nahiak, usteak, motibazioak, beharrak eta horiei erantzuteko ekintzak.

Datozen ataletan eremu honetan eragiteko hainbat orientabide aipatuko da.

• Familien tipologia

Atal hau behatzearen helburua ikastolako familien hizkuntz ezaugarriak jasotzea da. Hartara, atal honetan bilduko dira familien hizkuntz tipologia nahiz hizkuntz jarrerak aztertzeko eta horien bilakaera neurtu eta aurreikusteko ekintzak.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Familien tipologia	Ikastolako familien tipologia aztertzea	Familia-hizkuntza eta jarrera-tipologien diagnosia egitea	• Familia-tipologiak ezagutzeko datu-bilketa sistematizatu • Familia-tipologia bakoitzarentzat estrategia-plana proposatu eta adostu • Familia-tipologia bakoitzari egiten duen praktikarekiko esku-hartze proposamena egin	— Ikasdat — Estrategia-plana — Aholku-bilduma	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

• Familia barruko hizkuntz erabilera

Atal hau aztertzearen helburua ikastolako familietako kideen hizkuntz erabilera ezagutzea da.

Atal honetan jasoko dira, besteak beste, helburu horrekin bideratzen diren galdekizunen edo bestelako ekintzen inguruko aipamenak.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Familia barruko hizkuntz erabilera	Familia barruko hizkuntz erabilera zein den ezagutzea	Familia barruko hizkuntz erabilera neurtzea	• Galdetegiak pasatu eta datuak bildu • Datuen arabera interbentzio-plana diseinatu eta abian jarri	— Familia barruko hizkuntz erabileraren diagnosia	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

• Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak

Atal hau behatzearen helburua gurasoekiko harremanak bideratzeko irizpideak eta erabakiak aztertzea da. Atal honetan bilduko dira, besteak beste, familien hizkuntz tipologiaren arabera, ikastolak familiekiko harremanetan jarraituko dituen hizkuntz irizpideak erabakitzeko eta finkatzeko ekintzak.

Hona hemen esparru honetan eragiteko hainbat orientabide:

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak	Familien hizkuntz tipologiaren arabera, ikastolak familiekiko harremanetarako hizkuntz irizpideak zehaztea	Familiarekin ahoz nahiz idatziz izaten diren harremanen hizkuntz irizpideak idaztea	• Gurasoak partaide diren bileretako hizkuntz erabilera erabakitzeko, informazioa bildu irakasleen eta gurasoen artean • Jasotako datuen arabera erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
		Familia eta ikastolaren arteko harremanak euskaraz izatea bultzatzea	• Ikasturte hasierako guraso bileretan euskararen erabilerarekiko sentsibilizazioa egin • Irakasleek familien hizkuntz portaeran duten eraginaz hausnartu	— Gurasoekiko harreman-bideak (gutunak, bilerak...)	

• Gurasoen prestakuntza

Atal hau aztertzearen helburuak gurasoen komunikazio-gaitasuna eta prestakuntza-beharrak identifikatzea eta horiei erantzutea dira.

Atal honetan, beraz, bi ildo nagusiren inguruko ekimenak bilduko dira. Batetik, gurasoen hizkuntz maila jasotzeko prestakuntza-ekimenak; bestetik, euskararen indarberritzeari begira edo eleaniztasunaren inguruan antolatutako ekintzak (hitzaldiak, motibazio-saioak, ikastolako hainbat proiekturen aurkezpen-saioak eta abar).

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA GURASOEN PRESTAKUNTZA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Gurasoen hizkuntz prestakuntza	Gurasoak euskararen erabileran eragile izatea	Gurasoen hizkuntz beharrei erantzutea eta euskaldunak ez diren familietan euskararekiko jarrera lantzea	• Ikastolako prestakuntza-planean gurasoen prestakuntza kontuan hartu • Familia-tipologia bakoitzari egokitutako prestakuntza-proposamena bideratu	– Prestakuntza-plana – Prestakuntzako balioespen-galdetegiak	– Gobernu-organoa – Zuzendaritza – Hizkuntz Proiektua Taldea – Euskaraz Bizi Taldea

• Baliabideak

Atal honen helburua ikastolak dituen komunikazio-baliabideen hizkuntz irizpideak finkatzea da. Hartara, hemen bilduko dira ikastolako aldizkari, web-orri eta antzerako komunikabideen hizkuntza finkatze aldera egiten diren ekintzak.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA BALIABIDEAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Komunikazio-baliabideen hizkuntz trataera	Komunikazio-baliabideei dagokien hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• Komunikazio-baliabideen hizkuntzari buruzko erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Komunikazio-baliabideak	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Komunikazio-arduraduna

10.3.3 Kanpo-harremanak

Atal honetan, ikastolaren eta haren inguruan dauden gizarte-egituren arteko harremanak aztertuko dira, hizkuntzaren erabileran urratsak egin ahal izateko gizartearen babesa eta inplikazioa ezinbestekoak baitira.

Hortaz, atal honetan jasoko dira, besteak beste, ikastolak gizartearen euskalduntzean eragiteko hartzen dituen erabakiak eta abian jartzen dituen ekintzak.

• Beste ikastetxeekiko harremanak

Atal hau aztertzearen helburua ikastolak beste ikastetxeekiko harremanetarako dituen hizkuntz irizpideak finkatzea da.

Atal honetan jasoko dira, hortaz, inguruko edo sare bereko beste ikastetxeekin aritzeko hizkuntz irizpideak zehazteko eta gauzatzeko ekintzak.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

EREMU INSTITUZIONALA KANPO-HARREMANAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Beste ikastetxeekiko harremana	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Inguruko beste ikastetxeekin edo sarekoekin aritzeko hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA	– Gobernu-organoa – Zuzendaritza – Hizkuntz Proiektua Taldea – Euskaraz Bizi Taldea

• Gizarte-elkarteekiko harremanak

Atal hau aztertzearen helburua ikastolak gizarte-elkarteekiko harremanetarako dituen hizkuntz irizpideak finkatzea da.

Beraz, hemen jasoko dira ikastolari edo ikasleei zuzenean zerbitzua ematen dieten elkarteekin jarraitu beharreko hizkuntz irizpideak finkatzeko eta gauzatzeko ekintzak.

Hona hemen eremu honetan eragiteko hainbat orientabide:

EREMU INSTITUZIONALA KANPO-HARREMANAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Gizarte-elkarteekiko harremanak	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Ikastolari edota ikasleei zuzenean zerbitzua ematen dieten elkarteekiko hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA	– Gobernu-organoa – Zuzendaritza – Hizkuntz Proiektua Taldea – Euskaraz Bizi Taldea

• Udal eta beste herri-erakundeekiko harremanak

Atal hau aztertzearen helburuak ikastolak udal eta beste herri-erakundeekin euskararen sustapenerako egin beharreko elkarlana zehaztea, balioestea eta bultzatzea dira.

Hortaz, atal honetan bilduko dira ikastolak administrazioko erakundeekin nahiz bestelako herri-elkarteekin dituen harremanetarako hizkuntz irizpideak finkatzeko eta gauzatzeko ekintzak; bai eta horiekin elkarlanean aritzeko hartzen diren neurriak ere.

Jarraian, atal honetan eragiteko hainbat orientabide aurkeztuko da.

EREMU INSTITUZIONALA KANPO-HARREMANAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Udal eta beste herri-erakundeekiko harremanak	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Ikastolak administrazioko edozein erakunderekin dituen harremanetarako hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
		Udaletako Euskara Batzorde nahiz inguruko Euskara Elkarteekin elkarlanean aritzea	• EBPN-n parte hartu • Ikastolaren urteko planak udaleko euskara-teknikariari aurkeztu • Udaleko euskara-teknikariarekin baliabideak negoziatu • Udalak nahiz inguruko Euskara Elkarteek antolatutako ekintzetan parte hartu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

• Hornitzaileekiko harremanak

Atal hau aztertzearen helburua ikastolaren bestelako gizarte-harremanetarako hizkuntz irizpideak finkatzea da.

Atal honetan jasoko dira, beraz, enpresekin (garraioa, catering zerbitzuak, garbitzaileak eta abar) edota hornitzaileekin aplikatu beharreko hizkuntz irizpideak jasotzeko nahiz gauzatzeko ekintzak.

Hona hemen eremu honetan eragiteko hainbat orientabide:

EREMU INSTITUZIONALA KANPO-HARREMANAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hornitzaileekiko harremanak	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Ikastolak enpresekin edota hornitzaileekin aplikatu beharreko hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA	– Gobernu-organoa – Zuzendaritza – Hizkuntz Proiektua Taldea – Euskaraz Bizi Taldea

11 Hizkuntz Proiektuaren kudeaketarako egitura eta zeregin proposamena

Hizkuntz Proiektuaren sorkuntzak, garapenak eta balioespenak, ikastolan egun dauden gobernu- nahiz funtzionamendu-organo guztien inplikazioaz eta elkarlan sendoaz gain, azken horren barruan txertatuko den berezko antolaketa egonkor baten beharra eskatzen du: Hizkuntz Proiektua Taldea, Hizkuntz Departamentu Bateratua eta Euskaraz Bizi taldea. Azken biak Hizkuntz Proiektua Taldearen barruko azpi-taldeak izango lirateke. Ondorengo irudian Hizkuntz Proiektuaren kudeaketak beharrezkoa duen egitura egonkorra berdez ikus daiteke, eta txuriz, berriz, hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatzearren Hizkuntz Proiektuaren lankidetza beharrezkoa izango duten eremuak.

Datozen ataletan, ohiko gobernu-organoek eta Ikastolako zuzendaritzak Hizkuntz Proiektua gauzatzean dituzten zereginak zerrendatu eta Hizkuntz Proiektua Taldea, Hizkuntz Departamentu Bateratua eta Euskaraz Bizi Taldea deskribatuko ditugu.

11.1. Ikastolaren gobernu-organoei dagozkien zereginak

Gobernu-organoek (Ikastolaren Batzordea, Ikastolaren Batzar Nagusia eta abar) ikastolako ildo nagusiak finkatzearen eta haiek gauzatzea ziurtatzearen ardura dute. Beraz, Hizkuntz Proiektuarekiko zeregin nagusiak honakoak lirateke:

- Hizkuntz Proiektuaren beharra aztertu eta haren sorkuntza onetsi
- Hizkuntz Proiektua garatu ahal izateko diru-baliabideak aurrekontuetan onetsi
- Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoa, urteko plangintzak eta memoriak balioetsi eta onetsi

11.2. Zuzendaritzari dagozkion zereginak

Zuzendaritzak gobernu-organoetan hartutako erabakiak bideratzearen eta gauzatzearen ardura du. Beraz, Hizkuntz Proiektuarekiko honakoak lirateke haien zeregin nagusiak:

- Hizkuntz Proiektua lantzearen eta gauzatzearen beharra aztertu eta hezkuntza-komunitatearekin adostu
- Hizkuntz Proiektua Taldearen eraketa eta haren ezaugarri nagusiak zehaztu: kideak aukeratu, arduraduna izendatu, helburuak finkatu eta abar
- Euskaraz Bizi batzordearen eraketa eta haren ezaugarri nagusiak zehaztu: kideak aukeratu, arduraduna izendatu, helburuak finkatu eta abar
- Ikastolarako proposatzen den Hizkuntz Proiektua aztertu eta egokia izanez gero oniritzia eman
- Ikastolako ohiko barne-funtzionamendua bideratzen duten erreferente nagusietan (curriculum proiektua, barne-araudia, urteko plana, aurrekontuak…) Hizkuntz Proiektuarekiko isla ziurtatu
- Hizkuntz Proiektua Taldeak proposatutako hizkuntzaren prestakuntza-plana aztertu eta ikastolako prestakuntza-planean txertatu
- Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoak eta urteko plangintzak aztertu, onespena landu, eta ikastolako gestio-planean eta urteko plangintzan txertatu

- Urteko plangintzaren jarraipena egin eta urteko memorien balioespenean parte hartu
- Plan estrategikoaren jarraipena egin eta bere memoriaren balioespenean parte hartu

11.3. Hizkuntz Proiektua Taldearen osaketa

Aipatu bezala, hiru dira Hizkuntz Proiektuaren garapena bideratzeko beharrezkoak izango diren talde iraunkorrak: batetik, Hizkuntz Proiektua Taldea eta, bestetik, azken horren koordinaziopean kokatuko liratekeen Hizkuntz Departamentu Bateratua eta Euskaraz Bizi Taldea. Hizkuntz Proiektua Taldearen osaketari dagokionez, honakoak lirateke taldeko kideak eta haiek bete beharreko funtzioak eta ezaugarriak.

Hizkuntz Proiektuko dinamizatzaile orokorra

Dinamizatzaile orokorraren zeregina Hizkuntz Proiektua garatzeko ekimenak eta horien arduradunak koordinatzea izango denez, komeni da dinamizatzaile orokorrak eskumena izatea erabakiak hartzeko eta betearazteko. Ikastolako zuzendari pedagogikoa, ikasketa-burua edo arduradun pedagogikoa izatea litzateke egokiena; hala ez balitz, Hizkuntz Proiektuko dinamizatzaile orokorra zuzendaritza taldean integratu beharko litzateke. Horretaz gain, dinamizatzaile orokorrak honako ezaugarriak izan beharko ditu:

- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ezagutza izatea
- Hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarekin eta erabilerarekin zerikusia duten esparruen oinarrizko ezagutza izatea
- Prestakuntzarako grina izatea
- Ekimen handiko pertsona izatea
- Planifikaziorako eta lanen jarraipena egiteko sistematikoa izatea

- Komunikaziorako trebea izatea
- Taldeak dinamizatzeko gaitasuna izatea
- Talde-lana egiteko gaitasuna izatea

Gela barruko eremuaren dinamizatzailea

Eremu honen dinamizatzailearen zeregina Hizkuntz Proiektuaren garapenak curriculumaren eremuan beharrezkoak dituen ekintzak bideratzea eta koordinatzea izango denez, dinamizatzaile horrek honako ezaugarriak bete ditzan komeni da:

- Konpetentzietan oinarritutako curriculum-lanetan eta metodologietan eskarmentua izatea, bereziki hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan
- Ekimen handiko pertsona izatea
- Planifikaziorako eta lanen jarraipena egiteko sistematikoa izatea
- Taldeak dinamizatzeko gaitasuna izatea
- Talde-lana egiteko gaitasuna izatea

Euskaraz Biziko dinamizatzailea

Euskaraz Biziko dinamizatzailearen zereginak Euskaraz Bizi Taldea gidatzea eta koordinatzea izango dira. Talde horren egitekoa Hizkuntz Proiektuaren garapenak gelaz kanpoko eremuan nahiz eremu instituzionalean beharrezkoak dituen ekintzak bideratzea izango denez, Euskaraz Biziko dinamizatzaileak honako ezaugarriak bete ditzan komeni da:

- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ezagutza izatea
- Euskararen normalkuntzan inplikatuta egotea
- Prestakuntzarako grina izatea

- Ekimen handiko pertsona izatea
- Planifikaziorako eta lanen jarraipena egiteko sistematikoa izatea
- Komunikaziorako trebea izatea
- Talde-lana egiteko gaitasuna izatea
- Ikasleekin harremanetarako erraztasuna izatea

11.4. Hizkuntz Proiektua Taldearen zereginak

Hizkuntza Proiektua Taldearen zereginak hauexek izango lirateke:

- Ikastolaren gela barruko eta gelaz kanpoko eremuetan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntzaren eta erabileraren arteko koherentzia eta kohesioa bermatzea; bereziki, komunikatzen ikasi konpetentziaren garapena ziurtatzeko eta hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatzeko
- Euskararen normalizazioan eta eleaniztasunean eragile izatea
- Ikastolako hizkuntz egoeraren diagnosia bideratzea
- Ikastolak hizkuntzekiko dituen beharrei eta lehentasunei erantzuteko plan estrategikoa idaztea, zuzendaritzari proposatzea eta zuzendaritzarekin batera plan estrategikoaren balioespena egitea
- Ikastolaren Hizkuntz Proiektua idaztea eta eguneratzea, betiere Ikastolaren Hezkuntza Proiektuarekiko eta Curriculum Proiektuarekiko koherentzia zainduz
- Hezkuntza-komunitate osoari antzemandako hizkuntz beharrei erantzute aldera, hizkuntzaren prestakuntza-plana diseinatu eta zuzendaritzari proposatu. Hizkuntz prestakuntza horrek bere baitan bilduko ditu hizkuntzen metodologia, didaktika eta hobekuntza ekintzak, bai eta hizkuntzekiko jarreren ingurukoak ere

- Hizkuntz Proiektuaren urteko plangintza proposatzeaz eta baloratzeaz gain, hiru hilerik behin plangintza horren jarraipena egitea
- Azpi-taldeen proposamenak (Hizkuntz Departamentu Bateratuarenak, Euskaraz Bizi Taldearenak nahiz hizkuntzaren trataerarekin loturiko beste edozein talderenak) aztertzea eta horien gaineko erabakiak hartzea edo proposatzea
- Hizkuntz Proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskatzea

Zeregin horiek bete ahal izateko, Hizkuntz Proiektua Taldearen eguneroko jardunean honako puntuak aintzat hartu beharko dira:

- Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte
- Erabakiak adostasunez hartuko dira eta, zuzendaritzaren onespenarekin, erabaki horiek lotesleak izango dira

11.5. Hizkuntz Departamentu Bateratuaren osaketa eta zereginak

Hizkuntz Departamentu Bateratuaren osaketari dagokionez, honakoak lirateke departamentu horren kideak:

- Gela barruko eremuaren dinamizatzailea
- Etapa guztietako hizkuntz irakasleak edo ordezkariak

Gela barruko eremuaren dinamizatzailearen gidaritzapean, Hizkuntz Departamentu Bateratuaren ardura izango da Hizkuntzen Curriculum Bateratua gauzatzea; beraz, betiere Hizkuntz Proiektua Taldearen koordinaziopean, honakoak izango dira Hizkuntz Departamentu Bateratuaren zereginak:

- Hizkuntz Proiektuan hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarako adostutako ikuspegi metodologikoa garatzea

- Hizkuntzen curriculum bateratua (helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta abar) garatzea eta eragileekin lantzea
- Erabakitakoa kontuan hartuta, askotariko baliabideak (ikasmaterialak eta abar) hautatzea eta Hizkuntz Proiektua Taldeari proposatzea
- Programazioen arteko koordinazioa eta osagarritasuna ziurtatzea
- Arloko metodologia lantzeko nahiz irakasleen hizkuntz maila hobetzeko prestakuntza beharrak definitzea eta Hizkuntz Proiektua Taldeari aurkeztea
- Beste arloetako departamentuekin koordinatzea, arlo horien hizkuntz beharrei erantzuteko orientabideak emateko
- Etapako bileretan, egindako lanaren berri ematea

Zeregin horiek bete ahal izateko, eguneroko jardunean aintzat hartu beharko lirateke honako puntu hauek:

- Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte
- Egin beharreko lanaren arabera lan-taldeak antolatu beharko dira: etapa guztiak batera, etapaka, hizkuntzaka, mailaka....

11.6. Euskaraz Bizi Taldearen osaketa eta zereginak

Hizkuntz Proiektuaren garapenak, bai gelaz kanpoko eremuan bai eremu instituzionalean, behar dituen ekintzak bideratuko ditu Euskaraz Bizi Taldeak (gela barruko ekintza jakin batzuekin batera). Hartara, taldeko kideek honakoak izan beharko lukete:

- Euskaraz Biziko dinamizatzaile orokorra
- Etapetako Euskaraz Biziko ordezkariak

- Euskara Elkarteko ikasle ordezkaria(k), beharren arabera
- Gurasoen batzordeko ordezkaria(k), beharren arabera

Euskaraz Bizi Taldearen zeregin nagusia gelaz kanpoko euskararen normalizazioan eragitea denez, betiere Hizkuntz Proiektua Taldearen koordinaziopean, honako hauek bideratu beharko ditu:

- Ikastolako barne- eta kanpo-harremanak euskaraz gauza daitezen bultzatzea
- Euskarak auzoan edo herrian duen egoera soziolinguistikoa ezagutzea
- Urteko plangintza definitzea, jarraitzea eta baloratzea, beti ere Hizkuntz Proiektua Taldearen koordinaziopean
- Behar izanez gero, gela barrurako jarduerak proposatzea eta horien jarraipena egitea
- Gelaz kanpoko hizkuntz erabilera arakatzea (hiztun-neurketak), esku-hartze planak proposatzea eta jarraipena egitea
- Eremu instituzionalean ikastolako hizkuntz politika proposatzea euskarari dagokionez
- Gelaz kanpoko eremuan eta eremu instituzionalean parte hartzen duten hezitzaile, langile, ikasle eta gurasoen prestakuntza-beharrak identifikatzea. Behar horiei erantzuteko prestakuntza-plana zehaztea (besteak beste, arlo hauei erreparatuz: soziolinguistika, hizkuntz hobekuntza, eremu horietan eragiteko estrategiak...) eta Hizkuntz Proiektua Taldeari aurkeztea
- Etapetako bileretan, proposamenen eta egindako lanaren berri ematea

Zeregin horiek bete ahal izateko, eguneroko jardunean honako puntuak hartu beharko lirateke aintzat:

- Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte
- Beharraren arabera, Euskara Elkarteko ikasle ordezkariekin elkartuko dira
- Beharraren arabera, gurasoen batzordeko ordezkariekin elkartuko dira
- Beharraren arabera, gela barruko eremuaren dinamizatzailearekin bilduko dira

12 Hizkuntz Proiektua garatzeko ikastola-sarearen zerbitzuak

Lan honetan azaldutako marko teorikoa eta hura praktikara ekartzeko eta garatzeko eskaintzen diren orientabideak ikusirik, agerian geldi-tzen da Hizkuntz Proiektuak duen izaera integrala eta estrategikoa ikastola bakoitzaren zein ikastola sarearen etorkizunerako. Hemen zehaztutako egitekoak sakonak, zabalak eta ugariak dira, ikastola ba-kar batek bere kabuz betetzeko ezinezkoak, seguru aski. Hargatik, sarreran aipatu bezala, Hizkuntz Proiektu hau ez da hutsetik sortu den proposamen berria, baizik eta talde zabal baten ibilbide luzearen emai-tza, bertan bildu, antolatu eta osatzen baitira hizkuntzen trataeraren inguruan ikastola sareak urtetan egindako hausnarketa eta ondorioz

garatutako baliabideak. Hau da, marko honek Ikastolen Elkartearen beste egitasmo guztietan du iturburua eta haietaz baliatzen da hemen finkatutako ildo eta irizpideak gauzatzeko. Aldi berean, haiek guztiak elikatzen eta gidatzen ditu hizkuntz gaietan.

Ikastola batek Hizkuntz Proiektu honen lan ildoak garatzeko garaian Ikastolen Elkartearen egitasmo askotarikoetan bila dezake heldulekua, eta egitasmo horietan parte hartzen duen neurrian, taldean elkarlanean aurrera egiteko aukera ere izango du. Besteak beste, honako egitasmo hauek azpimarratzekoak lirateke:

- Ikastolen Elkarteak zehaztutako **Curriculum Proiektuan** eta hortik eratorritako **Ikasmaterialgintza** (Urtxintxa, Txanela, Ostadar, Eleanitz English, Eleanitz Français, Xiba, Bertsolaritza, IKT baliabideak, etab.) zein **Ebaluazio** zerbitzuetan kudeaketa pedagogiko sendoa eta interakzio didaktiko egokia bideratzeko heldulekuak izango dira.

- Material didaktikoez gain, Hizkuntz Proiektuak eskatzen dituen gaitasun eta trebetasunak lantzeko asmotan, prestakuntza eguneratua eskuratzeko aukera emango die **Prestakuntza** zerbitzuak ikastolako gurasoei, ikasleei eta profesionalei. Ikastolen Elkartearen **Leizaur Euskaltegiak,** bereziki, Hizkuntz Proiektuaren beharrei erantzuteko euskararen hobekuntza prestakuntza zein hizkuntzen irakaskuntzari buruzko hainbat prestakuntza eskaintzen ditu.

- **Euskaraz Bizi** egitasmoaren bidez euskararen sustapenerako bideratzen diren ekintzak nahiz materialak (euskaren erabileraren inguruko hausnarketa saioak, eraketan eta barne-komunikazioan nahiz kanpo-harremanetan eragiteko irizpideak eta estrategiak; kidetzeak, Argitxo materialak ...) gelaz kanpoko jarduna zein eremu instituzionaleko hizkuntza erabilera bideratzeko heldulekuak izango dira. Horrekin batera, **aisialdiarekin** loturiko egitasmoak ere balia ditzake ikastolak: joko didaktikoak, hizkuntza udalekuak, Xiba egonaldiak, Aisiola begirale eta zuzendari eskola, eta abar.

- Hizkuntz Proiektua bera bideratzeko, ikastolak hainbat foro balia ditzake beste ikastolekin batera elkarlanean aritzeko eta horretan jardungo duten dinamizatzaileen prestakuntzarako**.** Hala, **Hizpro mintegiaren eta Euskaraz Bizi mintegiaren** helburua ikastola bakoitzari bere Hizkuntz Proiektua gauzatzen laguntzea da. Hizpro mintegia Ikastola bakoitzean Hizkuntz Proiektua dinamizatzeko ardura duten lankideen foroa da; Euskaraz Bizi mintegiak, berriz, ikastoletan bereziki gelaz kanpoko eremua eta eremu instituzionala dinamizatzeko ardura duten lankideak biltzen ditu. Horiekin batera, **Etorkinen mintegia** dugu. Mintegi hori ikastoletako ikasle berantiarren ardura dutenen elkarlanerako foroa da eta bere helburuen artean Hizkuntz Proiektuan eskola barne-hartzailearen inguruan proposatzen direnak garatzea, osatzea eta behar den neurrian zuzentzea izango da.

13 etorkizunari begira

Esku artean duzun *Ikastolen Hizkuntz Proiektuak*, behingoz, Ikastoletako hizkuntza-gaien inguruko erabakiak eta ekimenak bideratu ahal izateko irizpideak nahiz norabideak finkatzeko, antolatzeko, garatzeko zein ebaluatzeko marko integrala aurkezten du. Aurrerapauso garrantzizkoa, dudarik gabe, baina ibilbide luze baten ataria besterik ez dena, orain arteko lana oinarritzat harturik, hemendik aurrera edukiz eta ekintzez bete beharko dena.

Dokumentu honetan zehar hainbatetan aipatu dugun bezala, Ikastolak XXI. mendeko euskal gizartearen hezkuntza eta hizkuntz beharrei era eraginkorrean erantzun ahal izateko dituen erronkak handiak dira:

- Euskara eta euskal kultura gure gizarte zabal eta askotariko honen elkarbizitzarako ardatz izanik, kultur integrazio barne-hartzailearen eredua garatzea eta identitate euskaldun berri eta integratzaile baten erroak sustatzea.

- Gizartean txertatutako euskal eskola eredua garatzea, kalitatezko hezkuntza eredu berri baten eraketan, bai eta euskara eta euskal kulturaren biziberritzean eragile lana egingo duena.
- Informazioaren eta komunikazioaren gizarteari erantzunez konpetentzien hezkuntza eredu berria garatzea eta bereziki komunikazioaren heziketari dagokiona garatzea.

Etorkizuneko jardunbide honetan murgilduta gaude ikastolak eta hainbat ekimen estrategiko ditugu abian talde gisa elkarlanean aurrera egiteko: Ikastola-ereduaren zehaztapena; Euskal Curriculum oinarrizko eta komunaren definizioa; Euskal Herri mailako egituraketa berria; II. Plan Integrala… Hizkuntz Proiektua bera berriztatze prozesu horren parte da, beste egitasmo guztiekin uztartuz, eta hezkuntza komunitate osoaren partaidetza eragingarria bilatuz, garatzen joan beharko duguna, XXI. mendean ere, iturri zaharrak ur berria isurtzen jarrai dezan.

14 eranskina:

Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoa

HIZKUNTZ PLANGINTZA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Hizkuntz plangintza Hizkuntzen banaketa eta ordutegia; plangintza-irizpideak; jatorri desberdineko hizkuntzen trataera	Ingurune soziolinguistikoa eta aniztasuna zein den kontuan hartuta hizkuntz plangintza irizpideak idaztea	Murgiltze-eredua planifikatzea, adina eta hizkuntzaren jatorria kontuan hartuta	• Ikasle horien hizkuntz maila aztertu eta horrekiko erabakiak hartu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Hizkuntza bakoitzaren erabilera-eremua eta funtzioa finkatzea	• Ingurune soziolinguistikoaren arabera, hizkuntza bakoitzerako erabilera-eremua eta funtzioa finkatu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Hizkuntza bakoitzaren ordutegia finkatzea	• Ingurune soziolinguistikoa eta hizkuntz helburuen araberako ordutegia finkatu • Finkatutako ordutegia Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

		Gelaz kanpoko eremuan zein eremu instituzionalean hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa finkatzea	• Hizkuntzek eremu horietan izango duten tokia zehaztu, beti ere, ingurune soziolinguistikoa eta hizkuntza horiek indartzeko beharra orekatuz • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Hizkuntz aldaeren inguruko hausnarketa egitea eta irizpideak idaztea	• *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* liburuaren lanketa egin • Hizkuntz aldaeren espazioa finkatu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hartutako erabakien jarraipena eta emaitzen balioespena egin	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA KUDEAKETA PEDAGOGIKOA **HIZKUNTZ ARLOKO CURRICULUM BATERATUA**					
Hizkuntz arloaren kudeaketa	Hizkuntz arloaren koordinazio bertikala eta horizontala bideratzea eta ziurtatzea	Hizkuntz departamentu bateratua eta hizkuntz departamentuak antolatzea	• Hizkuntz departamentuen eta departamentu bateratuaren funtzioak definitu eta arduradunak izendatu • Urtean zehar landu beharreko urteko plangintza idatzi eta proposatu • Antolaketa egiturak sortu • Koordinaziorako giza baliabideak esleitu • Irakasleen ordutegiak egokitu	— Hizkuntz departamentuen eta departamentu bateratuaren urteko jarduera-plana — Irakasleen ordutegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK
Hizkuntz curriculuma: helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak	Hizkuntzen xedea eta ardatz metodologikoak kontuan hartuta, hizkuntzen planteamendu bateraturako urratsak egitea	Euskal Curriculumak ezarritako hizkuntzen irakaskuntzarako ikuspegia barneratzea eta ardatz metodologikoak finkatzea	• Konpetentzietan oinarritutako planteamenduaren inguruko prestakuntza jaso • Ikuspegi komunikatiboaren inguruko prestakuntza jaso • Testu-pedagogiari buruzko prestakuntza jaso • Legeak hizkuntz ardatz metodologikoei buruz dioena eta ziklo-maila bakoitzerako ezarritako helburuak ezagutu • ICPan idatzitakoa ezagutu • Hizkuntz Proiektuan hizkuntzaren eta metodologiaren inguruan esaten dena ezagutu • Hizkuntzari nahiz hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko ikuspegia adostu • Hizkuntzen ardatz metodologikoak Hizkuntz curriculumean jasotzen direla ziurtatu	— Prestakuntzaren balioespen-galdetegiak — Hizkuntz curriculuma	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektu Taldea — Hizkuntz departamentu bateratua

		Hizkuntz arloko proiektu kurrikular bateratuaren oinarriak ezartzea	• Hizkuntza bakoitzean eta DBH bukaeran eskuratu beharreko maila kontuan hartuta, hizkuntzen arteko helburu orokorrak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak erkatu etapa bakoitzean • Hizkuntzen arteko prozedura komunak aztertu eta barneratu • Testu-generoen sekuentziazio bertikala eta horizontala bilduz, hizkuntzen mapa bateratua egin etapaka • Helburu didaktiko eta ebaluazio-irizpideekin koherentzia dutela ziurtatuz, UDak berrikusi • Azterketak partekatu eta adostu	— Hizkuntz curriculuma — Unitate didaktikoak — Azterketak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Hizkuntz departamentu bateratua
EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA KUDEAKETA PEDAGOGIKOA **BESTE ARLOETAKO CURRICULUMAK**					
Hizkuntzen trataera instrumentala: helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak	Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-ikuspegia barneratzea eta irakasle guztiak hizkuntz irakasle bilakatzea	Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-ikuspegia onartzea	• Konpetentzietan oinarritutako planteamenduaren inguruko prestakuntza jaso	— Prestakuntzaren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Beste arloetako irakasle ordezkariak
		Arloetako hizkuntz behar bereziak definitzea	• Prozedurazko edukiak[1], gaitasun kognitiboak[2] eta testu-generoak arloetako helburu didaktikoetan identifikatu	— Identifikatutako hizkuntz beharren bilduma	

1 Ahozko eta idatzizko ulermena, ahozko eta idatzizko ekoizpena
2. Laburtu, definitu, sailkatu...

ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK
		Behar horiek lantzeko eduki eta estrategiak hizkuntz arloarekin aztertzea eta adostea	• Hizkuntzako eta beste arloetako irakasleen koordinazio horizontala eta bertikala antolatu • Prozedurazko edukien lanketa bateratu (urratsak, estrategiak, tresnak...) • Testu-generoen ezaugarriak eta lanketa bateratu (azalpenezko testu zientifikoa...) • Hizkuntzaren egokitasunari dagozkion irizpideak finkatu (ortografia, gramatikaren zuzentasuna, ahozkoaren egokitasuna...) • Prozedurazko edukiak garatzen dituzten jarduerak mailaka partekatu eta adostu • Egindako guztia txosten batean jaso eta gizarteratu	—Egindako lanaren txostena	—Zuzendaritza —Hizkuntz Proiektu Taldea —Hizkuntz departamentu bateratua —Beste arloetako irakasleak edo ordezkariak
PROIEKTU OSAGARRIAK	**EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA KUDEAKETA PEDAGOGIKOA**				
Zehar-lerroen hizkuntz trataera	Ingurune soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta zehar-lerroen hizkuntz irizpideak adostea	Zehar-lerroen hizkuntz irizpideak adostea eta idaztea	• Zehar-lerroen hizkuntz trataera zein izango den finkatu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Idatzitako irizpideen arabera, kasuan kasu, dagoeneko burutzen diren ekintzak aztertu • Hizkuntz irizpidea ziurtatuko duen erakundearekin harremanak bideratu • Adostutako ekintzak burutu • Ekintzak baloratu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Zehar-lerroen ekintza-plana eta balioespena	— Zuzendaritza Hizkuntz — Proiektu Taldea

Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak	Euskara eta euskal kultura sustatzea	Euskara eta euskal kultura sustatzeko irizpideak idaztea	• Irizpideak idatzi • Irizpideak Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Euskara eta euskal kultura sustatzeko gela barruan egiten dena aztertzea eta osatzea	• Euskara eta euskal kultura sustatzeko irizpideen arabera kasuan kasu dauzkagun ekintzak aztertu • Euskal Curriculumak euskal kulturaren garapenerako proposatzen duen sekuentziazioa aztertu • Euskara suspertzeko egiten diren jarduera solteei UDetan tokia bilatu eta txertatu • UDetan txertatu gabe geratu diren ekintza solteei proiektu osagarrien izaera eman	— Hizkuntz Proiektuko urteko plana — Unitate didaktikoak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
EREMU PEDAGOGIKOA – GELA BARRUKOA INTERAKZIO DIDAKTIKOA **HIZKUNTZ ERABILERA**					
Arlo bakoitzerako harreman-hizkuntza	Arlo bakoitzari dagokion harreman-hizkuntza definitzea	Arlo bakoitzari dagokion harreman-hizkuntza hautatzea	• Arlo bakoitzari dagokion harreman-hizkuntza definitu, irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera	Arlo bakoitzean dagokion harreman-hizkuntza erabiltzen dela bermatzea	Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera egokia izatea bermatzea	• Irakasleen hizkuntz erabilera eta gaitasun-maila behatu • Hizkuntz hobekuntza prestakuntzak egin • Arlo bakoitzean erabilera-joerak behatu eta joeren araberako irakasleen sentsibilizazioaren lanketa egin • Egoeraren araberako esku-hartze planak proposatu	— Mintzagramak — Prestakuntza-plana — Esku-hartze plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Arlo bakoitzean dagokion harreman-hizkuntza erabiltzen dela bermatzea	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera arlo bakoitzari dagokiona dela bermatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu • Joeren araberako ikasleen sentsibilizazioaren lanketa egin • Egoeraren araberako esku-hartze planak proposatu	— Mintzagramak — Esku-hartze plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera esanguratsuak	Gela barruko ahozko komunikazioa kalitatezkoa[3] eta esanguratsua izatea ziurtatzea	Arlo guztietan estrategia didaktiko egokiak erabiltzea, ikasleen ahozko komunikazio kalitatezkoa eta esanguratsua bermatzeko	• Gela barruko ahozko komunikazioaren diagnosia egin (galdetegiak, behaketak, mintzagramak…) • Egoeraren araberako neurriak proposatu, burutu eta balioetsi	— Diagnosiaren ondorioak — Hartutako neurrien balioespenak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Taldekatze motak eta irizpideak	Gela barruko taldekatze motak ikasleen ahozko komunikazioa kalitatezkoa eta esanguratsua izatea bermatzea	Arlo guztietan taldekatze mota egokiak erabiltzea ikasleen ahozko komunikazio kalitatezkoa eta esanguratsua bermatzeko	• Taldekatze moten inguruko hausnarketa burutu eta irizpideak bateratu • Talde kooperatiboen inguruko hausnarketa burutu eta hori bultzatzeko neurriak hartu	— Hausnarketaren ondorioak — Hartutako erabakien aplikazioa eta balioespena	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

3. Ikasleen partaidetza egokia, esanguratsua eta ugaria.

GELA BARRUKOA					
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA					
Irakasleen prestakuntza	Ikastolaren prestakuntza-plana diseinatzea, finkatutako hezkuntza eta hizkuntz ikuspegiekiko	Arloetako irakasle guztien behar komunak zein diren identifikatzea (konpetentzien hezkuntza ikuspegia; ikuspegi komunikatiboaren didaktikan sakontzea[4], hizkuntz hobekuntza ikastaroak, hizkuntz jarrerak…) eta horren araberako eskaintza egitea	• Prestakuntzarako lehentasunak finkatu eta Ikastolako prestakuntza-plana idatzi • Prestakuntzaren hartzaileak hautatzeko irizpideak finkatu • Ikasitakoa barneratu eta eguneroko praktikarekiko erabakiak klaustroan adostu • Hartutako erabakiak txostenean idatzi • Erabakitakoa ikasleekin praktikara eramaten dela ziurtatu • Aurrerantzean irakasle berriek prestakuntza-ildoak jasoko dituztela ziurtatu	— Prestakuntza-plana — Prestakuntzaren balioespen-galdetegiak — Txostenak — Gela barruko behaketak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
GELA BARRUKOA					
BALIABIDEAK					
Arlo bakoitzeko ikasmaterialak	Hezkuntza-konpetentzien lanketa bermatzen duten ikasmaterialak hautatzea	Konpetentzien lanketa eta ikuspegi komunikatiboa bermatzen duten ikasmaterialak hautatzeko irizpideak idaztea, ikasmaterialak hautatzea eta aplikatzea	• Ikasmaterialak hautatzeko irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hainbat argitaletxetako proposamenak aztertu eta irizpideekiko egokiena hautatu • Ikasmaterialen zerrenda idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Hautatutako ikasmaterialak erabili eta ebaluatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Ikasmaterialen balioespena	— Zuzendaritza — Hizkuntz proiektua Taldea

4. Interakzio didaktikoa, lan kooperatiboa...

ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK
Espazioaren banaketa eta hizkuntz trataera	Ingurune soziolinguistikoa kontuan hartuta eta ikuspegi eleaniztunari egoki erantzuteko, ikastolako espazioak antolatzea eta bertako hizkuntz trataera definitzea	Espazio komunen funtzio pedagogikoaren hausnarketa egitea, espazio bakoitzaren hizkuntza identifikatzea eta haren erabilera zehaztea	• Ikastolako espazioen antolaketarako eta hizkuntz erabilerarako irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Espazioak irizpideen arabera antolatu • Espazio bakoitzean dagokion hizkuntz erabilera bermatzen dela ziurtatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Gelen behaketa (argazkiak) — Pasabideen behaketa (argazkiak)	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
		Gelen kudeaketa egokirako eta gelen espazio komunaren[5] antolaketari[6] buruz hausnartzea eta irizpideak idaztea	• Gela barruko hizkuntz paisaia antolatzeko irizpideak idatzi eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Gelak eta bertako espazioak irizpideen arabera antolatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Gelen behaketa (argazkiak)	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea
Informazio-iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza	Ingurune soziolinguistikoa kontuan hartuta eta ikuspegi eleaniztunari egoki erantzuteko, baliabideen hizkuntza definitzea	Geletako baliabideen hizkuntz irizpideak idaztea eta irizpideak kontuan hartuta gela horiek baliabide egokiz hornitzea	• Gela bakoitzerako baliabideen hizkuntza finkatu eta erabakitakoa Hizkuntz Proiektuan txertatu • Geletan dauden baliabideak aztertu eta beharrak identifikatu • Gelak baliabide egokiz hornitu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Geletako baliabideen zerrenda — Balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea

5. Zein den hizkuntza bakoitzak gelan izan behar duen presentzia, bai baliabideetan bai ikasleen lanei dagokienez.
6. Mahaien kokapena, taldekatze-irizpideen baitan

GELAZ KANPOKOA- JOLASALDIAK					
HIZKUNTZ ERABILERA					
Irakasleen hizkuntz erabilera	Jolasaldietan irakasleen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta, esku-hartze plangintza diseinatzea	• Irakasleen hizkuntz erabilera behatu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu • Lortutako emaitzen araberako esku-hartze plangintza idatzi	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
		Irakaslea kontziente izatea esparru horretako komunikazio-egoerei, nagusiki, hizkera ez-formala eta, balego, euskalkia dagozkiela	• Jolasaldian ikasleekin erabili beharreko hizkuntz erregistroa adostu • Behar izanez gero, esparruko eragileentzat prestakuntza bideratu	— Antolatutako ekintzetan erabilitako hizkuntz erregistroa	
Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikaslearekin euskaraz aritzeko urratsak ematea	• Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Ikasleen hizkuntz erabilera sistematikoki behatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu • Ikasleekin hizkuntz erabileraren inguruko hausnarketa-saioak egin	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jolasaldietako komunikazio-egoerak ustiatzea hizkuntzaren mesedetan	Irakasle edo hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta erabiltzea	• Jolasaldia hizkuntza aldetik ustiatzeko estrategiak irakasleen eskura jarri • Irakasleen inplikazioa lortu • Jolasaldietarako ekintzak zehaztu eta bideratu: jolas antolatuak, kirol-txapelketak, kidetze-saioak… • Ikasle elkarteak sortu eta martxan jarri	— Urteko plana — Jardueren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

GELAZ KANPOKOA – IRTEERAK, EGONALDIAK ETA KANPALDIAK					
HIZKUNTZ ERABILERA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Irakasleen hizkuntz erabilera	Irakasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Irakaslea kontziente izatea irteeretako komunikazio-egoerei, nagusiki hizkera ez-formala eta, balego, euskalkia dagozkiela	• Hizkuntz portaerak adostu eta, baleude, birgogoratu • Irteeretan ikasleekin erabili beharreko hizkuntz erregistroa adostu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikasleekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Irakasleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Urteko plana	
		Beste erakunde batzuekin antolatutako jardueren hizkuntza ziurtatzea	• Ikastolak gai horren inguruan dituen erabakiak aplikatu eta horien jarraipena egin	— Jardueren asebetetze-maila	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Ikasleen hizkuntz erabilera sistematikoki behatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Ekintza horietan dauden komunikazio-egoerak ustiatzea hizkuntzaren mesedetan	Irakasle edo hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta erabiltzea	• Ikasleen interesguneetan oinarritzen diren ekintzak zehaztu eta bideratu • Ekintza horiek hizkuntza aldetik ustiatzeko estrategiak irakasleen eskura jarri • Ekintza horietan euskal kultura eta identitatea landu dadin erabili beharreko estrategiak irakasleen eskura jarri	— Jardueren balioespen-galdetegiak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

GELAZ KANPOKOA – SARRERA-IRTEERAK					
HIZKUNTZ ERABILERA					
Ikasleen hizkuntz erabilera	Sarrera-irteeretan ikasleen hizkuntz harremanak euskarara lerratzeko urratsak egitea	Ikasleen hizkuntz erabilera behatzea	• Hiztun-neurketak egin	— Erabilera-indizea	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
		Ikasleen eta euren familien arteko hizkuntz erabilera behatzea	• Hiztun-neurketak egin	— Erabilera-indizea	
		Sarrera-irteerak euskal girora ekartzea	• Paisaia euskaratu eta euskal kulturaren adierazletzat jo daitezkeen elementuak jarri • Megafoniaz baliatu euskal musika jartzeko	— Paisaiaren behaketa	
GELAZ KANPOKOA – JANTOKIA					
HIZKUNTZ ERABILERA					
Hezitzaileen hizkuntz erabilera	Jantokiko hezitzaileen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta, esku-hartze plangintza diseinatzea	• Hezitzaileen hizkuntz erabilera behatu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu • Lortutako emaitzen araberako esku-hartze plangintza idatzi • Adin-tarte bakoitzari dagokion egitaraua antolatu eta hezitzailea dinamizatzaile bihurtu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Jantokiko koordinatzailea
		Hezitzailea kontziente izatea esparru horretako komunikazio-egoerei, nagusiki hizkera ez-formala eta, balego, euskalkia dagozkiela	• Jantokian ikasleekin erabili beharreko hizkuntz erregistroa adostu • Behar izanez gero, esparruko eragileentzat prestakuntza bideratu	— Antolatutako ekintzetan erabilitako hizkuntz erregistroa	

ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK
Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Hezitzaileen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikaslerekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Jantokiko koordinatzailea
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Behaketak sistematizatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	— Hiztun-neurketak — Urteko plana	
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jantokiko komunikazio-egoerak hizkuntzaren mesedetan ustiatzea	Hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta burutzea	• Bazkalosteko tartean egiten den jarduera-eskaintza ikasleentzat albait motibagarrien egin eta jarduerak euskaraz bideratuko direla ziurtatu • Ekintza horiek hizkuntzaren aldetik ustiatzeko estrategiak hezitzaileen eskura jarri • Hizkuntza teknikoaren lanketa egin: menuaren lanketa, eremuko berariazko esamoldeen eta hiztegiaren lanketa	— Urteko plana — Jardueren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Jantokiko koordinatzailea
GELAZ KANPOKOA – GARRAIOA **HIZKUNTZ ERABILERA**					
Begiraleen hizkuntz erabilera	Begiraleen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Euskaraz aritzeko aukera ematen duen gunetzat hartzea autobusa begiraleek	• Hizkuntz portaerak begiraleekin landu • Begiraleen hizkuntz erabilera behatu • Lortutako emaitzen araberako esku-hartze plangintza idatzi	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Garraio eta zerbitzuetako koordinatzailea

Begiraleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Begiraleen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikasleekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Begiraleen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu • Ikasleak euskara erabiltzera bultzatzeko estrategiak begiralearen eskura jarri	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Garraio eta zerbitzuetako koordinatzailea
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Behaketak sistematizatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	
GELAZ KANPOKOA – ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK **HIZKUNTZ ERABILERA**					
Hezitzaileen hizkuntz erabilera	Hezitzaileen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta esku-hartze plangintza diseinatzea	• Hezitzaileen hizkuntz erabilera eta jarrerak behatu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu • Lortutako emaitzen araberako esku-hartze plangintza idatzi • Hezitzaileen prestakuntza-plana diseinatu eta haren jarraipena egin	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Eskolaz kanpoko ekintzen koordinatzailea
Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Hezitzaileen eta ikasleen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bermatzea	Edozein jatorritako ikaslearekin euskaraz aritzeko urratsak egitea	• Hezitzaileen eta ikasleen arteko hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	
Ikasleen arteko hizkuntz erabilera	Ikasleen arteko erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Behaketak sistematizatzea eta ikasleak kontzienteki inplikatzea	• Ikasleen hizkuntz erabilera behatu eta hartu beharreko neurriak planifikatu	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	

ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Eskolaz kanpoko komunikazio-egoerak euskararen mesedetan ustiatzeko urratsak egitea	Hezitzaile guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta burutzea	• Ikasleentzat jarduera-eskaintza albait motibagarriena egin eta jarduerak euskaraz bideratuko direla ziurtatu • Ikasleak euskara erabiltzera bultzatzeko estrategiak hezitzaileen eskura jarri	— Urteko plana — Jardueren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Eskolaz kanpoko ekintzen koordinatzailea
GELAZ KANPOKOA – JAIAK ETA OSPAKIZUNAK					
HIZKUNTZ ERABILERA					
Partaideen hizkuntz erabilera	Partaideen arteko hizkuntz erabilera euskaraz izan dadin bermatzea	Hizkuntz errealitatearen diagnosia abiapuntutzat hartuta, esku-hartze plangintza diseinatzea	• Partaideen hizkuntz erabilera eta jarrerak behatu eta aurrera begirako esku-hartze plangintza zehaztu • Hizkuntz portaerak adostu edo birgogoratu	—Hiztun-neurketak — Urteko plana	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Jai eta ospakizunen koordinatzailea
METODOLOGIA ETA DIDAKTIKA					
Komunikazio-egoera ustiatzeko estrategiak	Jai eta ospakizunetako komunikazio-egoerak euskararen mesedetan ustiatzeko urratsak egitea	Partaide guztiak inplikatuz, erabili beharreko estrategiak adostea eta erabiltzea	• Jai eta ospakizun eskaintza ikasleentzat albait motibagarrien egin eta jarduerak euskaraz bideratuko direla ziurtatu • Ekintza bakoitzari dagokion hizkuntz erregistroaren lanketa egin	—Urteko plana —Jardueren balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Eskolaz kanpoko ekintzen koordinatzailea

GELAZ KANPOKOA **HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA**					
Hezitzaileen prestakuntza	Ikastolak bideratutako gelaz kanpoko jardueretako hezitzaile guztiek prestakuntza egokia eskuratzea	Hezitzaileen prestakuntza-plana antolatzea eta aurrera eramatea	• Prestakuntza beharrak identifikatu eta lehentasunak finkatu • Prestakuntza eskaini eta jarraipena egin • Ikasitakoa praktikara eramaten dela ziurtatu eta balioetsi • Aurrera begira, hezitzaile berriek prestakuntza-ildoak jasoko dituztela ziurtatu	— Prestakuntza-plana — Balioespen-galdetegiak	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
GELAZ KANPOKOA **BALIABIDEAK**					
Gune eta zerbitzuetako baliabideen hizkuntz trataera	Gelaz kanpoko eremuak behar dituen baliabideak definitzea	Beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko aurreikuspena egitea	• Ingurune soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, baliabideen hizkuntz irizpideak idatzi • Baliabideak aurrekontuetan aurreikusi	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Aurrekontua	— Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
EREMU INSTITUZIONALA **ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA**					
Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoen hizkuntz erabilera eta trataera	Gobernu, administrazio eta zuzendaritzaren barne- eta kanpo-harremanetarako hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Barne- eta kanpo-harremanetarako hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• Erabakiak hartu eta gizarteratu • Erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu • Gobernu-, administrazio- eta funtzionamendu-organoetako partaideei euskaraz aritzeko gaitasuna eskatu berauetan parte hartu ahal izateko • Euskaraz aritzeko zailtasunak dituztenen kasuan prestakuntza eskaini	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea

ESPARRUAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERA ESTRATEGIKOAK	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK
			• Jendaurrean aritu behar dutenen kasuan, lehendakaria kasu, euskaraz aritzeko gaitasuna bermatu • Batzar orokor eta bestelako bileretan euskara izatea komunikazio-hizkuntza nagusia		
Langileen hizkuntz profila	Ikastolako irakasleen nahiz bestelako profesionalen hizkuntz profila adostea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Langileen hizkuntz profilak zehaztea	• Lanpostu bakoitzerako profil egokia zehaztu eta erabakitakoa Hizkuntz Proiektuan txertatu • Profesional guztiek erabakitako hizkuntz profila betetzen dutela ziurtatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
Hizkuntzen trataerari buruzko erabakiak biltzen dituzten dokumentuak	Ikastolako dokumentazioari dagokion hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Dokumentu horiek guztiak euskaraz izatea, atzerriko hizkuntzari dagozkion programazioak salbu	• Hizkuntz irizpideak finkatu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu • Dokumentazioa euskaratu (behar izanez gero)	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	
	Ikastolako dokumentazioan hizkuntz gaiei buruz egiten diren aipamenak elkarren artean koherenteak izatea	Dokumentuak aztertzea eta koherentzia ziurtatzea	• Dokumentazioa aztertu	— Dokumentazioa	
Langileen hizkuntz prestakuntza	Ikastolako langile orok euskaraz egoki aritzeko gaitasuna izatea	Langileen hizkuntz beharrei erantzutea	• Ikastolako prestakuntza-planean langileen hizkuntz beharrak kontuan hartu • Langileen hizkuntz profilen egokierarako prestakuntza eskaini eta bideratu • Ikasitakoa praktikara eramaten dela ziurtatu eta balioetsi • Aurrera begira, langile berriek prestakuntza-ildoak jasoko dituztela ziurtatu	— Prestakuntza-plana — Prestakuntzako balioespen-galdetegiak	

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: IKASTETXEA					
BALIABIDEAK					
Ekonomia- eta administrazio-dokumentazio-aren hizkuntz trataera	Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioari dagokion hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Dokumentu orokorrak zein diren zehaztu • Ekonomia- eta administrazio-mailako esku-hartzea zehaztu • Euskararen erabilera arautzeko proposamena idatzi • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Ekonomia- eta administrazio-dokumentazioa	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
IKT euskarrien hizkuntz trataera	IKT euskarriei dagokien hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• IKT euskarrien hizkuntzari buruzko erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — IKT euskarriak	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
Ikastolako espazioen hizkuntz trataera	Ikastolako espazioak euskalduntzea	Ikastolako espazioen hizkuntza zehaztea	• Espazio bakoitzak duen funtzioaren araberako hizkuntz irizpideak proposatu eta adostu • Informazio-guneen hizkuntza(k) definitu • Ikastolako errotulazioa euskaldundu • Hartutako erabakiak Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Argazkiak — Aurrekontua	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
		Aurrekontuetan hizkuntz paisaia euskalduntzeko baliabideak eskuratzea (IKE)	• Hizkuntz paisaia euskalduntzeko eskura dauden baliabideak eskuratu eta erabili	— Argazkiak — Aurrekontua	

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Familien tipologia	Ikastolako familien tipologia aztertzea	Familia-hizkuntza eta jarrera-tipologien diagnosia egitea	• Familia-tipologiak ezagutzeko datu-bilketa sistematizatu • Familia-tipologia bakoitzarentzat estrategia-plana proposatu eta adostu • Familia-tipologia bakoitzari egiten duen praktikarekiko esku-hartze proposamena egin	— Ikasdat — Estrategia-plana — Aholku-bilduma	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektu Taldea — Euskaraz Bizi Taldea
Familia barruko hizkuntz erabilera	Familia barruko hizkuntz erabilera zein den ezagutzea	Familia barruko hizkuntz erabilera neurtzea	• Galdetegiak pasatu eta datuak bildu • Datuen arabera interbentzio-plana diseinatu eta abian jarri	— Familia barruko hizkuntz erabileraren diagnosia	
Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanak	Familien hizkuntz tipologiaren arabera, ikastolak familiekiko harremanetarako hizkuntz irizpideak zehaztea	Familiarekin ahoz nahiz idatziz izaten diren harremanen hizkuntz irizpideak idaztea	• Gurasoak partaide diren bileretako hizkuntz erabilera erabakitzeko, informazioa bildu irakasleen eta gurasoen artean • Jasotako datuen arabera erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA	
		Familia eta ikastolaren arteko harremanak euskaraz izatea bultzatzea	• Ikasturte hasierako guraso bileretan euskararen erabilerarekiko sentsibilizazioa egin • Irakasleek familien hizkuntz portaeran duten eraginaz hausnartu	— Gurasoekiko harreman-bideak (gutunak, bilerak…)	

EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA					
GURASOEN PRESTAKUNTZA					
Gurasoen hizkuntz prestakuntza	Gurasoak euskararen erabileran eragile izatea	Gurasoen hizkuntz beharrei erantzutea eta euskaldunak ez diren familietan euskararekiko jarrera lantzea	• Ikastolako prestakuntza-planean gurasoen prestakuntza kontuan hartu • Familia-tipologia bakoitzari egokitutako prestakuntza-proposamena bideratu	— Prestakuntza-plana — Prestakuntzako balioespen-galdetegiak	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Komunikazio-arduraduna
EREMU INSTITUZIONALA ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA: FAMILIA					
BALIABIDEAK					
Komunikazio-baliabideen hizkuntz trataera	Komunikazio-baliabideei dagokien hizkuntza zehaztea eta horren gaineko irizpideak idaztea	Hizkuntz erabakiak hartzea eta idaztea	• Komunikazio-baliabideen hizkuntzari buruzko erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	— HIZKUNTZ PROIEKTUA — Komunikazio-baliabideak	— Gobernu-organoa — Zuzendaritza — Hizkuntz Proiektua Taldea — Euskaraz Bizi Taldea — Komunikazio-arduraduna

EREMU INSTITUZIONALA KANPO-HARREMANAK					
ESPARRUAK	**HELBURU ESTRATEGIKOAK**	**HELBURU ZEHATZAK**	**JARDUERA ESTRATEGIKOAK**	**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**	**ARDURADUNAK**
Beste ikastetxeekiko harremana	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Inguruko beste ikastetxeekin edo sarekoekin aritzeko hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA	– Gobernu-organoa – Zuzendaritza – Hizkuntz Proiektua Taldea – Euskaraz Bizi Taldea
Gizarte-elkarteekiko harremanak	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Ikastolari edota ikasleei zuzenean zerbitzua ematen dieten elkarteekiko hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA	
Udal eta beste herri-erakundeekiko harremanak	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Ikastolak administrazioko edozein erakunderekin dituen harremanetarako hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA	
		Udaletako Euskara Batzorde nahiz inguruko Euskara Elkarteekin elkarlanean aritzea	• EBPN-n parte hartu • Ikastolaren urteko planak udaleko euskara-teknikariari aurkeztu • Udaleko euskara-teknikariarekin baliabideak negoziatu • Udalak nahiz inguruko Euskara Elkarteek antolatutako ekintzetan parte hartu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA – Urteko plana	
Hornitzaileekiko harremanak	Ikastolak euskararen indarberritzerako gizartean eragitea	Ikastolak enpresekin edota hornitzaileekin aplikatu beharreko hizkuntz irizpideak zehaztea	• Hizkuntz errealitatea ezagutu • Kanpo-harremanak definitu • Kanpo-harremanetarako hizkuntz erabilerari dagokion proposamena egin • Erabakiak hartu eta Hizkuntz Proiektuan txertatu	– HIZKUNTZ PROIEKTUA	

erreferentzia bibliografikoak

A.A. (2005) *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma. Oinarrizko txostena.* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, Donostia.

A.A. (2006) *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma. Euskal curriculuma baloratzeko eta hobetzeko proposamena.* Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Donostia.

A.A. (2008) *Derrigorrezko Eskolaldirako Ikastolen Oinarrizko Curriculum Komuna. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena.* Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Donostia.

Aierdi, X. eta Uranga, B. (2007) *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak.* Unesco Etxea eta Ikuspegi, Bilbo.

Aldasoro, M. eta beste. (2003-2006) *Ostadar proiektua.* Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean, Donostia.

Amonarriz, K.; Egaña, A.; Garzia, J. (2004) *Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Aldasoro, M.; Amondarain, A.; Aurrekoetxea, M.; Elorza, I.; Etxezarreta, J.I.; Garagorri, X.; Hernandez L.; Lekuona, I.; Osa, E.; Soroa, N.; Uriarte, J.A. (2002) *Ikastolen Hizkuntza Proiektua Definitzen.* Barne-txostena.

Banks, J. (1995) "Multicultural Education: Historical Development, Dimensions, and Practice". *Handbook of Research on Multicultural Education*. MacMillan, New York.

Barquin, A. (2008) "Immigrazioa eta euskara" in *Immigrazioa Euskal Herrian*, Jakin 165 zk., 75-98.

Barrios, M.; Osa E.; Muñoa, I.; Elorza, I; Boan, K. (2008) *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz.* Euskaltzaindia & EHIK, Bilbo.

Bronckart, J.P. (1997) *Activité Langagière, Textes et Discours. Pour un Intéractionisme Socio-Discursif*. Delachaux et Niestlé, Paris.

Bruner. J.S. (1986) *El Habla del Niño: Aprendiendo a Usar el Lenguaje*. Paidós, Bartzelona.

Canale, M. (1983) "From communicative competence to communicative language pedagogy" in *Language and Communication*. Eds. J. C. Richards & R. Schmidt. Longman, Londres.

Cummins, J. (1979) Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües in *Infancia y Aprendizaje* 21, 37-61.

Cummins, J. (2008) *Bilingual Children's Mother Tongue: Why Is It Impor-*

erreferentzia bibliografikoak

tant for Education? http://www.iteachilearn.com/cummins/index.htm (2008ko urrian jasoa).

Elorza, I. (2004). "Hizkuntz trebetasunak." in *Euskal Curriculuma. Kultur ibilbidea*., 193-208 or. Ikastolen Konfederazioa, Donostia.

Elorza, I., Aldasoro, M., Goiri, N. (2005) "Hizkuntzak eta Literatura Arloa" in *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma. Oinarrizko txostena.* A.A: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, Donostia.

Elorza, I. eta Muñoa, I. (2008) "Promoting the Minority Language Through Integrated Plurilingual Language Planning: The Case of the Ikastolas". *Teaching through Basque: Achievements and challenges.* Ed. Jasone Cenoz. Multilingual Matters, 85-101, Clevedon, England.

Elosegi, L. eta Esnal, P. (2004) "Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat" in *HIZPIDE aldizkaria 57. zk.* HABE, Donostia.

Elosegi, L., Esnal, P., Mungia, A. (2008) HABEren 4. mailako gaikuntza ikastaroko hainbat apunte.

Elosegi, L. (2008) *Euskararen erabiltzaile estrategikoa: helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu* in Euskaltzaindiaren XII. Jagon Jardunaldiak. Iruñea.

Essomba, M.A. (2006) *Liderar escuelas interculturales e inclusivas.* Ed.Graó, nº222: Barcelona.

Etxeberria, F. eta Elosegi, K. (2008) "Basque, Spanish and Immigrant Minority Languages in Basque Schools" in *Teaching through Basque: Achievements and challenges.* Ed. Jasone Cenoz. Multilingual Matters, 69-84, Great Britain.

Etxezarreta, J.I. (2008) "Egindakoari eutsi eta egiten segi." *Euskara 21 Batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak*. Euskararen aholku batzordea. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Europako Kontseilua, HABE, (euskarazko edizioa 2005): *Hizkuntzen Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. HABE-HUIS, Gasteiz.

Euskal Herriko Ikastolen Elkartea. (1988) *Ikastolaren gestioa eta funtzionamendua.* Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, Donostia.

Euskal Herriko Ikastolen Elkartea. (1989) *Ikastola: izaera eta egitura.* Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, Donostia.

Euskal Herriko Ikastolen Elkartea. (1991) *Euskal Eskola.* Euskal Herriko

Ikastolen Elkartea, Donostia.

Euskal Herriko Ikastolen Elkartea. (2001) *Ikastolen plan integrala 2002-2007.* Barne-txostena.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa. (2007) *Ikastola. Imajina ezazu nor garen. Irudi-katalogoa.* Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Donostia.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa. (2008) *Ikastolak. Orain eta gero. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena.* Argitaratu gabeko txostena.

Euskararen aholku batzordea. (2008) *XXI. mende hasierako hizkuntz politikaren oinarriak.* Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Fishman, J. (2001). "Can threatened languages be saved?" in *Reversing Language Shift Revisited: a 21st Century Perspective.* Multilingual Matters, Clevedon, England.

Garagorri, X. (1991) *Ikastola hezkuntz eredu gisa.* Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Donostia.

Garagorri, X. (1995) *'Haurtxoa' proiektua*. *Haur Hezkuntzako bigarren zikloko berrikuntza proiektu baten ebaluazioa.* Doktorego tesia. UPV/EHU.

Garagorri X. (zuz) et al. (2004) *Euskal Curriculuma. Kultur ibilbidea*. Ikastolen Konfederazioa, Donostia.

Gorostidi, J.L.(1991) *Euskaraz Bizi.* Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, Iruñea.

Graddol, D. (2006) *English Next.* British Council, Londres.

Herdina, P. eta Jessner, U. (2002) *A Dynamic Model of Multilingualism: Perspectives of Change in Psycholinguistics.* Multilingual Matters, Clevedon, England.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2004. *Hezkuntza berriztatzeko programak 2003-2006*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: Vitoria-Gasteiz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2008. *Hezkuntza Berriztatzeko Lehentasun ildoak 2007-2010*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2008. *IV. inkesta soziolinguistikoa.* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

Ikuspegi, (2008) Hizkuntzak eta inmigrazioa in *Immigrazioari begirada*, Ikuspegi elkartearen aldizkaria, 25. zk., Bilbo.

John H.A.L. de Jong. (2004) The Role of the Common European Framework (aurkezpen-txostena). *http://www.ealta.eu.org/conference/2004/ppt/ealta2004%20john.ppt* (2008ko urrian jasoa).

erreferentzia bibliografikoak

Jonnaert, P., eta Vander Borght, C. (1999) *Créer des conditions d'apprentissage: Un cadre de référence socioconstructiviste pour une formation didactique des enseignants*. De Boeck & Larcier, Paris/Bruxelles.

Lousada, E. (2007) Genres textuels et perspective actionnelle: éléments de rapprochement. *Le français à l'université 12e année, nº 4.* Agence Universitaire de la francophonie, Montréal.

Moffett, J. eta Wagner, B. J. (1983) *Student-Centered Language Arts and Reading, K-13*. 3rd ed. Boston, MA: Houghton Mifflin, Boston.

Nazio Batuak. (1948) *Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala*. *http://pge.rastko.net/etext/100110* (2008ko abenduan jasoa).

Nunan, D. (1989) *Designing Tasks for the Communicative Classroom*. Cambridge University Press, Cambridge.

Osa, E. (2004) Iritzi artikulua in *Erabilera indartzeko egungo bideak eta gerora begirako gogoetak*. BAT Soziolinguistika aldizkaria, 53. zk., Andoain.

Piaget, J. (1937) *La Construction du Réel Chez l'Enfant*. Delachaux et Niestlé, Paris.

Piaget, J. (1945) *La Formation du Symbole Chez l'Enfant: Imitation, Jeu et Rêve, Image et Représentation.* Delachaux et Niestlé, Paris.

Piaget, J. (1970) *L'Épistémologie Génétique.* Presses Universitaires de France, Paris.

Piaget, J. & Inhelder, B. (1975) *La psychologie de l'enfant*. Pressses Universtaires de France, 6. edizioa, Paris.

Pozo, J.I. (2004) *Hitz eginez ulertzen dugu elkar: ezagutza elkarrizketa da* in XI. Jardunaldi Pedagogikoak. Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, Donostia.

Ruiz Bikandi, U. eta Miret Bernal, Inés. (2000) Hacia una cultura multilingüe de la educación. *Textos*, nº 023. Grao, Bartzelona.

Sáenz, M. eta beste. (2001) *Urtxintxa proiektua*. Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean, Donostia.

Sáenz, M. eta beste. (2006-2007) *Txanela proiektua*. Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean, Donostia.

Vigotsky, L. (1973) *Pensamiento y lenguaje. Teoría del desarrollo cultural de las funciones psíquicas*. La Pléyade, Buenos Aires.

Zalbide, M. (2001) *HIZNET* ikastaroaren apunteak: *Esparruz esparruko mikroplangintza: Hezkuntza alorreko hizkuntz normalkuntza.*



Ikastolen Elkartea

eleanitz

ISBN 84-37006901-27-7